

GAIZKA ZABARTE

# ZAHARRAK EZ ZUEN HIL NAHI



**GAIZKA ZABARTE**

**Zaharrak  
ez zuen hil nahi**

 **Susa** narratiba

Liburu honen salneurria: 3,54 €.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2011 Gaizka Zabarte

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2011ko iraila

Edizio hau: 2011ko iraila

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.com](mailto:susalit@armiarma.com)

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

# Ordubete barru kanposantuan

Kontua honela hasi zen. Ea etxean nengoen galdetu zuen, eta ni neu nintzela baieztatu zue-  
nean, ehorzlea zela esan zidan, nirekin hitz egin  
beharra zuela, lehenbailehen elkartzea gustatu-  
ko litzaiokeela. A, esan nuen. Ez dut esango ba-  
sakatua gauzez bezain azkarra naizenik, baina  
goizeko zortzietan, zortziak baitziren, ez naiz  
gauza askoz gehiago esateko.

- Barka, baina nor esan duzu zarela?
- Lur-emailea.
- A.

Ezagutzen nuen edo, hobeto esanda, bane-  
kien nor zen. Auzokoa zen, hazi nintzen auzokoa,  
eta umetatik nengoen ikustera ohituta, ez ordea  
berarekin hitz egitera, ez bainintzen berarekin  
sekula solasean aritu egun hartako goizeko zor-  
tziak arte, nire oroimen gero eta fidagaitzagoa-  
ren arabera bederen.

- Eta noiz gera gintezke?
- Ordubete barru kanposantuan -ihardetsi  
zidan.

Ez zuen gehitu ondo badatorkizu edo antzeko kortesiarik. *Ordubete barru kanposantuan*. Horrela esanda, eta are gehiago orain idatzita dakusadala, duelu baterako hitzordua dirudi edo ezkutuko lanen bat planifikatzekoa bestela. Ordubete barru kanposantuan, esan egin behar da gero, neroni azken urte mordoxka batean hiria- ren beste muturrean bizi naizela jakinda, ze ziur naiz ondotxo zekiela.

Telefono dei batek esnatzen bahau ordubete barru hilerrian zita jarriz, ez zirudik egun aspergarri bat daukaanik aurrean, nioen neure artean. Larunbata izanik eta hik dituan planak aintzat hartuta, ezin haiz kexatu; gaur beharbada zer edo zer gertatuko duk, aspaldian gertatzen ez dena, zer edo zer gertatzea alegia, ze, penagarria bada ere, gogoratzen al haiz noiz gertatu zaian zer edo zer zapatu batean? Eta ez hadi etorri baten batekin iratzarri hintzen azkeneko zapatu goizagaz, hori ezin duk-eta gogoan eduki.

Baikor sentitzen nintzen. Ardo botila bat eramatea erabaki nuen. Ez dakit ondo zergatik, baina bordeaux bat hartu nuen ataritik hurbil daukadan eta beti zabalik egoten den delicatessen batean. Dendatik irtetearekin bat pedante samarra ere iruditu zitzaidan, baina ustekabean

harrapatu nahi nuen ehorzlea, berak harrapatu ninduen bezalaxe; nor joango litzateke, bada, ardo botila batekin halako hitzordu batera? Ni neu ere ustekabeen harrapatu ninduen neronen ateraldiak. Solasean lagun zezakeen zerbaitekin joatea deliberatu nuen, egoki delako solasera bazoaz solas egiteko asmoa duzula erakustea. Horrelakoetan ardoa.

Nitxo bat adreiluz ixten aurkitu nuen lur-emailea, sasi aldamiu batera igota. Ez zen ohar-tu han nintzela, ez zuen behintzat halakorik adierazi, bere jardunean jarraitu baitzuen. Eta hantxe nengoen ni, besoak jausi antzean, ardo botila ezkerreko eskuan, erdi makurtuta espatu-la nola zerabilen beha. Leuntasun handiz pasatzen zuen lanabesa porlanaren gainean, ertzak zimurrik gabe utzi arte. Buzo urdinez jantzita zegoen, aukeran behar zuena baino taila bat edo bi txikiagoa, agian garbituaren garbituaz estutzen joandakoa, koloreak berak iradokitzen zuen moduan. Atzekoz aurrera zeraman bisera beltzak harrapatzen ez zuen ilea urdindua zuen bere gehienguan. Burututako lanari txukuna iritzi zionean, zutundu egin zen aldamiu gainean eta ni nengoen lekurantz jiratu.

- Egunon.

- Baita zuri ere.

Lurrera jaitsi zenean bere begiak nireen parean geratu ziren, garaiera bertsuan esan nahi dut.

- Eskerrik asko etortzeagatik -bostekoa luzatu zidan.

Patilla luze eta zabalak zituen, ondo beteak, mutikotatik gogoratzen nituenak. Baina aurpegi hark gogoan iltzatzeko moduko zerbait baldin bazeukan, hori sudurra zen: boxeolarien gisakoa, begiak bigarren mailan uzten zituena.

- Hau ekarri dut -esan nion botila altxatuz-, ez dakidan arren ospakizun batera etorri naizen.

- Edozein modutan, aukera ona -esan zuen botila bi eskuekin hartuz, irakurri beharrekoa begietatik urruntzen dutenen moldean-. Edan dezagun ba.

- Edalontzirik ez, baina.

- Hori ez da arazoa.

Kaperara abiatu zen, hilerriaren erdi-erdian dagoena, eta segituan itzuli zen kaliza bi eskuan zituela.

- Fernando Landaluze -esan zuen erakusleaz azpian nuena seinalatuz-, jarrai beza dagoenean sekulorun sekulotan.

Eta alboan eseri zitzaidan, ni ordurako harrizko hilobi batean eserita bainengoen.

Hasieran harrigarria ez ezik itsusia ere egin zitzaidan, ezezagun ninduen heinean, halako iruzkinak egitea defuntu baten gainean; hasieran diot, zeren gerora konturatu nintzen arrazoiren bat izango zuela gisa hartan hitz egiteko. Agian nire aita zenarekin loturaren bat izan zezakeen Landaluze jaunak, eta hortaz profitatuko zen bildu gintuen kontuari ekiteko. Zeharka joate horrek ere izango zituen bere zergatiak, beharbada mamira zuzen ez jotzeko ohitura hutsa edo inguruak ibiliz erdigunera iristeko molde pausatua. Zatekeena zen zuzen jokatzeko joera azaldu nahi izatea komentario harekin, zakar samar hitz eginez eta ustez errespetatu beharreko zerbaiten gainean gupidarik gabe ekinenez. Nonbait, han batu gintuen kontua konfiantza maila bateko terminoetan jarri nahi zuen.

Birabarki bat poltsikotik atera, botila zabaldu eta kalizak bete zituen.

- Itxura ederra du.

Eta topa gisan berea altxaturik usaindu egin zuen, begiak erdi itxita. Nik ere altxatu nuen neurea, jakina, baina begiak zabal-zabalik nitueenez ez nuen ardoa usaindu. Onartu behar dut,



ardoa hilerrian bertan edan behar genuela erabaki zuenean egonezin ñimiño bat sentitu nuela une batez; gero, kalizekin zetorrela ikusi nuen, berriro igarri nuen ezinegona, baina ez hain ñimiñoa, zertxobait luzeago baizik.

- Zaude lasai -esan zidan irribarrerik gabe baina ahots eztiz.

- Lasai nago -erantzun nion konbentzimendu handirik gabe.

- Pentsatu dut deseroso zeundela. Hemen, kaliza eder hauetatik ardo eder hau edaten... uste izan dut norbait azalduko den beldur zinela, gaiztakeriaren bat egiten ari denaren larruan.

Bete-beteen asmatu duzu, nik neure artean.

- Ez didazu esango ez dela bitxia -sakatu nion- bordeaux hau kaliza banatan dastatzea Landaluze jaunaren gainean, elkarrekin lehenengo hizketan dihardugun bitartean. Beharbada zuk sarritan izango dituzu era honetako jardunak.

- Ez haserretu, gazte. Orain, ordu hauetan, hona ez dator inor.

- Jendearen joan-etorri guztien jakitun zarela esan nahi duzu?

- Ez, noski. Hori zientifikoki okerra litzateke. Baina kanposantu honetako mugimenduen

sarea oso urrun dago kaosetik; beraz, auzi hone-tan, nire kontrol sistemaren huts egite maila oso baxua da.

- Orduan, esate baterako -zirikatu nuen-, ja-kingo duzu nor etorriko den bihar edo etzi.

- Ez ezazu harrokeriatzat hartu -ihardetsi zidan-, baina halaxe da. Badakit bihar Dionisio Martinez eta Benigno Zabalaren alargunak eto-rriko direla; noizean behin hurbiltzen da Zabala-ren alaba ere. Eta esan diezazuket bakoitzak ekarriko duena eta nola txukunduko dituzten euren senarren nitxoak. Baina hau guztia ez da batere harrigarria eta ez zintuzke aztoratu behar; izan ere, oker ez banago, zu irakaslea zara eta zure buruan ehunka aurpegi izango di-tuzu, nor bere izen-abizenekin eta zirkunstantzia ugarirekin.

Zuzen zegoen. Aste batzuen buruan ehunen bat ikasleren izen-abizenak, bakoitzaren jesarle-kua eta jesarrera, amodio kontuak eta bestelako elkartzeak, nahi baino gehiagoren gurasoak edo tatuaje zenbaiten kokapenak ikasten ditugu gure langintzan. Kanposantua errazagoa da. Ehorzle on batek, liburuzain on batek bezala, badaki ale bakoitza non dagoen, eta zuzen eramango zaitu edo ekarriko dizu. Hori ehorzle on batek. Baina

lerroz lerro hilerriko nitxo guztien izenak emateko gai dena, zalantzarik gabe, liburuenak errenkadan emateko gai den liburuzaina bezain arruntetik haragokoa da. Denborarekin frogatu ahal izan nuen hauetakoa zela ehorzlea.

- Ba, pentsa ezazu hemen matrikulatzen dena luzarorako dela.

- Eta beheko hau -nik ere erakuslea erabili nuen geure azpian zetzana seinalatzeko- ez omen zenuen oso adiskidea.

- Ez gara elkartu honi buruz hitz egiteko, honen albokoari buruz baizik.

Eta eskuma aldean genuen hilobi soila baino gehiago baina panteoia baino gutxiago zen zer-bait hura seinalatu zuen, kokotsa eta bekainak altxatuz. Edozein modutan panteoi hitza erabiliko dugu aurrerantzean bera izendatzeko, ez baiteritzot oso egoki panteoitxo, ezta panteoi txiki.

- Jakingo duzunez, zure aitaren hilobia da hori.

- Baita aitaita-amamena -zehaztu nuen.

- Halaxe da, bai -onartu zuen lur-emaileak-.

Eta laugarren batentzako tokia ere badago.

- Asko sartuko lirateke hor -neronek, umore bolada batek jota- aurretik labetik pasatuz gero.

- Errautsak mendietan eta itsasoan barreiatzeko joera ari da nagusitzen, tamalez -esan zuen, nahiz eta ezin izan nuen asmatu umore hutsez edo ofizioaren etorkizunean suma zitzakeen laino beltzez ziharduen-. Ez al duzu udaletik ohar bat jaso panteoia dela-eta?

- Zer da, ba, jaso behar nuena?

- Hilerrian berrikuntzak egiten ari dira, ikus dezakezun legez, nitxo gehiago egiteko. Eta nitxo en eraikin berriari lekua egiteko, zure sendiaren panteoia zertxobait mugitu behar litzateke, atzeko hormarantz. Halakoak egiten direnean udalak jakinarazi egiten dio dagokionari, sendiari, alegia.

- Ba, esango nuke ez dirudiela niri halakorik dagokidanik, izan ere lehen berria dut honetaz guztiaz.

Kalizatik edan nuen, sikatea egin baitzitzaidan goiz sargorian, eta jarraitu nuen:

- Hala ere normala iruditzen zait, norbaitek jasotzekotan udalaren ohar hori alargunak jaso behar lukeela. Nire amak hain zuzen ere. Edo bere arrebak agian.

Ehorzleak baietz esan zuen buruarekin. Eta isilik geratu zen. Isilik geratu ginen, han, Fernando Landaluzeren gainean, eskuetan kaliza bana

genuela. Astiro-astiro ardoa isuri zuen kalizetan eta edan egin genuen. Astiro-astiro, isildu egin zen haizea bera ere, isiltasun erabatekoa egin zen, hala iruditu zitzaidan bederen, nahiz eta errepidea urruti ez izan. Kanposantuetako isiltasuna nonbait. Orduan ikusi nuen isiltasun hura zela ehorzlearen marko, nolabait esateagatik, naturala: berea eta berezkoa. Esan nahi baitut, orduan, une hartantxe, pentsatu nuela, bada, honelakoa izan behar du gizon honek, gizon hau hauxe da, orain dakusadan gisakoa. Isiltasunean. Halaxe jarraitu genuen harik eta botilaren azken tanta isuri arte.

- Amaitu da -berak.

- Eta zergatik ez duzu nire amarengana jo esan behar didazuna esateko, zerbait esateko balego?

- Errazena zuregana jotzea zitzaidalako -horrela erantzun zidan, labur, laburregi nire gusturako.

Bekainekin adierazi nion ea nolatan errazagoa, bekainekin eta begiekin, edonork frogatu baitezake bekainak altxatzea, izatez, begiak zabalztearen ondoriozko higidura dela.

- Zu ikusten zaitut tarteka, eta ez dut zailtasunik izan zure helbidea jakiteko.

- Ni baino hurbilago duzu nire ama, bizitokiz behintzat.

- Hala izango da, baina urteak dira ez dudala ikusten eta ez dakit non bizi den, ezta norengana jo behar nukeen beragatik galdezka. Zure kasuan, ordea, erraza izan da. Aski izan dut zure adinkide batzuekin hitz egitea argibideak eskuartzeko. Auzo berean bizi eta urteak joatea elkar ikusi gabe sinesgaitza egin zitzaidan. Dena den, bi ahizpari buruz behin egunkarian irakurri nuena gogoratu nuen. Gerran banatu omen ziren: Sobiet Batasunera eramán zuten txikia eta hemen geratu zen nagusia. Orain dela urte gutxi irakurri nuen eta harrezkero beti datorkit gogorra, auzokideen bideak ez gurutzatzeaz zerbait entzuten dudanean. Laurogei zituen txikienak osasun zentroko itxarongelan zegoen batean bere abizenak entzun zituenean, aurretik beste izen bat zutela. Askaon bizi zen ahizpa bat eta Sendejan bestea.

- Konforme -esan nion-, baina bada zerbait niregana zuzentzearen balizko arrazoien aurretikoa. Alegia, zergatik deitu didazun. Ze, pentsatu behar dut, amak edo izeko Margaritak, bietako batek, udalaren jakinarazpen ofiziala jasoko zue-

nez, han azaltzen diren kontuez haragoko zer  
edo zer dela esan behar didazuna.

# Bizirik segitzeko

Kosta egiten zait idaztea. Ez dut eman nahi idazle tormentatuaren antza, ez bainaiz idazlea, ez bainago tormentaturik. Esan nahi dudana oso bestelakoa da: nekeza egiten zaidala taxuzko zerbait jostea orri hauetan, taxuzko ezer egote-kotan hemen. Hauetan eta guztietan. Eskutitzak idazten ditudanetan ere egunak eman nitzake bat burutzeko. Apurka idazten dut eta ez dakit nire zailtasunen ondorioa den edo zailtasuna izango ote den apurka idazte horren ondorioa. Hori gutxi balitz, apurka ez ezik trumilka ateratzen zaizkit hitzak, gihar misteriosu batek bul-tzatuko bailituen. Ez pentsa, ordea, bere mende naukan higidura muskular bat denik; nik ez dut, inola ere, idazle batzuek duten grina bare ezina, esan nahi baita, idazten jartzen dituen grina bare ezina. Hobe esanda, inoiz halakorik izan badut, oraintxe da, hona hau guztia kontatzera nakarrenak eraginda. Ni, lehenengo eta behin, jarri egiten naiz, eta behin idazten hasiz gero, orduan, batzuetan, gertatzen da trumilka eta apurka idaztearen kontu hori. Ez dut inoiz lau orrial-



detik gora idatzi eserialdi batean. Ez da, ez, oso profesionala. Esanak esan, ez dezala inork pentsa profesionaltasunaz trufa egiten ari naizenik. Alderantziz, darabildan digresio hau aurretiko desenkusa bat baino ez da.

Eta kontua da neronek ere ezin dudala galderetan lehena erantzun: zergatik dihardudan kontu hau guztia idazten. Ezta bigarrena ere: zertarako ari naizen. Aitortu behar da, elementu asko partekatzen dituztela zergatiak eta zertarakoak; hori dela-eta, zaila da bat ezagutzea beste inkognita denean. Ziurta dezakedan bakarra da, ehorzlearekin izan nuen lehen hitzorduan ohartu nintzela hura idatzi beharra zegoela, gutxitan inarosten nauen grina; izan ere, nire ustez, idazten ematen dudan denbora hau irakurtzen eman nezakeenaren galera baita, galera handiagoren bat ez aipatzeagatik, izan badira-eta.

Badakit mundu guztiak horrela jokatuko balu ez litzatekeela zer irakurri egongo edo, batzuen ustez hobe, gaur arte idatzitakoa izango genuke aukeran. Kontuan hartuta argitaratutako guztia irakur dezakeen amaren umerik ez dela jaio eta, mutazio bitxiren bat tartean ez bada, ez dela zati batean jaioko, bada, egoera ez litzateke hain la-

rria izango. Bai baina, esango luke burua duen orok, horrela galduko liratekeenak bide berriak egiteko saioak dira. Alabaina, ez da faltako bide berriak egiteko saioak zalantzan jarriko dituenik, dena esanda, guztia idatzita dagoela dioenik. Niretzat hauek dira arriskutsuenak. Nigandik, baina, ez bide berririk espero. Ehorzlearen dei harekin hasitakoa kontatzera baino ez nator.

Behin hona iritsita, aitortu behar dut ezin dudala ziurtatu hemen kontatzen ditudan solasaldiak eta enkontruak, ehorzlearekin, amarekin, izeko Margaritarekin eta gainontzekoekin, gertatu ordena berean kontatzen ditudala. Ziurta daitekeena da, ez dudala ahalegin handirik egin norabide horretan. Solasen bat, irudiren bat lot dezaket kanposantuekin, besteren bat ehorzlearen etxearekin edo Durangorekin. Hagitzetan gaiak berak narama elkarrizketa haietako bate-tik bestera eta, nago, horrek eman diezaiokeela gutxieneko koherentzia testu honi, bai behintzat ardatz kronologikoak baino gehiago. Gogoan dut, esate baterako, bere etxean mintzatu nintzela dueluez ehorzlearekin; mintzatu zitzaidala, gauzak zehatz esateko. Hasi neu hasi nintzen, oharkabea, nolabaiteko txantxaren bat eginez

gure lehendabiziko hitzorduaz, hitzorduaren lekuaz.

- Kanposantura joan beharrarekin, dueluen garaietan halakoetara joaten zirenen larruan ikusi nuen neure burua- esan nion, edo antzeko zerbait.

- Frantzian -argitu zidan- XVII. mendean arrunt bilakatu zuan dueluez erabakitzea zenbait kontu pertsonal, gehienetan zer ikusi urria zutenak ohorearekin eta zinematik hedatutako halako pitokeriekin. Eta luze iraun omen zian ohiturak. Gure Agosti Xahok berak ere hiru duelutan parte hartu omen zian. Are harrigarriagoa, nire iduriko z bederen -jarraiki zitzaion-, Uruguaikoa duk; han 1920an lege bat egin baitzuten dueluak arautzearen. Arautu bazuten zerbaitegatik izango zuan. Ziurrenik oso zabaldua zegoelako eta ez zelako modurik desagerrarazteko. Askoz hurbilago, Eibarren, udal ordenantza bat egin zitean 1913an, prostituzioa arautzen zuena. Eibarko udalak prostituzioa sustatu nahi zuelako? Zinegotziak putazaleak zirelako? Azken kontu hau alboratu gabe, uste diat ezin zutela prostituzioa ezabatu, oso zabaldua baitzegoen, eta horrengatik arautzea beste aukerarik ez zitean izan.

Besteak beste, tailerretako ekoizpena ez kalteztzeko.

Kanposantuan, lehenengo enkontru hartan, zuka jardun zidan. Hemen, bere etxean, hasi da hika, pentsatu nuen.

- Nolatan zaude hain jantzita duelu kontuetan? Ez zenuen ba zeuk halakoren batean parte hartuko?

Era askotan erantzuteko moduko galderak, biei erantzunez edo bati bakarrik. Arrapostu bakoitzari nahi adina doinu jar geniezaiokeenez, erantzunak orotara zenbatezinak izan zitezkeen.

- Sakon ikertu dudan gaia duk dueluena. Plazer hutsez -nabarmendu zuen-. Aspaldi, emazte batengatik desafioa egin nioan senarrari, edo agian berak niri, ez diat ondo gogoan.

- Ez da egia izango.

- Sinetsi egidak: nire birraitonak duelu batean utzi zian azken hatsa. Eta bere anaia OK Corral-ekoaren lekuko izan omen zuan.

Lehenengoa hasieratik hartu nuen egiaztat. Besteekin, oraindik ez dakit adarra jotzen ibili zitzaidan, orain badakidan arren bere birraitona eta anaia Ameriketara izan zirela eta hantxe geratu zela anaia.

- Kanposantuak dueluen antzeztoki izanik, Europa alde honetan gutxienez, nire ogibideak berak eraman naik kontu hauek ezagutzera, nahiz eta, tamalez, nire apopiloen artean ez daukadan duelu batean akabatutako inor. Edozein modutan, dueluak badik ezberdintasunik Atlantikoaren alde batetik bestera, hala liturgietan nola kokalekuetan, baita ere onarpen sozialean.

Erakusten zuen dueluen gaineko jakintza entziklopediko hura lurrera ekartzearen edo, besterik gabe, bere kalakak une hartan gogorarazi zidalako, honelatsu esan nion:

- Eta non kokatuko zenuke zuk atxilotu batek jeneral hari bota omen ziona? «Goazen biok Urbasara eta ostiaka erabakiko dugu auzi hau», edo antzeko zerbait.

- Duelurako gonbitea duk, zalantzarik gabe: desafioa. Zaldun kontua balitz bezala agertzen bada ere, presoak bazakik hara ez duela zalduneria legeak eraman, gerrak baizik, jarduera kolektiboa beti. Une horretan politikoki jokatzeko ziharduk aurrean duen gizonarekin, lokian kanoiaren hotza dastatu arren.

- Hori eta askoz gehiago esan daiteke -gehitu nion-. Baina lekuaz ere izango da zerbait, Urbasa ez baita edozein leku. Ez da kanposantua.

- Hala zeritzoat neronek ere. Izan zitekean Aralar edo Urbia, Gorbeia beharbada. Ez, ordea, Bilboko Plaza Barria, Eroskiko aparkalekua edo Derioko kanposantua. Baditek Urbasak-eta zer edo zer neolitikoa baino haragokoa, sakonerantz esan nahi baita; ez, halabeharrez, zaharragoa; baditek zerbait leku horiek gure etxetzat hartzearen gisakoa, nire irudikoz. Leku garaiak, non gizonak ez duen gizona ikusten, bere baitara so egin ezean bederen, intromisiorik gabeko tokia. Ama lurra, badakik: ur, lur, elur.

Isilik egon ginen, azken hiru hitzen oihartzuak aditzen.

- Nonahi ere, emetasunik gabeko giza kontuak -bota nion-. Ez dut inoiz entzun emakumeen arteko duelu konturik.

- Bada izan, izan dituk -ihardetsi zidan begiekin irri eginez-, baita Euskal Herrian ere. Fenomeno ia unibertsala duk dueluena. Jakina, emakumeak tarteko eduki zituzten dueluen konstantzia idatzirik apenas zagok, idazkera boterearena den heinean; baina, gezurra badirudi ere, ahoz aho, doinuz jantzita edo hain gabe, bi baino gehiago iritsi zaizkiguk...

Luze eta zabal mintzatu zitzaidan kontu haiez, eta aitortu behar dut tarteka eten egiten

nuela konexioa, nire gogoak ehorzlearen bidezidorrak utzi eta bereak egiteari ekiten ziola. Eta halako eten batetik itzultzean esan nion:

- Badago Gary Cooperren western bat, zein角度an duela bat dagoen, ohikoaren aurka, filmaren hasieran. Gary Cooper Sezesio Gerran hegoaldekoen buruzagi izandakoa lekuko sheriffarekin lehiatuko da, errebolberrez, herri oso baten ikuskizun. Zerraldoa zaldi baten gainean eramango du ekialdetik etorri berri batek. Hain justu, zaldia Cooper luzea daramaneko eszena irrigarria da oso, are gehiago ikuslea jabetzen denean duelua trikimailu bat izan dela, zeinari esker hegoaldeko buruzagi ohiak, bere izenari lur eman ondoren, bizitza berri bat hasiko duen. Berria esatea beharbada gehiegi da, izan ere, Cooper luzeak egingo duena, behin izen berria jantzita, bere sendia akabatu zuen maltzuraren bila abiatzea izango da. Arras topikoa, badakit.

- Bai. Baina horretatik guztitik interesatzen zaidana, duelua edo trikimailua bera baino gehiago -solasaldia amaitzera zihoan ehorzlea-horra bultzatu duen patua duk; alegia, galtzailarena, zeinak azal berri bat behar duen mundu berrian, lege berrian, bizirik irauteko. Horregatik

behar dik hil, bizirik segitzeko. Eta izen berri bat  
behar dik.



# Ez da sekula hemen izan

- Zuregana jo badut, udalaren jakinarazpenak dioenetik kanpoko zerbait esateko izan da, bai. Esan dizudanez, obra batzuk egiten hasi gara hemen. Herenegun hasi ginen. Eta atzoko eguna hausnartzen eman nuen.

- Hausnartzeak on egin lezake.

- Ulertu egidazu. Ez dut esan nahi arbolape batean nentzala kontenplatiboen maneran. Neure lana egin nuen atzo, baina herenegungoaz hausnarrean.

- Ez didazu azalpenik eman behar.

- Badakit. Eta hala ere azaldu nahi dizut, zure sendiaren panteoian sartu nintzela bertoko gorpuzkinak ateratzeko asmoz, hori baita lehenengo beharra gero panteoia mugitu ahal izateko. Lehendabizi zure amamarenak eta aitaitarenak gordetzen dituzten kutxak atera nituen eta, ondoren, zure aita zenarenak gorde behar zituenak.

- Gorde behar zituenak?

- Bai, jauna, hasi zara konturatzen auziaren nondik norakoaz.

- Ba ez dut ezer ulertzen.

- Normalean, urteen poderioz, gorpuk ez ezik kutxak ere hondatu egiten dira, batez ere ipar mendebalera begira dauden hilobietakoak. Ez da zuen kasua; are gehiago, zure sendiaren panteoia egin zuena ez zen makala, bazekien hezetasunaren eta hozberoen eraginen berri, hala dirudi behintzat. Hogeita bederatzi urte dira zure aita lurperatu-edo genuenetik. Eta zuen amama (aitaita ni honetan hasi baino lehenago sartu zuten hemen), amama hilobiratu nuela, hamar. Bada, kutxa biak daude egoera onean, amamarena eta aitaitarena. Txukun, lehor eta ustel gunerik gabe. Eta ez dakit egokia den esatea, baina hala ez bada barkatuko didazu, baiezta dezaket zuen amamaren gorpua osorik dagoela.

- Ez duzu barkamenik eskatu behar.
- Eskerrik asko.
- Baina zure aitaren arrastorik ez dago.
- A.
- Nik esango nuke zure aita ez dela sekula panteoi honetan izan.
- Ados.
- Dirudienez ez zaitu harritzen. Baina onartuko duzu, kontua bitxia dela oso.

- Oker zaude. Harritu harritzen nau eta ez gutxi. Seguruenik zu zeu harritu zintuen beste. Ez nauena egiten da hunkitu, horregatik izango da ez didazula emoziorik antzeman, eta harridura beragatik ere bai hainbatean.

- Zeure arrazoiak izango dituzu.

- Zergatiak esango nuke nik. Badaude, ugari, halako albiste baten aurrean ez hunkitzeko zergatiak. Eta denak bakar batean laburbil daitezke: ez dudala aitarik izan.

- Orain ni naiz ulertzen ez duena.

- Esan nahi dut, amarekin hazi nintzela eta, nire memoria iristen deneraino, ez dudala gogoratzen aita-minik izan dudarik. Ez dut ukatuko inoiz ere izan ez dudarik. Ume-umetan, esate baterako, eduki eta ez eduki artean ez dago zalantzarik, beti eduki. Diodana da nire gogoan ez dagoela horren aztarnarik. Eta noraino heltzen da nire memoria? Baditut irudi bakan batzuk, lauzpabost urte nituenekoak, baina geroagokotan ere sarri gertatu ohi denez, ezin jakin noraino diren berezkoak edo entzundakoak eta urteetan zehar norberak kontatutakoak, norbere buaruari baino ez bada.

- Interesgarria. Beraz, hunkitu ez, harritu bai.

- Hori da.

- Neroni bezala orduan, harrituta. Hara, nire irudikoz, utziko didazu matazaren muturretik tiraka hasten, zure aita ez zen inoiz hilobi horretan izan.

- Ezta hilkutxan ere, hainbatean.

- Hainbatean. Baina hori beste kontu bat da.

- Dena den, badago argitu beharko zenukeen zerbait beste ezer baino lehen. Hau da, ea beste inori eman diozun honen guztiaren berri, Polizia-ri esate baterako.

- Zalantzak izan nitzakeen norengana jo erabakitzerakoan, baina aukeren artean inoiz ez za-tekeen Polizia egongo.

- Zure arrazoiak izango dituzu.

- Zuk errazago aurkituko zenituzke Poliziarengana joateko arrazoiak ala?

- Ez.

- Lasaiago geratzen naiz.

- Gustatuko litzaidake jakitea zer egiteko asmoa duzun; ze, izatez, izango duzu udaleko zure nagusiari honen berri emateko obligazioa.

- Barkatu egidazu, baina zuregandik ez nuen holakorik espero. Aipatu duzun nire obligazio hori arlo administratiboari dagokio; bizitzak, ordea, arlo ugari ditu, eta beste horietakoren

bati dagokion obligazioabetez deitu dizut... edo dei niezaiokeen zure amari.

- Ulertu behar dut, orduan, niregandik zerbait espero omen zenuenez, nolabaiteko iritzia zenuela niri buruz, nirekin egon aurretik.

- Aurreiritzia? Zer nahi duzu esatea... Egia da ez zaitudala ezagutzen, baina ezin esan ezezaguna zatzaizkidala; azken batean auzo berekoak ginen, hazten ikusi izan zaitut, norbere auzoko umeak ikusten diren gisan, nire moduko batek ikusten dituen gisan. Ardo botila honekin zatozela ikusteak ere lagundu du zutaz daukadan iritzia osatzen. Ez dugu inoiz elkarrekin hitz egin, aire berbera arnastu arren. Horrez gain, ulertu behar duzuna da beste inork ez dakiela, eta gutariko batek zabaldu ezik beste inork ez duela jakingo. Neronek garraiatuko ditut hilkutxak panteoiaren kokaleku berrira. Hemendik aurrerakoa zure esku uzten dut.

- Pare bat egun hartuko ditut pentsatzeko. Erabaki bat hartu bezain laster etorriko natzaizu esatera.

- Erabaki zuzena, hartu duzun lehenengo hau.

- Eskerrik asko.

# Ehorzketa egunean bizirik

Etxera igo baino lehen atari ondoko tabernan sartu naiz. Mostradoreko taburete batean jesarri naiz eta Agustin, tabernako ugazaba, ez dagoeenez, ez dut solasaldirik noizbehinkako enplegatu Manurekin, ez baitugu hitz egiteko ohiturarik, Agustin bera tarteko ez bada bederen. Duela urte batzuk hartu zuen taberna eta Pikota jarri zion izena. Baina jendeak Markitos deitzen dio, lehen bezala. Laster ohartu zen Agustin honetaz eta baita onartu ere. Izan ere, hain zebilen endredatuta argindarrarekin, arotzekin, hornitzailerekin, udal baimenekin eta enparauokin, pentsatu gabe jarri ziola izena, ohartzeke taberna, aldaketak aldaketa, betikoa zela. Ohartzeke bera, Agustin, zela han berria. Mostradore atzeko ispiluari eta beronen azpiko botila errenkadari begira geratzea baino ez dut izan. Luzeegi joenez gero aspergarria gerta daitekeen bezalaxe, tarte egoki baterako jardun polita deritzot, ni gustura egoten naiz behintzat, aurrean norbere burua baino ez dela.

Bitxia benetan ehorzlea, esan nion nire baitan ispilutik so nuenari, bitxia eta interesgarria. Ondo egin duk pare bat egun hartzearekin erabakitzeko, erabakirik hartzeke uzteko moduan hagoen arren. Ez, hori ez duk horrela, gauzak bere horretan uztea erabakitzea baita. Bakarrik nago, kamareroak edalontziak sikatzen dihardu, ez hurbilegi ezta urrunegi ere, jarrera profesionala oso. Hartan horretan, konturatu naiz ez dela beste inor geratzen tabernan, horrek zerbait aldatuko bailuen; enfin, beste inor ez dagoela ikustean etxera igo naiz.

Hausnarketarako besaulkian jesarri naiz, zer edo zer pentsatzeko dudanetan egin ohi dudan legez, nahiz eta, maiz, zerbaiti bueltak ematen hasi eta burmuina zuri amaitzen dudan, aurreko pareta bezain zuri, besaulkian jesarriz gero pareta baino ez dago-eta aurrean. Pareta hori niretzat zine pantaila bat da, zuri egoten da jesartzten naizenean eta nire buruan irudiak sortu ahala pantailan islatzen dira, batzuetan kolore biziz, motelez beste batzuetan, inoiz hain barik, kontrastea ere batzuetan urri eta sarri distira gehiegirekin. Gutxitan elementu hauek guztiak molde orekatuan. Badu, nonbait, ametsekin zer ikusirik. Ni, jakina, paretarekin mintzatzen naiz...

Hemen pare bat kontu daude: batetik ehorzlea eta bestetik aitaren afera. Zer esan, ordea, ehorzleaz. Bada, ez nuela espero horrelako lur-emaile batekin topo egitea, are gutxiago horrelako batek norbere aitaren hilkutxa apopilo gabe zegoela jakinarazi izana. Behartuta nago erabakitzen dudanaren berri berari ematera, ezin da eta ahaztu bere lan betebeharrak saihestuz, eta bidenabar arriskatuz, niregana zuzendu dela.

Aitarena konplikatua duk. Zergatik ez zagok panteoian? Egon al duk inoiz? Egon ez bada, horixe baita ziurrena, nola desagertu zuan? Zergatik, bere borondatez ala borondatearen kontra? Bata edo bestea izan, zerk eraginda? Bat-batean pantaila zuri jarri da, bihotz taupaden kadentzia moteldu egin zait. Galdera gehiago zaudek: non aurki zitzakeat aurreko galderen erantzunak?, norekin hitz egin?, non begiratu?, zer irakurri?, ze argazki ikusi?, zein herri, taberna, lantoki, bulego bisitatu?, edo akaso: zein kanposantu?

Hilkutxa hutsa da desagerpenaren berri eman diguna. Beraz, hilkutxa bera begitantzen zait abiapuntu egokiena misterioa, a zelako hitza, argitzen hasteko, ez dakidan arren, une honetan, misterioa argitu nahi dudan edo ez.



Hori da, hain zuzen, hartu beharreko erabakia, aitaren desagerpenari, edo bere gorpuarenari, argia egiten ahalegindu edo bertan behera utzi auzia. Ehorzleari esan nion bezala, aitaren kontuek ez naute hunkitzen, ez naiz emozionalki lotuta sentitzen aitarekiko; alde horretatik, nola esan, libre sentitzen naiz. Hemen, nire ustez, eta kontuan izanda sarri darabildala *aita* hitza, hitza-ren esanahi ezberdinez ohar batzuk egitea egoki litzateke. Esan nahi baita, ez dela gauza bera nik *aita* hitzari nemaiokeen zentzua eta bere bizi-tzan rol hori betetzen duen gizonaren presentzia izan duenak lemaiokeena; eta presentzia dagoenetan gerta daitezkeen egoera ezberdinak zenbakaitzak badira, beste hainbeste gertatzen dela absentzia dagoenetan ere.

Hilkutxa da abiapuntua. Aitaren desagerpenaz hartu behar dudan erabakia (arakatzea edo ez) hartzeko gauza ez banaiz ere, nire artean burutazioek misterio horren bidezidor meharretara naramate, gune batzuetan ikusi ere egiten ez den bidezidorra, hain dira ugariak sasiak eta iriak. Hilkutxa bada abiapuntua, bera erabili zuten azkenak dira lehendabiziko informazio iturri. Baina, nortzuk ote ziren? Batek daki. Gainera hiletetan, ospetsuenetan salbu, ez da konmemo-

razio argazkirik egiten, ezteguetan-eta egiten den moduan. Zuzendu beharreko kontu bat, zalantzarik gabe. Eta harrigarria, bestalde, gure gizarte honetan oraindik irudiaren negozioa gehitu ez izana hileten negozioari. Mujika hileta zerbitzuak. Hilketxen katalogo zabalena, zeure gustuko lore omenaldia, tramiteak, erreportaje grafikoak, fotoa zein vhs edo dvd. Mujika hileta zerbitzuak, heriotza eroso bizitzeko. Tanatorio bikaina, kafetegi, jantoki eta defuntuarentzako zein bisitariarentzako azken belaunaldiko aire egokitu eta guzti. Mujika hileta zerbitzuak, zure atsedena xede. Denbora kontua hainbatean. Andarietakoren bat aurrez aurre baneuka, berriz, zer galdetuko nioke, ea kutxa arin samarra sumatu ote zuen, ohartu ote zen hutsik zegoela, ea hori baino zerbait gehiago zekien. Ez, ez zeukan zentzu handirik, are gutxiago balizko andaria nor zen jakin gabe, aurpegiak eta izenak informazio ugari biltzen baitute. Neure buruan aitaren hilketzarekin zer ikusia izan zutenen zerrenda egin nuen: ehorzlea, andariak, senideak, morgekoak, gorpua jaso zutenak, gorpua heriotza ziurtatu zuen medikua edota epailea. Edozein modutan, eta konturatzen naiz ez dudala horra iritsi nahi, ahaleginak egiten ditut, oharkabea, horra

ez iristeko, bestelako adarretatik abiatzen saiatzen naiz, neure artean jakin arren non dagoen, benetan, misterioari argia eman diezaiokeen iturri segurua. Amari kalterik ez egiteko senak narama horretara, nire burutazioek andarien edo ehorzlearen adarretara jotzea amarena ekidinez. Deseroso sentitzen naiz, une honetan, amaz pentsatzen. Ezin dut esan ama gaizki esaka aritu zaidanik aitari buruz, ezta aitaren gaia tabu bat izan denik ere, nahiz eta hitz egin gutxi hitz egin izan dugun gizon horretaz, eta ezertxo ere ez bere desagerpenaz. Amaren hitzetan: «Banatu egin ginen». «Banatzea erabaki genuen» ere entzun diot inoiz. Niretzat aita joan egin zen, ez bere martxaren oroimenik dudalako, amaren hitzetatik atera dudan ondorioa delako baizik. Aita joan egin zen txiki-txikia nintzela, ez dakit data zehatza jartzen, ez diot amari inoiz galdetu eta berak ere ez dit sekula esan egun honetan edo hartan joan zen, egun honetan banatu ginen. Halakoetan, gainera, joan orduko aspaldi joana izaten da joan behar duena, bereizi orduko bereizita baitago bereizi beharrekoa. Edonola ere, ez dakit zergatik, nago, jaio berria nintzelarik joan zela. Orain, pentsatzen jarrita, beharbada ideia hori argazkietan oinarritua izango da, ez baitago

argazkirik aita eta biok gaituenik, nik ez dut ikusi behintzat. Esan behar da, edozein umek bezala ikusten nituela amarekin familiako argazkiak, baina inoiz ez zidan esan amak «Hemen aitarekin zaude». Ez dakit, ez, zergatik banatu ziren gurasoak. Uneari erreparatuz, arrunt samarra da umea izan eta lasterrera bikotea bereiztea, diotenez umeak ez izatea ere izaten da bereizteko unea, unea deitzerik badago horri, zerbait ez egitearen uneari. Diotenez, sarri, umeak izaten dira horizontean ikusten den eta poliki-poliki handituz doan bereizketaren itzala saihesteko bidea. Bereizketez zerbait esan dezakedan arren, haurrei buruz, haurrak izateari buruz hobeto esanda, ez dut deus esateko.

Litekeena da amak jakitea zer dagoen honen guztiaren atzean, aitaren desagerpenaren azpian. Hala eta guztiz ere ez dut uste kontu hau mahairatzeak poz dezakeenik, aitarena iragana baita. Edo ez. Halaber, litekeena delako amaren nolabaiteko konplizitatea gertaera horietan, auskalo. Zehazte aldera, pentsatu behar dugu hilotz biratu zutenean bizirik zegoela; ze, hilik balego, zergatik ez paratu bere hilkutxan. Ez dauka zentzurik, bizirik izan behar zuen. Amak horren berri izatea edo iruzurrean eragile aktibo izatea beste

upel batekoa da. Edonola ere, gai deserosoa amarentzat, ez baitut uste nire distantzia emozionala izan dezakeenik, ezta hurrik eman ere. Ama aitarekin bizi izan zen eta horrek amodiotik gorrotorako gama osoari egin diezaioke tartea. Deseroso bai, baina, aukeren artean, ezin da baztertu, deserosotasun horrekin batera egia jakiteko gogoia izatea, ama ezagututa gerta litekeena, jakin-mina, egia-mina hobeto, deserosotasunari gailentzea ere baliteke. Are gehiago, ni jakitun izanda, amari honen berri ez ematea ez da zilegi, ez lidake barkatuko, arrazoi osoz.

Hobeto sentitzen naiz. Hala gertatzen zait erabakiren bat hartzen dudanean. Oraingoan, gainera, ia euforiko esango nuke. Batetik, erabaki baitut aita bizirik zela bere hileta eta ehorzketak egunean; bestetik, erabaki baitut amarekin solastatuko naizela honetaz guztiaz. Bi erabaki hartu ditiat, edertotxo nagok, trago bat hartzera irtengo nauk.

# Hain da demasa

Joango haiz amarengana eta esango diok jakin duala, kanposantuko obrak behartuta familiaren panteoia mugitu dutelako, aita ez zela sekula bere hilobian izan eta ea hortaz ezer argi diezadakeen. Orduan berak begiratu egingo dik eta hik ez duk, lehenengoan behintzat, begirada ulertuko. So egite horrekin amak pentsatzeko tartea hartuko dik, beti egiten baitu horrela, ezusteren batek harrapatuz gero geldiene bat egiten dik, ezusteak ezuste izateari utz diezaion eta horren aurrean nola jokatu erabakitzeke. Neuk ere horixe bera egiten diat, berarengandik ikasita, beno, berarengandik eta urteek ematen duten eskarmentutik, alegia, sarri jardunak hausnarrari aurrea hartu eta gaizki paratua irten ondoren ikasia. Egia esan, batzuetan egiten diat horixe bera, ez beti. Oraindik urruti nagok diziplina hori menperatzetik. Ea nola jakin duan galde-tuko dik, eta hik «ehorzleak esan dit» erantzungo diok. «Behar genuena» edo horrelako zerbait esango dik amak, eta hik ez duk jakingo «behar genuena» aitaren sasi-ehorzketara ala ehorzlea-

rengandik jakin izana den. Galdera zehatzagoak egitea erabakiko duk, «zuk ikusi al zenuen aitarren gorpua», esate baterako, eta amak baietz erantzungo dik. Edo ezetz. Pantailan Alluitz agertu duk eta tentetu egin haiz pentsatzeko heure besaulkian. Saiak hegan ari dituk, lasai antzean. Aita Alluitzen hil zuan; bere ohituren artean mendian bakarrik ibiltzea omen zuan bat, eta nora zihoan inori inoiz ez esatea beste bat. Hala ere litekeena duk, etxetik irteterakoan berak ere ez jakitea zein menditara joko zuen. Honetan ere inprobisazioa zian atsegin, nonbait. Infernuko Zubitik amildu eta lau egunetara aurkitu zitean, hegoaldeko isurialdean. Tarte horretan saiak ez zituan geldi egon eta bere parte hartua zitean. Bizilegea. Hori horrela, konprenitzekoa lukek inork gutxik ikusi izana gorpua, amak berak ere ez seguruenik. Ezetz erantzungo dik, ordurako bereizita zeudenez ez zuela gorpua ikusi, ahaztu gabe aurkitu zuteneko egoeraren penagarria. Hala eta guztiz ere medikuren batek ziurtatu behar izango zian heriotza, han edo hemen izan behar dik paperen bat sinatuta, epaileren batena agian. Jaso ere norbaitzuk jasoko zitean gorpua Alluitzen hegoaldeko amildegitik. Alluitzeko gorpua. Norena, ordea. Aitarena izan bazen, ez

zaukak zentzurik hilkutxa huts bat hilobiratzeak, ezta beste norbaitena izanik ere. Aitarena moduan ziurtatu bazuten, orduan ere ez zaukak zentzurik. Honetaz guztiaz, baina, ez diat uste amak asko argituko didanik. «Bost axola gertatu zaiona edo egin zuena edo desagertzeko egin zuena», esango dik amak, «nire bizitzatik kanpo zegoen-eta». Hori nahi huke amaren ahotik entzutea, gisa horretan desagertzea argitzeari ekin edo bertan behera utzi eta ahaztu, kontzientzia txarrik gabe egingo huke. Ez duk, ordea, batere segurua amak horrelakorik adieraztea; ez, ez duk hori izango bere jarrera. Bestalde, ez duk beste muturrean ere irudikatzen, hots, tragedia-tzat har dezakeela; amaren erreakzioa bestelakoa izango duk, hik orain, pareta zuriari begira asma ezin dezakean moldekoa.

Gaur eguerdian joan naiz amarengana. Berekin eman dut arratsalde osoa. Larunbata izaki, aspaldi egiten ez nuen bezala, goizeko hamarrak aldera deitu diot bazkaltzera joango nintzaiola iragarritz; amekin horrela gonbidatu ohi dugu geure burua semeok. Zer esanik ez, aspaldiko partez egin dudan otordurik onena izan da. Atea ireki dit irribarre zabal batez eta musu bana eman diot masailetan.



- Asko poztu nau zure deiak -hasi zait-. Denbora asko da ez zatozela hamar minutuko sarturten horiek baino egonaldi luzeagoa egitera.

Semearekiko amaren maitasuna, baita amarekiko semearena ere, berregiaztatu eta gero bota dit:

- Baina zerbaitek ekarri zaitu nigana, ezta?

- Halaxe da -erantzun diot-, baina utz dezagun hori bazkarirako. Mahaia ipiniko dut.

Horrela, nik mahaia ipintzen eta berak labetik ateratako txitxarroari azken ukituak ematen zizkion bitartean, bazkaltzera banoakio beti jarriko baitu entsalada eta txitxarroa, kontu arruntei ekin diegu. Esate baterako, jakinarazi dit goiko solairura neska bat etorri berri dela errentan. «Auzokoa bera, izatez», gehitu du handik zati batera. «Nik uste zurekin eskolan ibilitakoa, baina orain dela urte mordoa joan zen familia batekoa». Edo kale kantoiko arropa denda itxi egin dutela, duela aste batzuk Mariak erretiroa hartuta ez baitzuen jarraipena emango zion inor. Sasoi batean gure kalea dendaz josia zegoen, albokoa tabernaz bezainbat, baina kaleak husten dihardute oraingo merkataritza gune horiek. «Badakizu», galdetu dit, «zer dugun orain etxe azpian denden ordeztan?». Ez dit erantzuteko be-

tarik eman. «Gazteen lokalak; sofa telebista kalimotxoak eta porroak». Ez da amari porro hitza entzuten diodan lehenengo aldia, nahiz eta lehenengoz zela iruditu zaidan, geroago konturatu bainaiz hitza barik doinua zela berria niretzat. Ez zen porroak erretzen zituela adierazten zuela doinuak, baina bai, nolabait esatearren, eguneroko edo ohiko elementutzat jotzen duenaren doinua.

Kafeari ekin diogunean iritzi diot heldua zela momentua amarengana eramanez nauen auzia ateratzeko. Amak ere hala zeritzola uste izan dut, ezer esan gabe koilaratxoari eragiten baitzion, «zain naukazu» esanez bezala.

- Lehengo egunean ehorzleak deitu zidan. Nirekin egon nahi zuela-eta, hitzordua jarri zidan kanposantuan.

Tartetxo bat utzi dut jarraitu baino lehen, amak bere hartan segitzen zuen bitartean, esan nahi baita koilaratxoari eragiten, zertxobait azkarrago kafea irabiatzen.

- Larunbatean deitu zidan, goizeko zortzietan, eta hitzordua ordubete barrurako jarri zidan, bederatzietarako. Ez esan ez dela bitxia.

Beste tarte bat uztera nindoan amak galdetu didanean:

- Zein ehorzle? Hemengoa?

- Jakina -erantzun diot galderak ustekabeen harrapatzen zaituenean jartzen duzun doinuarekin-, Mahatserriko ehorzlea. Nor izango da ba!

Kontatu diot, halako batean, ehorzlearekin izandako enkontrua, ardoarena aipatu gabe, noski, ezta Landaluzerena. Harira joanda, familiako panteoiaren mugitu beharra eta aitaren hilkutxa hutsaz baino ez naiz mintzatu. Amamari buruzko ehorzlearen komentarioak ere ez dizkiot aipatu. Panteoia aitaren familiarena da izatez, eta amama amaren amaginarreba zen, beraz, jakinarazpena, inori bidaltzekotan, Margaritari bidaliko zioten. Denbora eman diogu denborari. Amak begirada urruntasunean galdua zeukan eta buruari eragiten zion, batzuetan gora eta behera, besteetan ezker-eskuma.

- Ez dakit zer pentsatu -hasi da esaten-, ez dakit zer esan... hain da... demasa.

Bistakoa zen zur eta lur utzi zuela kontu hark guztiak; egia esan, ezin zitekeen besterik espero. Masailetan zehar zabaldu egin zaio gorritasuna, gorritasun leuna, neurrikoa, bere edertasuna areagotzen duena; izan ere nire ama, gaztetan ederra izana zela nabaritzen zaien horietakoa izateaz gain, ederra da zahartzaroan ere. Bere

azalak ume batena dirudi nirearen aldean; zaharrei leuntzen zaien moduan baino gehiago, zahartzen ez zen azal baten gisan.

- Begira, ama -ekin diot-, badakizu inoiz ez dudala interes handirik azaldu aitarekiko, eta ez zuri ustezko oroipen tristeak ez gogoraraztearren, benetan interes gutxi izan dudalako baizik. Ez dut aitaren premiarik izan. Baina honetaz guztiaz, desagerpenaz ari naiz, zerbait badakizu esatea nahi nuke.

Terra incognitaren batean galduta segitzen zuten amaren begiek; alabaina burua honantzago zirudien, irribarre xume bat egin baitu, ezpainetan gelditu zaion irriño hura begietara iritsi gabe.

- Ez, seme, zer esan diezazuket -hitz egin dit begiak nireetara ekarriz-. Ordurako, zure aita hil zenerako ez genuen inolako harremanik. Banandu ginenean bere arrebarengana joan zen bizitzera, Durangora. Nik ez nuen gehiago ikusi.

Ea zergatik banandu ziren galdetzeko gogoatorri zait, inoiz ez bezalakoa. Gure elkarrizketaren erritmoa motela izan da, tonua bera bezainbeste, mintzatzeaz gain bakoitzak bere pentsamenduen zurrunbiloei arreta jarri behar baike-nion. Galdera hori hurrengo baterako uztea deli-

beratu dut, izango dira eta aukerak; izan ere, une horretan ikerketaren ildoak segitzea lehene-  
tsi dut. Egoera hartan ikerketa hitza arrotz begi-  
tandu zait, amarekin bainengoen, aitari buruz,  
sentimenduen eremuan barrena. Ikerketa gehia-  
go da arlo zientifikoko hitza, institutuan usu era-  
biltzen dena, baina onartu beharra daukat orain  
gure bizitza intimoan sartu zaiguna. Horrenbes-  
tez, kontu zehatzetara jo dut.

- Zu izan zinen, baina, aitaren hiletan.

- Jakina, bere emaztea nintzen, bananduta  
egon arren. Ez nintzen bere emazte sentitzen,  
baina ez neukan zakarrontzira botatzeko. Bere  
oroitzapena, berarekin bizi izandako une goxoak  
ez nituen ahaztuak...

Masailetak gorritasun xumeak alde egin dio,  
distira begietara igo zaio, hasierako harridura  
gailenduta oroitzapenen uretan murgilduta irudi-  
tu zait. Bere emaztea zela esan duenetik zaka-  
rrontziak eta une goxoak aipatzerako tartea la-  
burra izan da oso, hitzak urri, baina doinu alda-  
keta sotil bat sumatu dut. Esan nahi dut, zaka-  
rrontziarena, oroitzapenena eta une goxoena ez  
zaizkidala guztiz sinesgarri egin.

- Gogoratzen dut -jarraitu zuen- Margaritak  
deitu zidala istripuaren berri emateko.

Irriño bihurri bat osatu zaio, oharkabean ziur aski, baina niri esanguratsua egin zaidana, ez dakidan arren zer esan nahi zezakeen. Aitaren arreba da Margarita, arreba bakarra, gaztetan Durangora neskame joana eta hango gozodenda batean lan egin duena urte mordo batez.

Amak aurrera egin du:

- Ez zenuke inoiz asmatuko nola eman zidan Margaritak berria. Telefonoa hartu eta honela esan zidan: *gaurtik alarguna hazela esateko deitzenat*. Horrelaxe hasi zen, atera kontuak. Tira, egia esateko, gero samurrago hitz egin zidan, Margarita samurra izan zitekeen neurrian.

Hasperen egin du eta mahaitik altxatu da atzean neukan armairura abiatzeko. Pasta kaxa batekin itzuli da bere tokira. Txokolatez bustitako bat aukeratu eta egiaztatu dut ez dakidala deus amaren eta aitaren sendiaren arteko hartu-emanen, ezta gurasoen euren artekoen ere.

# Zure iloba naiz

Margarita, izeko Margarita, aita baino zertxobait zaharragoa zen eta bere arreba bakarra. Izan omen zuten beste anaia bat; hemen nire memoria lanbrotsua da, zerbaiten oroitzapen galduren bat badut, umetan entzundako solasaldiren batzuegatik ziurrenik, baina ez nago erabat seguru, istripuren batean hil zelakoan nago, antzina.

Purik esan ohi du, zahartu ahala gizakiak albo batera uzten duela antzina hitza, bere ordeaz aspaldi erabiltzeko. Puri institutuko lankide zaharrena da eta merezi izaten du esaten duena entzutea. Honetaz jabetu nintzen ikastetxera heldu eta lasterrera. Bilera bat zen, ez dut gogoratzen kontu pedagogikoak ziren tarteko edo greba deialdi baten ganean ari ginen edo komunen konponketaz. Puri kimikaria da ikasketaz eta gutxitan hitz egiten du. Ez ditut lotu nahi kimikaria eta hitz gutxikoa izatea, bistan da ez dagoela loturarik, baina, badaezpada, argi gera dadila ez dudala ez kausa-ondorio ez bestelako erlaziorik egiten bataren eta bestearen artean. Halako ba-

tean, ez dut gogoan zeren harira, non esaten duen Purik: «Kimika ez den guztia da politika, lagunok». Eta lagun guztiak geratu ginen isilik.

Nik ez nuen izeko Margarita ezagutzen. Hartaz nekiena amari entzundako txatal batu ezin batzuen multzo lausoa baino ez da. Gutxitan kontatuko zidan hari buruzko ezer, eta beti ere zeharka, adar nagusi baten abartxo gisa gehie-nean ere. Entzungo nion beste inoiz beste norbaitekin izandako solasaldiren baten atalen bat. Edonola ere, gutxi behar da irudiren bat marrazteko, are gutxiago umetan. Niri zetorkidan irudia emakume bakarti eta gogor batena zen. Gozodendako mostradore atzean ikusten nuen, ilea motots batean batuta eta burua tente. Hojal-dreak eta karolinak saltzen. Ez nion haragi gehiegirik ikusten. Izeko Margarita da, hala ere, aitaren senditik gehien ezagutzen dudana. Ezagutzen dudan bakarra, lerro hauek idazteko unean oraindik aurrez aurre izan ez bagara ere.

Ez dakit izeko Margaritarekin hitz egiteak zer baitetan lagun diezadakeen. Ez ezagutzea, horren arrazoia bera esango nuke, ez dut uste oso lagungarria izan daitekeenik. Elkarrengandik hogeita bost kilometrora bizi izan gara azken hogeita hamabi urteotan, eta «kaixo, zure iloba



naiz» esan behar nioke. Edonola ere, berak ere izango du parte bat ez ezagutzean. Egia esan, hasiera batean, haur nintzela, baliteke amaren alde bakarreko erabakiaren ondorioz Margarita ez ezagutzea; baina harrezkero izan du astia, neuk beste asti. Ez dakit zer izan zen euren artean, hau da, gertaera zehatzen batek eragindako apurketaren bat edo betidaniko elkarrekiko giro hotza edo harreman eza. Izeko Margarita-rengandik jaso dezakedana aitari buruzko informazio ugari izango da. Litekeena ere bada, tartean bere desagertzearen gainekoa izatea. Informazioa gora-behera, sasoi bateko beste ikuspegi bat jaso dezaket eta horrek merezi du.

Alabaina, amarengandik gehixeago jakin behar nukeelakoan nago. Eta gainera, amak jakin behar luke izekoarekin egon nahi dudala. Ez dakit ondo hartuko duen; gaizki har dezakeela ez dut zalantzarik, nahiz eta oso argi ez ikusi zergatia. Indiferente ere jar daiteke. Ez dakit. Ondo hartzearena iruditzen zait indar urrienak dituen aukera.

Lehenengo, beraz, amarekin egon behar dut, eta kontatzen didanaren arabera esango diot izeko Margarita ikusteko asmoa dudala, edo hurrengo baterako utziko dut. Esan, izeko Margari-

ta ezagutzeko asmoa dudala esan behar nioke. Horrela adierazita, amak txartzat hartzeko auke-  
rak biderkatuko nituzke; izan ere, ezagutu eza-  
gutu da eta beste maila batean dago ikusirekiko.  
Ezagutu daiteke ikusi gabe, baita ikusi ezagutu  
gabe. Baina ezagutzeak bestearen baitan sar-  
tzea iradokitzen du, eta ikusteak, ordea, bestea-  
ren kanpo aldea dakarkigu, sakonerarik gabe.

Ez dakit noiz, baina izeko Margaritarekin ego-  
teko asmoa dudala esango diot. Honetarako  
arrazoi zehatz bat ere badago. Hain zuzen ere,  
panteoia gezetatarrena izanik, Margaritari zu-  
zendu behar izango zitzaion udala. Edo neuri.  
Burutazio hauek erabili ditut tabernarako bi-  
dean, etxera igo aurretik.

Mostradorean aurkitu dut Agustin, egunkaria  
irakurtzen. Mostradorearen beste aldean hiru gi-  
zonezko daude garagardo banarekin. Eta mahai  
batean lau neska-mutil gazte. Aspaldian ez da  
mugimendu gehiegi tabernetan hamarrak ezke-  
ro.

- Hara, lautadako bakartia -egin dit ongi eto-  
rria Agustinek.

- Atera egidak gin-tonic bat, mesoilari.

Hiru gizonetzkoek alde egin dute Agustinek  
edabea prestatzen zuen bitartean.

- Lau katu eta ez diat bakarria ezagutzen -esan diot begirada batez taberna erreparatu.
- Zahartzen ari haiz, motel. Neskak bertokoa dituk.

Laster alde egin dute mahaiko gazteek ere. Agustin, gehienetan bezala, berrikerarako prest zegoen. Inoiz ez zaio gairik falta, baina batez ere ez zaiona inoiz falta gaietan barna oreinaren pausoz ibiltzea da. Institututik ezagutzen dut, ikasle ginenetik alegia, nahiz eta harremana unibertsitatean egin, fakultate berera jo baikenuen, bera ni baino urtebete lehenago. Egia esan beti ikusi dut lehenago, aurrerago, ziur aski halaxe zebilkidalako. Aurrerago ikasketetan, aurrerago neskatan, nahiz eta lasterrera, emakumeen munduan inkurtsio bakanen batzuk egin ondoren, gizonak hobetsi zituen. Honetan ere aurrerago.

Paperezko poltsa bat ekarri du atzealdeko botilen artean eta aurrean jarri dit.

- Egin ezak bat ederra -eta tabernako atea ixtera joan da, nik poltsatik belarra atera eta zigarro oparo bat egiteari ekin diodala.

Nire lana amaitu orduko ia taberna osoa eskobatuta zeukan Agustinek. Eskaini diot txirria, baina keinu batez neuk pizteko agindu dit. Biri-

kak maria kez bete eta poliki-poliki kanporatu ondoren esan diot:

- Jenero ederra.

- Hiru urte zaramaat merkatu beltzera jo gabe, badakik.

Eguna argitua zen mundua konpontzeko gure ahalegin antzua bertan behera utzi dugunean, eta ez naiz izan gauza ehorzlearena, aitarena, hori guztia, kontatzeko. Esan dut lehen Agustinek gau berritsua zuela. Bada, uste dut ez diodala laurdena baino askoz gehiago jarraitu, denbora guztian aitaren desagerpenarena nola sartu solasean erabili baitut buruan eta honek ez dit utzi behar besteko arreta jartzen Agustinen etorriari, ziurrenik, beti bezala aberasgarria oso. Baina solasean gaia ez badut sartu ez da izan aukerarik ez zegoelako edo Agustinek betarik eman ez didalako. Ez. Ez naizelako ausartu izan da.

Goizeko zazpiak laurden gutxi etxera sartu naizenean. Ordu eta hiru laurden barru klasea 3A-koekin. Azterketa balitz, sikiera. Baina ez. Dutxako egonaldia amaitu eta gosaldtu egin dut. Agustinek emandako belarraz zigarro bat egin eta lerro hauek idatzi ditut. Hogei minutu barru, literatur generoak eta baliabide estilistikoak jo-

rratuko ditugu. Ea greba egiten duten. Ez, ez da pagotxa hori gertatuko. Izeko Margaritari deitu behar diot.

Pasabideak hutsik, seinalea txirrinak aspaldi jo duela. Sartu naiz gelara eta dezepzioa ikusi dut ikasleen aurpegian. Irakaslea bertaratu ez eta ordua patxadan lasai asko emateko esperantza apurtzen zaienean erakusten duten dezepzioa. Klasea amaitutakoan atezainari telefono gida eskatu diot. Gezeta bakarra agertzen da Durangon eta zortea izan dut, eguerdian deitu dudanean izeko Margaritak berak hartu baitit telefonoa.

- Margarita?

- Bai, neu naiz. Nor zara?

Aurkeztu diot neure burua, trakets samar uste dut, sentrazio hori geratu zait behintzat.

- Pozik hartuko zaitut -esan dit.

Larunbaterako jarri dugu hitzordua.

Trenetik nasara jaitsi naizenean haizeak aurpegia kolpatu dit, baita berak zekartzan euri tanta zorrotzek ere. Aterkia zabaltzea alferrekoztat jo dut, nire aurrean irten den neskaren lanak ikusita. Gabardinaren txanoa jantzi eta txartelak egiaztatzen dituen hesirantz egin dut. Ezkurdira iritsi naizenerako blai eginda neukan aurrealde

osoa. Taberna batean sartu naiz, ez diot-eta egoki iritzi izekoarengana horrela aurkeztea. Mostradoreko neskari kafesne bat eskatu eta komunean sartu naiz, eskerrak eskuak sikatzeko haizea zabaltzen duen gailu horietako bat zeukan, honekin alkandora, nire alkandorarik onena dena esatera, lehortu baitut. Gauza bera egin dut prakekin ere, emaitza kaxkarragoa izan den arren. Kafesnea hartzeko, kafesne hotza ordurako, leiho ondoko mahaian jesarri naiz Andra Mari elizpera begira. Bostak jotzeko zirela ohartu naitzenean irten naiz, izeko Margaritaren etxeraino minutu eskas behar bainuen. Txirrina jo dudanean bostak direla jakinarazi diete kanpaiek durangarrei.

Atea ireki didan emakumeak ez dauka ilea motots batean bildua. Irribarre zabalez eskua luzatu dit, ez dakit hurbiltasun edo urruntasun keinu gisa. «Sartu, sartu». Pasilloa eskuman utzita igaro gara egongelara eta jesartzeko gonbitea egin dit.

- Kafea, garagardoa, ardoa, kopatxoren bat?
- Garagardoa -aukeratu dut.

Heineken batekin itzuli da, sukaldetik edo. Pauso arina dauka.

- Zenbat denbora... eta, horrela, bat-batean hemen zaitut aurrean.

Hau guztia eseri baino lehen esan du. Sofaren ertz batean pausatu eta bekokirantz dator-kion urrezko ile mataza fina belarri osterantz eraman du bi hatz luzeenekin. Emakume hau ez dut uste gizonik gabe geratuko zenik, berak hala nahita izan ez bazen bederen, pentsatu dut. Litekeena da, ordea, emakumeak izatea gustuko. Ez dakit, egia esan, nola gauzatu dudan irudi hori, emakume zimel eta zitalarena. Problema, ziurrenik, neurea izango da. Memoria estutu arren, hala ere, ez diot senar arrastorik aurkitu, aldeztatik aurretik aitortuta ez dakidala ia ezer berari buruz. Hirurogeitik gora banitu, emakume desiragarriena irudituko litzaidakeela pentsatu dut; agian, baita berrogeita hamabostekin ere, nahiz eta inoiz ez naizen ni baino nagusiagoen zale izan. Adinak, ordea, gustuen espektroa zabaldu egiten du etengabe.

Sofa ertzean, belaunak ukitzean, kafean isurritako azukrea nahasteari ekin dio, tarteka begirada adeitsuak zuzenduz neuri. Ilunak ditu begiak. Isilik egon garen denboran, prestatuta neukanari errepasso bat egin diot, ez bainuen asma-tzen nola hasi. Aitari buruz galdera orokor ba-

tzuk eginez hasteko asmoa eraman dut, nolakoa zen, umetako kontuak, zer egin zuen gu utzi eta gero. Baina ezin izan dut bide horretatik mihia askatu, beharbada ez zaidalako oso sinesgarria egin, edo batek daki zergatik. Geroago, bueltako trenean lehenengo eta baita orain ere, lerro hauek idaztean, ohartu naiz beste zerbait izan dela aurrez prestatutako ildoak jorratzea eragotzi didana. Nekiena kontatu aurretik bera mintzaraztea, hala esan badaiteke, joko zikintzat har zezakeela alegia. Nik neuk hala hartuko bainuen.

Horrenbestez, hasiera-hasieratik kontatu diot dena: ehorzlearen deia eta honek esandakoa. Prologo gisa galdetu diot ea Mahatserriko hilerriko obren berri ematen dion jakinarazpenik jaso duen. Ezetz. Kontakizuna entzuten hasi orduko eraman du eskua ahora, hatz puntak zehatzago esateko. Zurbildu ere egin da. Eta isilik geratu da amaitu dudanean, atzamar puntak ahotik kendu gabe.

- Hitz egingo zenuen honetaz guztiaz zure amarekin -esan dit halako batean, kostata ateratako hitzez, kostata hots bakoitza, arnasa hartu eta mintzatu batera ezin eramanak balira bezala.



Bai, esan nahi nion, baina zurbiltzen ari zenez, ez dut abagunea aurkitu. Une horretan konturatu naiz ez diodala amari izeko Margarita-ekin egoteko nuen asmoaren berri eman. Barkatu nire baldarkeria ere esateko izan naiz, baina nire erabakiari aurrea hartu dio eta, nekez zutitu ondoren, esan dit:

- Nahiago dut beste egun batean hitz egitea honen gainean. Orain ez nago lar ondo.

Orduan bai, atean eta irten aurretik esan diot:

- Barkatu nire baldarkeria gauzak esaterakotan.

- Ez da hori, zaude lasai. Hitz egingo dugu. Deitu egidazu gura duzunean -eta atea zabaldu dit.

Atertu ez ezik urdin gune batzuek ere alaitzen zuten zerua. Alai ziren Andra Mari elizpe inguruak ere. Denbora nuenez, trago bat hartzea erabaki dut eta Goienkalera abiatu naiz, han badago-eta non aukeratu. Ron txupito bat eskatu dut, inguruan gazteak nituela larunbatari hasiera ematen. Neska gutxi. Batzuk, mutil batzuk alegia, oraindik karta jokoan, bazkal ostea amaitu ezinean. Zaharrena ez banintzen ere, bakarka zegoen bakarra nintzen. Adinaren kontuak. Ez

oso aspaldi konturatu nintzen, azken boladan behin baino gehiagotan aritu naizela bakarrik tragoa hartzen mostradore batean. Burutazio honek ez nau poztu. Ronak barrenak alaitu dizkit eta mostradorean lanean dabilen bakarrak, nire ikasleetako bat izan zitekeena itxurari erreparatuz gero, David Bowieren *Ziggy Stardust* jarri du. Disko hori sarri baino gehiagotan entzuten zen garaietan mostradoreko nesken adina izango nuela ohartzerakoan irriño bat ezpainetaratu zaidalakoan nago, doi-doi mostradoreko neska musika aparailuari bizkar eman eta jiratzekoan bere begi beltzak nireetan jarri dituenen. Gustura nituen begiak neska harenetan, nahiz eta lehen segundoetan, bi edo hiru, neska ez duen ezer adierazi, taberna erdian dagoen posteari begira balego legez, baina hirugarren edo laugarren segundoan irriño bat egin du berak ere, bezeroari adeitasunez egin ahal zaiona, neurritik urrutiratu gabe, baina atzean neukan posteari egingo ez ziona bederen. Goienkalen gora egin dut trena hartzeko bat ere presarik gabe, gelto-  
kia beste alderantz baitago, bigarren txupito bat hartzeko asmoz.

Izeko Margaritari egindako bisitatik ezer gutxi atera dudala begitandu zait. Laster kontu-

ratu naiz, ordea, asko dela, izan ere ezagutu ere ez egitetik, edo, hobeto esanda, nolabait osatua neukan iruditik, beste irudi bat osatzera iragan naiz, arras ezberdina, aurrez aurre nuela osatua. Dakidana, aitaren desagertzeaz dakidana ere kontatu diot eta ikusi dut nola pausatu dituen atzamar puntak ahoan. Ez dit ezer esan, aitaren desagertzea argitu lezakeen ezer, baina «deitu egidazu gura duzunean» harekin agurtu nau, etxeko atea ez ezik beste bat ere zabalik utziz. Pozik egoteko modukoa iritzi diot.

# Bata eta bestea

Izeko Margaritarekin egon eta berriro amarengana joan orduko pasatuko ziren pare bat aste, oso ziur ez nagoen arren. Ondo gogoan dudana da tarte horretan Aitorrekin izan nuen elkarrizketa bat. Lankidea dut Aitor, Teknologia irakasten saiatzen da DBHko ikasle talde xeble batzuei gure institutuan. Eta saiatu diot, saiatzen den horietakoa delako, ez baita kaosa kudeatzearekin konformatzen. Talde berberetan ematen ditugu klaseak eta, horrenbestez, hainbat bilera izaten dugu elkarrekin. Alabaina, horrek baino gehiago hurbildu gaitu antzeko zaletasunak izateak literatur kontuetan. Hona iritsita uste dut merezi duela elkarren literatur zaletasunen berri nola jakin genuen kontaktzea, izan ere, gerta daiteke, ziur naiz hala izaten dela sarritan, elkarren ondoan ibili, elkarren ondoan lan egin eta, hala ere, ezer ez jakitea batak bestearen berri. Erretzaileen gelan geunden, narkogelan, eta bakkarririk geratu ginen, uste dut Matiasek alde egindakoan izan zela. Aitor ez zen erretzailea, edo izatekotan esporadikoa zen, baina narkogelan ema-

ten zituen klaserik gabeko orduak, giroagatik bere esanetan. Gure ikasleei buruz ari ginen, betiko antzean, txutxumutxuak partekatzen ziurrenik, ez baitut ezer zehatzik gogoan, honen antzeko zerbait galdetu zidan arte:

- Nola zara gauza literaturaz jarduteko gure dizipuluekin?

Askotan erabiltzen zuen dizipulu hitza gure ikasleak izendatzeko. Ezingo nuke azaldu zein zen haren ahoan hitz horrek hartzen zuen esanahia, baina beti begitandu zait errespetuz darabilela, ezti puntu batez ere bai agian.

- Literatura zeharka baino ez dugu jorratzen, oso zeharka.

Berak ez zidan xehetasun gehiago eskatu, baina erantzun hartan pixka bat sakontzea egokitzen zitzaidala pentsatu nuen, ordurako Aitorrekin nuen harremanak zertxobait gehiago eskatzen baitzuen.

- Astebete baino ez nintzen joan eskolak ematera testu liburuarekin, baina astearen erdia sobera izan nuen konturatzeko liburu hark ez zuela zer eginik talde haietan. Harrezkero nire curriculumak *Badakit* kutxa bat da, *Argia* astekariak ateratako trivial autoktono bat.

Halaxe zen. Ikasturte osoa neraman bigarren mailako bi taldetan trivial jokoan. Ikasturteko lehenbiziko egunean inork ere ez zuen liburua ekarri, ez liburua ez ezer. Hirugarren egunean erdiek edo ekarri zuten eta liburuaren aurrean binaka jartzeko aukera izan nuen. Binaka jartzearena osoki da egia, ez, ordea, liburuarena; esan nahi baita ez ziotela jaramonik egiten liburuari, ez bazen ilustrazioren baten gainean iruzkin kuriosoak egiteko bederen. Ez nintzen gauza kaos hartan ordena izpi ñimiño bat pizteko. Ikasle batek esan zuen arte:

- Zergatik ez dugu joko bat egiten, zerbaite-tan jokatu...

Ez dago esanenik, ikasle hori, Egoitz, dene-tan integratzaileena zela disolbatzaile koadrila hartan, eta bazuen nire inbidia pizten zuen do-hain bat: gainerakoek entzun egiten ziotela, jar-duna gehiegi luzatzen ez bazuen behintzat, eta ez zen horietakoa.

- Ba, joka dezagun. Bihar bertan hasiko gara.

Trivial kutxarekin joan nintzaien hurrengo egunean. Lehenengoz lortu nuen entzuna izatea. Den-denek ez zidaten jaramon egiten, baina gutxi-eneko isiltasuna erdietsi nuen jokoaren arauak azaltzeko. Lau laguneko bost talde osatu

genituen. Bakoitzak bozeramaile bat izango zuen, saioz saio txandatuko zena taldekideen artean, eta horrek bakarrik hitz egingo zuen taldearen izenean. Epaile lanak neuk egiten nituen. Mintza praktika, euskaraz egitea baitzen lehen araua, elkarrizketa eta negoziazioa lantzea, elkarlanean trebatzea, ahozko argudioak eta azalpen testuak jorratzea, gisa honetako arrazoi pedagogikoak nerabiltzan nire curriculum hura justifikatzeko; egia esan, neure buruari errepikatzen nizkion arrazoiok, beste inork ez zidan-eta azalpenik eskatzen. Talde bakoitzaren lehenbiziko lana taldeari berari deitura jartzea izan zen. Nik uste baino eztabaida eta iskanbila gutxiago sortu zituen zeregin honek. Eta emaitzak ez baziren izan, oro har, nire gustukoak, are gutxiago institutuko agintarienak, hala deitzen baitzieten Aitorrek zuzendaritzakoei. Azpimarratzekoa da hiztegiara jo zuela talde batek baino gehiagok bere nahiekin bat zetorren izena asmatzeko. Ez dut uste talde haiekin zebiltzan irakasle askok esan zezaketenik ikasle haiek hiztegieta era man zituztela, are gutxiago ikasleak eurak joan zirela euren kabuz. *Pollitak gara, Popatik, Krisos txapeldun* dira orain gogoratzen ditudan deiturak.

Aitor altxatu egin zen sofatik, lau lagun nasai samar har gintzakeen sofa eder bat genuen irakasle gelan eta bere apalerantz joan zen. Fotokopia batzuekin itzuli eta eman egin zizkidan.

- Hi hitzaurreak irakurtzen dutenetakoa haiz?

- Ez beti.

- Honek merezi dik. Esango didak.

Fotokopiek «Klariona eta beruna» zuten izenburua, iradokitzailea iruditu zitzaidana. *Apologia* nobelaren hitzaurrea zen. Irakaskuntzaren erreformei errepaso ederra ematen zitzaion, denak errenditu arte, lehen hitzetik hasita, hausnarke eta pasadizo bitxiez zipriztinduta, umore garratza zeriola hitzen kate hari. Baina ez zen hori izan nire arreta gehien atrapatu zuena, kate hartan kontatzen zuen istorio batek baino. Honexek: institutu batean irakasle batek «ikasle mardul bati beste ikasgaietako etsaminak ematen zizkion, auskalo zeren truke». Harrapatu zuten arte, irakaslea harrapatu zuten arte. Zigor Bazordeko gehiengoak espedientea ireki nahi izan zion, baina irakasleak bere defentsan bidalitako «izkribua edo apologia hain zen bihurria eta xarmanta», ezikusiarrena egin zuten. Begiak papere-tatik aldendu eta burua altxatu nuenean, zain neukan Aitor begirada bihurri batekin.



- Zer?

- Ikasle mardulari etsaminak pasatzen zizkion irakaslearen pasadizoa azpimarratuko nikek.

- Azpimarratu? Zer demontre duk hori?

- Polita dela istorioa, are gehiago non eta nork kontatuari erreparatuz gero.

- Baina, zer duk polita istorio horretan?

- Irakaslearen jokabidea, bai etsaminak ikasleari pasatzea, pentsa dezagun arrazoi zuzen batek bultzatuta, eta baita ere Zigor Batzordeari izkribua bidaltzea, nahiz eta ez jakin zer zioen defentsarako izkribuak.

- Horretan bat natorrek hirekin.

Bat egin zuten ere, une horretan, literaturak eta geure lanak. Harrezkero Aitorrek eta biok arrunt erabiltzen ditugu letra kontuak, gune horretan egin dugu topo, eta beste gune batzuetara jauzi egiteko aukerak irekitzen dizkigu. Baina horrek zerbaitetarako balio badu, solaserako da. Bestelako kontuetan, askotan behintzat, denbora behar duten horietan ez dugu gune askorik partekatzen. Aitorrek asteak pasa ditzake taberna batera sartu gabe eta nik urteak kirolak egin gabe. Badira hitzak berak milaka aldiz darabiltzanak eta neronek inoiz ere ez, entzun egiten

ditudan arren ez dute nire ahoa bete eta, batez ere ez ditut, ezin ditut, irudi zehatz batekin, usain batekin edo haize batekin lotu. Aneto Balaious kranpoiak pinoiak kulota aurrelaria. Gauza bera gertatuko zaio berari nik darabildan hitz ugarirekin. Edo ez.

Arestian esan bezala, izeko Margaritarekin izan ostean eta berriro amarekin egon baino lehen, Aitorrekin izandako solasaldi bat dut gogoan. Institututik elkarrekin irten eta oinez abiatu ginen, bagenuen ordu laurdeneko bidea elkarrekin egiteko modua, solasak pausoa moteldu ahala nasai luza zitekeena ordu erdi edo ordubeteraino ere.

- Bihotzekoak jota hil egin haiz. Biharamunean erizain-funtzionario gris batek esaten dik literatura unibertsaleko pertsonaia bat aukeratu behar duala, bere baitan bizitzeko eternitate osoan. Zein aukeratuko huke?

- Ez zakiat. Ezinezkoa egiten zaidak pertsonaia zoriontsu bakar bat gogoratzea. Beharbada kanta bat aukeratuko diat, bai, hobe kanta baten barruan bizitzea eternitate osoa, nahiz eta jakin hegazkin batetik paraxuta bizkarrean jauzaraziko nautela bozgorailuek nik aukeratutako kanta

esatean. Paraxutean... baina eskuburdinez loturik.

- A! Kabroia! Baina, iruditzen zaidak hik ez duala *Camarillo brillo* aukeratuko!

- Ez zakiat zergatik dioan hori. Jakin ezak entzuna diodala Frank Zappari berari La Casillan. Baina, bale, arrazoi duk, ziurrenik beste bat aukeratuko nitek. Izan ere, Harkaitz Canoren narrazioagatik ez balitz, hire galderari erantzutera-koan ez zitzaidakean burutik ere pasako abesti hori.

- Eta Canoren narrazioagatik ez balitz, nik ez nian galdera hori egingo.

Banatu ginenean, bakoitza bere etxerantz, bat-batean etorri zitzaidan burura aitak, beharbada, desagertu eta kanta baten baitan bizitzeko hautua egin zuela. Edo, agian, literatura unibertsaleko pertsonaia baten baitan. Biharamunean esnatzerakoan ere horixe izan zen burura etorri zitzaidan aurreneko gauza, alegia, aitak kanta batean bizitzea erabakitzearen ondorioa zitekeela bere desagerpena. Izan ere, gauean loa hartu ezinik egon nintzen nire baitan sortu berria zen zalantzari bueltak ematen. Ea aita kantu bateko edo literatura unibertsaleko pertsonaia bat bilakatu ote zen. Ez nekien deus ai-

taren gainean, beraz zaila pertsonaia aukeratzeko; kantua, bestalde, edonorentzako hautu egokia zela erabaki nuen. Gregor Samsa ere kantu bilakatu izan balitz, horretarako aukera izan balu, bere gela hartatik libre irteteko bidea izango zuen. Baina ez da norberak aukeratzeko duena, pentsatu nuen goizean.

Dutxaren beroan, ehorzlearen deiak abian jarritakoa norbaiti kontatu behar niola nerabilen buruan. Beste ikuspuntu batek lagundu egingo zidala pentsatu nuen, trama kanpotik ikus zezakeen norbaiti, teatroa eszenatik kanpo beha zezakeen norbaiti. Ez nuen antzerki zuzendari bat behar, bai, ordea, ikusle bat, ikusle kritiko bat. Ehorzlearekin partekatzen nituen ordura arte aitaren desagerpenaren gorabeherak, baina ez nik hala aukeratu nuelako, ehorzleak berak taulara bultzatu ninduelako baizik. Ondo pentsatuta, ehorzlea izan zen trama abian jarri zuena. Gainera ezagutu berria nuen eta eszenaren erdi-erdian zebilen. Beste norbait behar nuen. Dutxatik irten nintzenean, lurrinaren lurrinaz, ezin zen ispilua ere ikusi. Atsegin dut lurrina. Poliki-poliki, gorputzari jaramon egin ahala, ahaztu egin nuen norbaiti kontatu behar diren kontua.

Aitor tipo egokia iruditu zitzaidan, diskrezioari begira bederen. Inoren gainean hitz egiteko zuen erak iradokitzen zidan hori. Literaturara oso emana izanik, ordea, ez nuen aurreikusten inolako bermerik bere hausnarketek toki zuzenera eramán gintzan. Irudikatzen nuen istorioa eta pertsonaiak literatur pertsonaiekin eta istorioarekin alderatzen, aitaren desagerpena literaturara eramaten, gure jokabideak hobeto ulertzeko balio zezakeena, baina ez, agian, gertaera zehatzak argitara azaltzeko. Nolanahi dela, bazuen oinarritzko arrazoi bat bere alde, hau da, neure burua ikusten nuela Aitorrengana holako kontu batekin joaten. Ezaugarri hori partekatzen zuten lagun gutxi ziren. Agustín, beharbada; tabernaria izaki, entzule ona, eta arrazoi berberagatik diskrezioaren balioaz inor baino hobeto jabetua. Aitor baino analitikoagoa zalantzarik gabe.

Denboraz beti bezain justu ibili arren lanera iristeko, Markitosenean sartu nintzen, goizetan oso gutxitan egiten nuena.

# Izotzez betea

Ehorzlearen etxea benetan zen etxea. Ez zeukan -gehienok daukagun bezala- pisu ziztrin bat. Inguruan bazituen beste dozena bat etxe, zertxobait handiagoak, bi familientzat pentsatuak. Baina nabarmentzen zuena ez zen besteak baino zertxobait txikiagoa izatea, ezberdina zela baik. Izan ere, gainontzekoak -bi errenkadatan ordenatuak- 40ko hamarkadan fabrika handi bateko goi eta erdi mailako enplegatuentzat eraikiak baitziren, denak berdin-berdinak. Mutikotan inguru haietan ere sarri ibiltzen ginen, okaranak osten batzuetan, ezkutaketan besteetan.

Ehorzleak eta biok bertan hitzordua egin genuen aurreneko aldian paseo bat eman nuen inguruetan. Aspaldian ikusi gabeko norberaren zati bati begiratzeko zaion aldarteaz nindoan, pauso motelez, hara eta hona so. Enplegatuen etxeek patu ezberdinak izan zituztela bistakoa zen. Zaharberrituta zeuden batzuk; besteak hai-zeek, euriek eta kutsadurak erakutsi zieten begirunearen eta bizilagunen txukuntasunaren lekuko ziren. Ehorzlearena lehen lerroko ertz batean

dago. Duin ikusten da, tente. Harlandua goiko leihoetan baino ez duen arren, gainontzeko harria, gorrixka, artez aukeratua eta jarria dela ezin ukatu. Maskal samar goiko leihoen markoak ditu, eskertuko lukete pintura bainu bat, edo, agian, berriak jartzea. Beheko solairua eta beste bi gehiago ditu, ganbara eran azkenekoa, bi isuriko teilapean. Beheko sarreraz gain badu beste bat lehen solairuko hegal batean, hormari itsatsitako eskailera batez lurrari lotua. Eta horregatik guztiagatik diot, ehorzlearen etxea benetan zela etxea eta ez pisu ziztrin bat.

Espaloitik atera bitartean belar gunetxo bat dauka, hiriko txakurren txiza-leku itxurakoa. Hesitxo bat dute ilarako etxe gehienek -jabegoa irudikatzeko ere doi-doi har daitekeen horietakoa-, belauna asko altxa gabe igarotzeko modukoa. Jabegoak jabego, egingo nuke hesitxo haiek pozarren erakartzen dituztela hiriko txakurrak euren barrenak husteko tenorean. Beheko atea ala goikoa jo behar nuen erabakitzeko tartetxo bat behar izan nuen. Azkenean behekoa abiatu nintzen, itxiago begitandu baitzitzaidan goikoa. Berriak dira beheko leihoak, zarata eta hotzetik babes gaitzaketen horietakoak; atea, ordea, antzinakoa da, sendoa, gaztainondoa beharbada.

Harriak bezain zaharra izan daiteke eta harriek beste babes ematen du. Babes beroagoa.

Txirrina jo eta berehala nuen ehorzlea aurrean, sartzeko keinua egiten. Oina sartu orduko gela zabal batean geunden, halabeharrez zabala hango gauza guztiak biltzeko. Eta hala eta guztiz ere txukuntasuna galdu gabe eta garbi ikusten zen ingurua. Eskuman mahai handi bat dago leiho zabal baten ondoan, erdia inguru paperez gainezka. Beste erdia jateko erabiliko zuen. Ezkerreko pareta ez da ikusten -erdian duen leihoa, bestea baino txikiagoa, izan ezik-, apalez betea baitzegoen eta apalak liburuz eta antzeko- ez. Nire lehen bulkada liburuak ikustera joatekoa izan zen, baina ez nuen hala egin eta gela erdian dagoen sofa chaise longue handian jesarri nintzen ehorzlearen gonbitari jaramon eginez.

- Etxe ederra duzu gero.

- Bai, zorte handia izan nian.

Lehen bisita hartan aitaren desagertzeari buruz baino ez ginen mintzatu, horretarako jarri baitzidan hitzordua bere etxean.

- Hona deitu bahaut, lasaiago hitz egiteko leku aproposagoa delako duk. Eta hiri esateko zerbait badaukadalako ere bai.



Sofan jesarrita nengoen ni eta bera oraindik zutik, jesarri baino lehen egitekoren bat balu bezala.

- Zer hartuko duk? Garagardoa, whiskia, beste zer edo zer?

Larunbat arratsaldea zenez ni gosariarekin nengoen, eguerdiko ordu bietan egiten den gosari horietakoa, inolaz ere ezin dena ganorazko bazkari batekin alderatu.

- Garagardoa, mesedez. Nik ere badaukat zuri kontatzeko zer bait.

Edarien bila joan zenean berriro egin nuen liburutegira jotzeko imintzioa, ezdeusa; gurutzatuta nituen zangoak askatu eta bizkarra zuzendu nuen, baina hor amaitu zen guztia, ez bainion egoki iritzi inoren etxera heldu orduko bere liburutegian kuxkuxean hastea. Berehala neuzkan berriro bizkarra besaulkiaren bizkarrean eta hankak gurutzatuta. Edozein modutan inoren liburutegia begiratzeak ez du ezer txarrik, are gutxiago nabarmen bistan jarrita dagoenean. Ez da logelako altzarien kaxetan eskua sartzea bezalakoa, nahiz eta liburuen artean eskua sartzea bestearen intimitatean gehiago barneratzea den, ene ustez. Azpil bat eskuetan itzuli zen, gainean, garagardoa, gazta eta ogia zekartzala.

Sofa aurrean zegoen mahai baxuan paratu zuen erretilua eta besaulkietako batean jesarri zen, whisky baso bat eskuan zuela. Keinu bat egin zidan azpila seinalatuz, ekin niezaion. Erronkari-ko gaztarekin hasi nintzen, ehorzleak puru bat pizten zuen bitartean.

- Hilerrian hitz egin genuenean zer egin erabakitzeko geratu hintzen. Hire aitaren misterio hau argitzen ahalegindu edo ez, alegia.

- Misterioan barneratzea eta -garagardoa botila muturretik edanez- argiren bat bilatzea erabaki dut.

Esaldia horrela ezin nuela bukatutzat eman otu zitzaidanez, ordura artekoak kontatzen hasi nintzaion:

- Aitaren desagertzea argitzea interesatzen zait, bai -halaxe esan nion: interesatzen zait-. Mintzatu naiz amarekin, nahiz eta momentuz ez dudan gauza handirik jakin, bananduta baitzeuden aita *hil* zenerako.

- Bide ona hartu duala ematen dik.

Gure buruen gainean zebilen puruaren kea, olatu ez ziren olatu motelenen antzean. Usainak ez bezala, keak ez zuen behera egiten, gure buruen txapela zirudien (sabai goxo bat). Pentsatu nuen zutitzea ere, ea goitik begiratuta behe

laino trinkoa zirudien, mendi tontorretik so bailara estaltzen duen modukoa. Ehorzlea ere lainoari begira zegoen, purua hatz artean biraka.

- Badiat susmoa hire aitaren hilkutxan sartu zutenaz.

Sakon egin zion tira puruari, burua gori-gori jartzeraino. Keak bere denbora hartu zuen biriketatik bueltan kanpora irten arte. Itxaron egin nuen (ezer esan gabe), eta uste dut ez nuela harridurarik agertu, jarraituko zuen-eta egoki irizitakoan. Presarik ez nuela esan ordez, mahai gainean zegoen Habanos paketetik zigarro bat hartu nuen eta, su pindar batez isioturik, lainoa areagotzeari ekin nion neuk ere.

Iritzi zion, bada, jarraitzeko unea zela:

- Edozein modutan, susmoa baino ez duk. Eta, gainera, baieztatuz gero ere ez likek lagunduko hire aitaren desagerpena argitzeko; hire aitak zergatik eta nora alde egin zuen argitzeko, esan nahi diat. Holakorik ez duk asko argituko. Gehienez ere hipotesiren batzuk baztertzeko balioko likek, zeharkako xehetasunak betiere.

Niregan, ordea, beste susmo bat hasi zen gorpuzten. Tipo honek zertxobait baino gehiago jakin zezakek afera honetaz eta, dosiak neurtuz, nire eskuetan jarriko dik informazioa nik neronen

aurkikuntzat hartuko nituzkeenak. Horixe pentsatu nuen, nahiz eta berehala ohartu ez nuela arrastorik ere jarrera horren balizko arrazoiez.

Zigarroa amaitu nuen arte ez genuen solasik egin, eta hala ere tarte hori ez zitzaidan ez luzea ez deserosoa suertatu. Ehorzlea ere lasai asko zegoen puruari tira eta lainoari begira.

- Aspaldikoa duzu susmo hori? -galdetu nion-. Esan nahi dut, kanposantuan elkartu ginean bazenuen ala ondoren etorri zaizu? -eta nire baitako susmo erne berria argi utzi.

- Duela gutxi osatu zaidak susmoa. Eta ez ezak pentsa nik honetaz ezer dakidala eta hiri ezkututzen ari natzaiala. Hiri laguntzeko prest nagok, baina hireak dituk erabakia eta ekimena, hiregandik atera behar ditek. Niretzat hau guztia, errespetu osoz esanda, denbora pasa kitzikagarri bat duk. Denbora asko zaukaat, hori duk oraintxe soberan daukadan bakarra.

- Jarrai dezagun, bada, zure susmoarekin.

- Ederto. Hire aitaren desagertzea egin zen bezala egiteko, derrigorrez izan behar zitian laguntzaile batzuk...

- Medikuren batek ziurtatuko zuen heriotza, epaileren batek ere bai beharbada, eta logistika-ko beste kontu batzuetarako ere bai norbait.

- Edonola ere, zerrenda ez zuan luzeegia izango. Nik behintzat ez diat imajinatzen andariak tartean ibil zitezkeenik.

- Ados. Andariak kutxa betea eraman zuten.

- Bai, baina... izotzez betea.

Irribarrez eta whiskiaren izotzekin klink eginenez eragin zion basoari. Ez zen irabazle irribarrea, hori ordinariora litzateke. Konplizea zen, umoretsua, bere sudur zapalak edertzen zuena.

Aita ordezkatu zuen izotzaren inguruko azalpenak eman zion amaiera ehorzlearen etxera egin nuen lehen bisita hari. Hasieratik erreparatu omen zion kutxaren barruko oihalari, geratzen ziren bere zati maskalduerik, alegia. Baina horrek bakarrik ez zuen oso urrun eraman, ondorioren batera ezin eraman zuen konstatazio huts batera baino ez. Hilkutxaren beheko aldekoek (oinen aldekoek) beste kolore bat zuten, ilunago eta maiztuago zeuden. Hori ikusita, kutxaren buru eta oinen alderdiek zuten beste ezberdintasunen bat bilatzea eta aurrekoarekin lotzea zen zego-kiona, ehorzlearen burutazioen arabera. Eta baita aurkitu ere. Hilkutxaren posizioa ez zen

erabat laua, izan ere azpian zuen harritzarraren goiko aldea aldapatsua zen doi-doi eta, jakina, burua jartzen zen goian eta oinak behean.

Kontaktaren une honetan, ehorzleak purua berpizteari ekin zion. Konstatazio horietatik izotzaren teoriara tarte zabal samarra zegoela begitandu zitzaidan, eta halaxe jakinarazi nion, beharbada bere berpizte ariketak luzatzen ari zirela iritzita, beharbada ez.

- Izotzaren susmoa kasualitatez etorri zitzaidan -aitortu zidan.

Hilkutxaren barrua eta bere inklinazioa aztertu zituen egun berean film bat ikusi omen zuen telebistan -B saileko deritzon horietakoa, zoragarria bere hitzetan-, eta bertan izotza. Atlantako gizon aberats bat omen zen protagonista, urteetan oso aurrera egina baina, bere seme-alaben atsekaberako, ez zuena hiltzeko itxura handirik. Are gehiago, bere zazpi seme-alabetatik hiru hilak ziren. Honek eta bere oinordekoen begiek adierazten omen zioten haien pazientzia agortzen ari zela. Hau da: zaharrak ez bazuen hil nahi, lagundu egin beharko zitzaion. Filmaren onena, ehorzlearen esanetan betiere, muga horren lausoa omen zen, ez zenekiela zaharraren paranoia ala seme-alaben benetakoa asmoa zen.

Bietatik izan zitekeen. Beraz, heriotza prestatu zuen zaharrak. Deitura berri bat sortu, Sardinian etxalde bat erosi, dirurik gehienak izen asmatu berriaren kontuetan jarri Zuricheko banku batean eta gainontzeko jabegoak creek herriko emakume batentzat utzi zituen. Filmak asko argitzen ez duen arren, pentsatu behar omen da emakume hau noizbait maitale izan zuela zaharrak. Injekzio batez katalepsiak jota eta seme-alabak ikusi nahi zuten moduan utzi zuen zaharra sendagile adiskide batek. Hilketxa azkenekoz itxi zutenean, ordea, zaharraren lekuan izotz bloke bat zegoen.

Honenbestez, ehorzleak bazeukan behar zuen ondorio bat, posiblea bederen. Une egokian agertutako hipotesi sendoa.

- Hitz egingo diagu kasualitateari buruz beste egun batean -esan zidan-. Baina hik ere bahuen kontatze korik, gaizki ulertu ez badiat.

Izeko Margaritari eginiko bisitaren berri eman nion:

- Aitaren arreba bakarra da Margarita, Durangoko gozodenda batean lan egin zuena urte mordo batez. Trenez joan nintzaion bisitan, gaur zortzi, arratsaldean.

Eta ehorzleak eta biok genekiena izeko Margaritari jakinarazi nionean, atzamar puntak ahora nola eraman zituen aipatu nion ehorzleari. Baina hark ez zuen Margarita ezagutzen eta ez zuen haren berri bazuenik erakutsi.

- Hator nahi duanean, hitz egin behar diagu-eta kasualitateari buruz.



# Ehorzlearen liburutegia

Institutuko bedela etorri zitzaidan telefono dei bat nuela esatera. Ehorzlea zen: sentitzen zuela baina arratsalde hartan ezingo ginela elkartu, hitzordua jarrita genuen arren; biharamunerako zeukan beste hitzordu bat ezinbestez aurreratu behar izan zuela arratsalde hartara. Ez ziola axola ihardetsi nion, jar zezala beste egun bat.

Hurrengo astean joan nintzaion etxera. Bista-koa zen gure hitzorduetarako bere etxea zuela atseginen. Aurreko astekoa bertan behera utzi beharraren arrazoiak azaltzeari ekin zion, niri bati ere axola ez zitzaizkidanak. Ehorzleak biharamunerako zuen hitzordua aurreratu behar izan zuen, berarekin gelditutakoek, arrazoi sakonak tarteko, hala erregutu ziotelako eta, zalantza artean izan bazen ere, beste elkarrizketa hura lehenetsi zuelako. Izan ere, elkarrizketa bat zegoen tartean, geriatrikoko aldizkariko zuzendariak eta bere ondokoak ehorzleari egin behar zioten elkarrizketa *Goizaldeko Pixontzia* aldizkarirako.

- Ezagutu behar hituzke zahar horiek. Eurokin ikasi baino ezin duk egin.

- Atseginez irakurriko dut elkarrizketa.

- Bego, baina aurretik aldizkariak zertxobait jakiteak ez dik kalterik egingo. Zuzendariak eta bere ondokoak sortu zitean *Goizaldeko Pixontzia* duela pare bat urte. Sei zenbaki argitaratu ditiztek. Zazpigarrenean plazaratuko ditek nirekin egindako elkarrizketa. Aldizkaria argitaratzearen ideia ondokoarena izan behar dik, hark esan baitzidan geriatriko horretara iritsi aurretik urte batzuk eman zituela Arrasateko psikiatrikoan eta bertan argitaratzen zuten aldizkarian, *Globo Rojo*, parte hartu zuela.

Banuen horren berri, ez esku artean izan nuelako, Leopoldo Maria Panerorekin egindako elkarrizketaren batean *Globo Rojo* horri aipamena egiten zitzaiolako baizik.

Ehorzleak geriatrikoko testuen testuingurua azaltzen jarraitu zuen. Ez zen oraindik geriatrikotik kanpo zabaltzen, era sistematizatuan behintzat, nahiz eta bere aipamenak behin baino gehiagotan agertu prentsan, gehienetan gizarte orrietan, baita inoiz literatur orrietan. Ehorzlearen esanetan, zuzendariak eta ondokoak geriatrikoko agintaritzarekiko arma bezala ere erabiltzen omen zuten aldizkaria; esan nahi baita, horretatik kanpo gizarteak beren berri izan eta,

aldi berean, barruan baino ez zabaltzearen arteko dialektikak eremu zabala eskaintzen ziela zuzendariari eta ondokoari geriatrikoko agintarieki-ko harremanetan indarra egiteko.

- Zahar borrokalariak, alajaina! -atera zitzaidan oharkabean.

Nik ordurako banekien urteekin edonork ikasten duen hori, zaharrengandik beti dagoela zer ikasi.

- Borrokalariak bai -berretsi zuen ehorzleaketa ez borrokalari ohiak. Ez zakiat hau kontatu behar nukeen, aldizkariaren testuingurua azaltzearen mugetatik kanpo baitago, baina horioak: zuzendaria Felisa Jainaga duk, berrogeita hiru urtez klausurako moja izana karmeldar oinutsen ordenan, orain dela hamarren bat urte munduratua. Azkeneko urte biak geriatrikoan zaramatzak. Klausura utzitakoan Mahatserrira etorri zuan, hasieran beste bi moja ohirekin pisu batean eta gero bera bakarrik, orain dela pare bat urte Sonwagner sindromea diagnostikatu zioten arte. Burmuinean jazotzen diren haustura ñimiño batzuegatik, luizi nanoak bailiran, hutsuneak egiten zaizkiok memorian, antzinakoan gutxienetan, hurrekoan sarriago. Oreka arazoak ere agertzen zaizkiok tarteka eta, orduan, dese-

gitear dagoen emakumea zirudik. Baina, zorionez, onera ere egiten dik noizean behin. Hartara, zorionez berriro ere, etorkizuna ezin litekek erabat aurreikus.

Presatu samar nenbilela esan nion ehorzleari, digresio haiek lehenbailehen amai zitzan; barakatuko zidala, baina enkargu bat egitera joan beharra neukala zortziak jo aurretik. Haserretu gabe jarraitu zuen, haserretu gabe eta nire eskariari jaramonik egin gabe.

- Felisa Jainagak sor Isabel izena hartu zian ordenatu eta gero. Hila zen munduarentzat. Hala esaten omen dute moja egitean. Desordenatutakoan berea berreskuratu zian. Pentsa dezakeanez, komentuko mikrokosmos haren barnean Felisak aukera izango zian giza harremanen berri zerbait ikasteko. Bai, neronek esan zezakeat: aukera hori ez zian alferrik galdu. Felisak bazakik zer den maitasuna, ezagutzen ditik gorrotoa, inbidia eta elkartasuna, baita sakrifizioa, amorrua, leialtasuna eta heriotza. Mikrokosmosaren abantaila hori duk, norberaren ikusmen eremuan hartzen direla bere osotasunean eta elkar loturik biziaren osagai horiek guztiak.

Ehorzlearen etxera joan nintzen hurrengoan, hurrengoan izan zelakoan nago behintzat, kontu

arinez hasi ginen berbetan; arinak diot, ez zute-lako zerikusirik gure gaia zen harekin ezta beste-lako ezer mamitsurekin. Igogailuetan izaten diren solasaldi horietako bat zela esatekotan egon naiz, baina ni neu ez naizenez igogailuetan ezezagunekin hitz egiten duten horietakoa, esan dezadan ez ginela eguraldiaz aritu, aurreko igan-deko Athleticen partidaz baizik. San Mamesen izana zela esan zidan eta hari horretatik ibili ginen, garai bateko futbola eta gaur egungoa al-ferrik alderatzen. Hasiera batean eseri egin ba-nintzen ere, laster zutitu eta hurbildu nintzen li-burutegira, gure elkarrizketak eskatzen zuen arreta eta begirunea ez baitziren kontrajartzen bera sofan eserita zigarro puruari tiraka eta ni bere liburuak ikusten ibiltzearekin. Liburutegiak egongelako horma oso bat betetzen zuen luze-zabal. Goiko apaletara iristeko lau mailako eskai-leratxo bat zegoela ikusi nuen, zurezkoa, ziurre-nik ehorzleak berak egina, eta maila bakoitzean zerbait zuen idatzia urre maiztua ziruditen zei-nuez, artez idatziak. Lehenengo mailan, behere-nekoan, jartzen zuen: *Egiten duguna gara eta, batez ere, garena aldatzeko egiten duguna.*

- Egiten duguna gara -esan zuen ehorzleak, irakurtzen hasi nintzenean- eta, batez ere, garena aldatzeko egiten duguna.

Isilik geratu zen, zerbait esatekotan neuk esan behar nuelakoan. Hala iruditu zitzaidan berderen. Galdetu izan balit ea norena zen esaldia, pentsa nezakeen azterketa bat egiten ari zitzaidala. Eduardo Galeano esan izan balu, azterketa egitea ere ez nuela merezi pentsa nezakeen. Bigarrena irakurtzeko makurtu egin behar izan nuen, hain ziren txikiak letrak. *Abantailak desprobetxatzeko bezain gai da oztopoak ekiditeko. Gauzarik gehienak bere aldaratearen arabera egiten zituen; eta gainerakoak konbentzimenduz, alegia, dena egiten zuen premiak eraginda.* Norena izan zitekeen asmatzeko lanei ekin baino lehen bururatu zitzaidana zen, nola demontre idatz daitekeen hain espazio urrian halako testu luzea. Mehe-meheak ziren letrak, larriak eta xeheak bere tokian, puntuazio markak argi, hitz bakoitzeko letrak elkar lotuak. Trebezia ikaragarria, denbora, pazientzia, hori guztia eta gehiago behar da lan hori burutzeko.

Sofan jarraitzen zuen, nasai, eskumako besoa sofa-bizkarrean luze eta ezkerreko eskuan purua. Begira nuen, irribarretsu.

- Zeuk egina dela esango nuke -eskailera sei-  
nalatu nion.

- Baita letrak ere.

- Ez, ordea, esaldiak.

- Pozten nau hori entzuteak.

Halako liburutegia duen edonork piztuko zu-  
keen nire kuriositatea, are gehiago halako eskai-  
lera baten egilea ere balitz. Ehorzleak lehenago-  
tik zuen piztua nolabaiteko jakin-mina nire bai-  
tan, bereganakoa esan nahi baita.

- Lau mailetakoak ezagutzen badituk, urrun  
irits gaitezkeen susmoa zaukaat -esan zidan.

Orduan bai, orduan hartu nion azterketa usai-  
na joko hari. Ez nintzen beldur, izan ere ikasle  
garaian zerbaitetarako prestatu baninduten az-  
terketei aurre egiteko zen. Beti ibili nintzen la-  
rriago ahozkoetan, baina, tira, horietan ere mol-  
datzen nintzen. Kontra nuen gauza bakarra as-  
paldian azterketetan ez aritu izana zen, biktima-  
ren rolean, noski. Ehorzlea sofatik altxa eta biga-  
rrenez edalontziak whiskiz bete ondoren, nirea  
luzatu zidan. Zurrutada txiki bat egin eta, eda-  
lontzia eskuetan, hirugarren mailan paratu ni-  
tuen begiak: *Jakitea gogoratzea da*. Idazkeraren  
lirainak harrapatu ninduen berriro. Ezagun zuen  
dardararik gabeko eskuak egina zela. Distira dis-

kretua ematen zion babesten zuen berniz geruzak. Bere hatsa entzuten nuen, aldiro, puruaren kea ahotik kanporatzen zuenean. Ez nion begiratu eta laugarrenaren bila jo nuen: *Arrazoirik gabe ez da ezer gertatzen; gauza orok bere kausa badu eta beharraren ondorio da.*

- Ta? -galdegin zidan azkena irakurri ostean, ia tarterik utzi gabe.

Jostalari sumatzen nuen.

- Ondo daude aipuak. Beharbada nik beste batzuk aukeratuko nituzke, baina ezin esan ez ditudala gustuko -eta sofan jesarri nintzen.

Entzuna nion Aitorri, bere lankide ohi batek liburu hasieretan jartzen diren aipu horien zerrenda egiten zuela. Lehen zutabearen obraren izena; bigarrenaren aipua edo aipuak, jakina baita idazle batzuek bat baino gehiago jartzea dutela gustuko; hirugarrenaren idazlearen izena; eta laugarrenaren iruzkinak. Hura ikusi zuenetik ez ditu liburu hasieretako aipuak jasaten. Niri ez dit oraindik zerrenda erakutsi.

- Ez diat hire iritziaz galdetu. Hik beste batzuk idatziko hituzke, zalantzarik gabe; kontra-koa lukek harrigarria, probabilitate urrikoa. Esan diat lehen, laurak ezagutzen badituk urrun iritsiko garela.



Ez nekien zertaz ari zen. Ez nekien urrun hori zein eremuri zegokion: gure harremanari, aita-ren desagerpenaren inguruko ikerketari... Auke-retako edozein lau aipuon egileak ezagutzeak hau guztia baldintza zezakeela pitokeria galanta iruditu zitzaidan, ehorzlearengandik espero ez nuena. Agian jokozealea zen. Gauza jakina da jokozealari, edozein eremutan dabilela ere, berandu baino lehen jokoaren grina gailenduko zaiola, gutxien espero duzun kantoian agertuko da apusturako aukera. Hipotesia ez nuen oso serio hartu, baina ezta baztertu ere.

- Lehenengoa baino ez dut ezagutzen.

- Aspaldiko greziar banarena dituk beste hiruretatik bi, eta eurotako bat guztiz bakana. Nahiz eta jakin esaldiaren egileak gutxienez bi obra mardul idatzi zituela, bere esaldi bat baino ez diagu ezagutzen. Arrazoirik gabe ez da ezer gertatzen; gauza orok bere kausa badu eta beharraren ondorio da. Bere ikasle izan omen zuan Demokrito.

- Liburutegi ederra duzu -esan nion, elkarrizketa kearen ertzik gabeko ibilaldi urdinera ekarri nahian-. Ematen du, gainera, erabiltzen duzula...

- Nondik ondorioztatu duk hori?

- Leku batzuetan hautsa dago. Liburu zahar haien inguruan esaterako -atzamarraz seinalatu nion-, baina han ere badago gune garbirik. Gero, paperak daude, han eta hemen barreiatuta eta liburuen jarrera kaotikoa leku batzuetan, sarritan hartu eta beti edonola uzten diren horiek.

Ehorzlea gustura zegoen, hirugarrenez hasi baitzen edalontziak whiskiz betetzen. Tragoa, puruari beste tirakada bat eta, oraindik kea botatzen ziharduela, hasi zitzaidan kontatzen liburutegi haren zati bat, lehenbizikoa, zaharrena, etxe hartako aurreko jabeena zela eta etxearekin batera eskuratu zuela. Orduan ez zuela asko irakurtzen, hori gero etorri zela; beno egunkaria bai, hori egunero-egunero goitik behera. Noiz-behinka historia libururen bat; maizago, baina pasatu gabe, nobelaren bat. Bestea gero etorri zen. Bestea insomnia zen, hala esan zidan: insomnia. Bestea, norbait balitz moduan.

- Egun batetik bestera etorri zitzaidaan. Hasieran harridura sentitu nian, laster nekea, haserrea. Nekea izan zuan lehenengo menderatu nuena eta haserrea bigarren. Ez kostatzen. Medikarengana jo nian. Pilula batzuk erosteko errezetarekin eta neurologoarenerako txartel batekin irten ninduan kontsultatik. Bide horrek

ez zian emaitzarik izan. Bai, ordea, bidehorretatik desbideratzen den bidezidor batek. Izan ere, egun batean neurologoaren itxarongelan nengola, antzeko arazoak eta beste batzuk zituen emakume batekin mintzatu ninduan. Eta honek yogaren berri eman zidaan. Biharamunean emakume hark esandako taldean eman nian izena. Bederatzi emakume eta neu! -bekainak okertu zituen ezkererantz-. Egunero bi saio egiten ditiat etxean eta taldearekin astean bitan.

Psikoterapeuta batekin ere ibili omen zen. Hark egin zion idazteko gomendioa. Idatz zitzala arazoak, sentipenak, burutazioak. Baina ez du idazten. Sofatik altxatu, apal batera jo eta paper pila batetik orri bat ateraz aitortu zidan:

- Hauxe duk idatzi nuen bakarra.

Egun ona izan nuen eta aldarte oneko oheratu nintzen, baita loa atseginez hartzeko beste nekearekin ere. Luze etzan nintzen, ohi bezala, besoak burua inguratuz. Loak bereganatzeko ninduela hots batek erabat iratzarri ninduen. Begiak zabal-zabalik eta belarriak are gehiago paratu nintzen. Ez dakit zenbat denbora igaro nuen bigarrenez hots bera entzun arte, are zoliago jarri ninduen. Orduan, hirugarrenez hotsa noiz

entzungo zain geratu nintzen, antsietate ukitu batekin, esango nuke. Besoak beherantz luzatu eta hotsaren jatorria eta izaera deszifratzeko saiakera egin nuen, alabaina jarraipenik gabe, etenez beteta, hurrengoaren zain egote hutsak nire kontzentrazio ahalmen osoa behar izan balu bezala. Hirugarrenez entzutearekin batera komuniketiko zatorrela ohartu nintzen, iturriari zerion tanta-hotsa agian, baina ez nago seguru. Izan ere, eta honetaz ere hirugarren hau entzundakotan konturatu nintzen, ur tanta-hotsak egin lezakeen doinua (doinua?) baino sakonagoa zirudien, lorratz bat utziko bailuen. Beharbada hodia barruetatik zetorren zotina edo kexua izango zen. Ordurako, esan beharrik ere ez dago, ezin zoliago geratu nintzen laugarrenaren zain. Berritoki ere, tarteka, pentsatu ahal izan nuen, tanta ote, hodiren bat ote, baina tarteka baino ez, zegoeneko antsietatearen mende bainengoen nabarmen. Denboraren inkognita gailendu zitzaidan une hartan, ezin bainuen zehaztu hots batetik bestera bitarteko unea, ezta hurrik eman ere. Lehenengotik bigarrenean zenbat minutu igaro ote ziren, lau, hamar, ziurta nezakeena zen bigarrenetik hirugarrenean arteko unea luzeagoa izan zela, baina, aldi berean, zailago egiten zi-

tzaidana zehaztea: hamar minutu, hogei... Hori gutxi balitz, ohera sartu nintzenetik igarotako tarte luze iruditzen zitzaidan oso, hotsen arteko uneen batura baino askoz luzeagoa. Laugarrenez egiten badu, pentsatu nuen, altxatu egingo naiz nondik datorren, zer den, ikusteko. Hiru izan badira, ez dago arrazoirik laugarrenik izango ez dela pentsatzeko. Baina, zer demontre, edozer izanda ere, ez du honenbesteko arretarik merezi, irrigarria baita horrelako txikikeria batek loa eragozte. Jaikiko banintz, laugarrena entzundakoan alegia, hots horrek bere mende hartu ninduen seinale zatekeen, jarrera paranoikoa hartu izango nukeen hotsaren bila hasi izan banintz. Izan ere, hotsak beti dira hor, hemen. Kaletik datozenak, zakarrak gehienetan, inoiz alaiak, gama oparoa betiere. Barrutik datozenak, gama hain zabalekoak ez badira ere, kezkarriagoak badira, bai, sarritan. Burutazio hauetan murgilduta harrapatu ninduen laugarrenak, aurreko hirurak baino sakonagoa eta lorratz luzea utzi zuena ene belarrietan, hegazkin batzuk, gauero baxu samar doazen zama-abioi horiek uzten duten gisakoa. Honek, gutxienez, erabat baztertu zuen ur tantaren hipotesia. Eta aldi berean ez nuen zalantzarik bosgarrena ere iritsiko zela. Bigarren

kontu bat ere igaro zen hipotesien eremutik ziurtasunenera: ez nuela begirik bilduko. Hartara, jaiki eta hotsen jatorria jakitea izango zen egokiena. Eta jakinda ere, zer? Gero beste hotsen batek beregana nintzakeen, hozkailuarenak, gauero isiltasunaren gainean hegan doazen hegazkinenak, zoruko zurarenak, batek daki.

Eta irakurtzea amaitu nuela ohartu zenean, esan zuen:

- Harrezkero ez diat lorik egin. Loak eman lezakeen antzeko atsedena lortzeko bidea ezagutzen diat. Goizeko seietatik zazpiak arte egiten diat yoga saio bat. Bestea arratsaldeetan, ordubetekoa hau ere.

Yogaz gain, atsedeen uneak ere egiten omen ditu, beti arnasketa ariketekin hasita. Edozein modutan, lo egiten dugunok edo lo egin behar dugunok baino denbora gehiago egiten du esna.

- Zuek baino denbora gehiago zaukaat.

Eta orduan Funesen aipamena egin zuen:

- Mediku baten bitartez ezagutu nian Funese-na. Istorio horixe duk, hasi berria zen nire insomniorako osasun zerbitzuek eskaini zidatean onena. Izango zuan ez zakiat zenbatgarren bisita neurologia sailera, eta ordura arte ezagutzen

ez nuen neurologo bat egokitu zitzaidan. Gaztea. Eseri orduko konturatu ninduan ezagutzen zuela nire historia, Osakidetzak idatzitako atala alegia, eta harrituta bezain pozik utzi nindian us-tekabeak. Azaldu zidaan berak ez ziola antzik hartzen nire patologiarri. Ez hori bakarrik, uste zuela, egunotan saiatu baitzen informazioa biltzen, ez dudala aurkituko soluzio medikurik eskainiko didan inor. Eta hauxe esan zidaan: «Zure txostena irakurtzen ari nintzela, Funes etorri zait akordura. Horregatik ekarri dizut ipuin hau: Ireneo Funes zaldi batek irauli eta elbarri utzi zuen hemezortzi urte zituela. Oroimen ahalguztiduna zen haren dohain nagusia. *Oroitzapen gehiagodut nik bakarrik, mundua mundu denetik gizon guztiek inoiz izan dituzketenak baino* esaten omen zuen. Apenas hartzen zuen loak». Kontsultatik irtetean pentsatu nian: halako profesionalekin beharbada osasun sistema ganoratzeko beste ez diagu izango, baina ez zagok dena galduta.

Horrela hasi omen zen sutsuki irakurtzen. Aurrena etxearekin batera eskuratutakoak, goiko apaletan zeudenak eta, bistakoa dena, zaharrenak.

- Eskuratu nuen liburutegiak badik bere historia... bere historia eta sekretu bat.

Purua ezpainetarratu zuen. Isilik geratu ginen. Hori nahi zuela uste dut. Ea hasten nintzaion historia eta sekretu haiez galdezka. Hori ematen zidaten aditzera dirdirka zituen begiek, nireetan paratuta gupidarik gabe.

- Eta jakin al litezke? Tira, sekretua ez, sekretua baldin bada; baina inori kontatu ote diozu liburu horien historia? -egin beharreko galdera egin nion, noski, anfitrinoa beti utzi behar baita kontent.

Abiatu zen beste whisky bana ateratzera. Altxatu nintzen neu ere, eta hurbildu apaletara, liburu zaharrenen ingurura. Oinak eskaillerako bigarren mailan jarrita ia-ia begien aurrean nituen gorengokoak, ondo irakurtzeko moduan bizkarrak. Ez ziren asko heredatutakoak, berrogeita hamarren bat. Aurrez aurre neukan *Escritos*, Pietro Gori; arrastorik ere ez. Eskuman *Los consejos de fábrica en la Rusia de 1917*, Ana M. Pankratova; ideiarik ez. *La oposición obrera*, Alexandra Kollontai; honi hartu nion trazaren bat. *La conquista del pan*, Kropotkin. Eskumarago jarraituz aurkitu nuen euskarazko bat: *Komunista Alderdia-ren Agiria*, K. Marx eta F. Engels. Ez nuen se-



gitu. Ehorzlea luze iritzita egongo zen, are gehiago ipurdia ematen niolarik. Itzuli nintzen beraz sofarrantz, eta mahai gainean paratutako whiskia hartzera nindoala nire arreta erakarri zuen apal batean zegoen argazki batek. Zuri-beltzean, bikote zahar bat eta mutil gazte bat ageri ziren. Ez zen oso argia. Neuk ere ezin nuen, whiskia medio, argi ikusi. Atso bat eta agure bat etxearen aurrean zeuden mutil gazte batekin, ehorzlearen etxe aurrean alegia. Gorputz osokoa izateak ez zuen laguntzen pertsonen ñabardurez jabetzen. Hala ere, gaztea ezaguna egiten zitzaidan, hurbilekoa. Baina zaharrak ez, inondik inora.

- Berrogeita bi urte badituk auzo honetara bitzitzaera etorri nintzela, 1964ko udaberrian. Ehorzle egitera etorri ninduan -irribarreak esan nahi zezakeen, «pentsa ezak zenbat lurperatu ditudan!»- eta iritsi eta gutxira ezagutu nian etxe honetan bizi zen bikotea. Eurekin nagok begira egon haizen argazkian; artean osorik nian sudurra. Laurogeien bueltan zebiltzaan. Kontua duk urte hartako urrian hiru agure etorri zitzaizkidala hilerrira. Nireganantz zetozela, eguerdi batean zerk ekar zitzakeen asmatu ezinik ibili ninduan. Serio zetozean, grabe. Alboratu egin nian laster

beharko zuten lekua aukeratzera zetozkeela. Eurretako batek aurkezpenak egin zitian eta bostekoak eman genizkioan elkarri. Pentsa ezak hogeita bi urte baino ez nuela eta hirukotea berrehun eta berrogeita hamarren bueltan ibiliko zela. Lagun bat hil omen zitzaiean eta biharamunean eman behar zitzaioan lurra. «Ez da elizkizunik izango, zuzenean ekarriko dugu hona», esan zidaan bozeramaile egiten zuenak, «eta hemen egingo diogu gorazarrea». «Ados», erantzun nian, tutik ere ulertu ez arren. Kanposantua Elizarena zuan eta orduan ez nian halako ospakizunen berririk; Eibarren hileta zibilak egiten zirela entzuna nuela salbu. Biharamunean, bada, han agertu zuan segizioa. Paratu zitean zerraldoa lurrean. Inguruan zutik gorazarrera etorritakoak, batzuek krabelin gorria paparrean, gizon zein emakume. Gizon gutxi batzuek jakako poltsikotik zapi gorria atera eta lepoan lotu zitean. Zaharretako batek hartu zian hitza. Inoiz entzunduan panegirikorik ederrena. Ondoren emakume batek hilkutxa osorik estaltzeko moduko oihal gorria hedatu zioan gainean. Ekin genioan zerraldoa zuloan sartzeari eta, aurrena emakume bat, gero beste bat, azkenerako bertaratutako ia guztiak, *Internazionale* kantatzen hasi zi-

tuan, baxu-baxu hasieran, indartsu amaieran. Lehen aldia zuan entzuten nuela. Zeremonia bukatutakoan emakume bat hurbildu zitzaidan galdez ea neuk zaintzen ote nituen landare eta enparauak. Baietz. «Eta ertzean dagoen ortua?». «Hori ere bai», erantzun nioan, «soldatak ez du eta askorako ematen». Etxe honexetan bizi zen emakumea zuan. Asun. Denbora batera proposamen bat egin zidan bikoteak: etxea bi solairukoa izanik eta eurak, adina tarteko, bizia behean egiten zutenez, goiko solairua alokatuko zidatela lan truke, alegia, ortutxoa landu, erosketak eta mandaturen bat edo beste egin, urtean garbiketa sakon bat. Handik bi urtera hil zituan biak, bata bestearen ondotik: Asun lehenengo eta bederatzi hilabetera Poli. Etxea utzi zidatean, eman.

Bere barnean bildu zen ehorzlea. Ni neurean. Eta alde egiteko ordua zela pentsatu nuenez, astiro jaiki nintzen.

- Arrats luze honen ostean, ez duk joan nahi izango sekretua ezagutu gabe, ezta?

- Ez nuke nahi inor sala dezazun.

- Susmoren bat baduk orduan?

- Ez, noski. Liburutegian ikusitako apurraz eta zuri entzundako historiaz osa ditzakedan hi-

potesiak beti izango dira ahulak. Baina, ez zenuen dinamita aurkituko... edo Durrutiren gutunen bat...

- Ez, ez da halakorik, nahiz eta bietatik izan zertxobait.

- Aska ezazu sekretu hori behingoagatik -erregutu nion.

- Poli hil eta hilabete batzuetara konturatu ninduan *Germinal* nobelaren bi ale zituela liburu-tegiak. Handienaren bizkarra dotorea zuan oso, larruzkoa. Eskuetan hartu eta ireki arte ez ninduan ohartu kutxa bat zela, hain zitian ondo itxuratuak orriak, orrien ertzak. Kutxa barruan koaderno bi zeudean. Eskuz idatziak. Bi eskuk idatziak, ez erdi bana. Letra molde bat nabarmentzen zuan orri gehienetan, baina bik idatziak.

Altxatu zen, azkar esango nuke, airos, nik egingo nukeen baino askoz azkarrago eta airosoago bederen, eta apal batera egin zuen; koadernotutako orri multzoa hartu han eta eskuetara ekarri zidan.

- Lehenengo koadernoaren transkripzioa duk.

*Poli Urizarren lehenengo koaderno*a jartzen zuen azalean, koaderno bera idatzia izan zen

letrarekin barik, beste batekin. 1899tik 1906ra artekoak jasotzen zituen.

- Beste koaderno bat ere bazagok, 1936tik 1960rako ibilerak biltzen dituen.

Izango ziren goizeko hirurak. Atariko ilunpean esan genion agur elkarri. Ehorzlea kontrargian geratu zen, eta bitxia iruditu zitzaidan, hala dut gogoan, patillak izatea nabarmentzen zitzaiena gehien, zilarra bailiran. Esku batean Poliren koadernoak neukanez, bestea luzatu behar izan nion eskaintzen zidana hartzeko.

- Eraman ezak hau ere.

Aldizkari bat zen. Goiburua baino ezin izan nion irakurri iluntasun hartan. *Goizaldeko Pixon-tzia*.

Taxi bat hartu nuen etxera joateko. Zabaldu nuen koadernoak, baina iluntasunean ezinezkoa izan zen lerro bakar bat irakurtzea. Igogailuan sartu arte ez nuen irakurri lehen lerroa: *Iratzar-tzen ari nintzen. Begiak zabaldu eta gero betazei eragin behar izan nien hainbat bider, leihotik nekusan harresia ametsetako irudi lausotuei gailendu arte. Burua aurrerantz jiratu eta aurrean neuzkan bi gizonak ikusi nituen.*

Uste dut lehen aldia zela lerro batzuen irakurketak alkoholaren lurrinak uxatzen zizkidana. Ez

nuen atsedenik hartu Poliren koadernoan irakurtzea amaitu arte.

Beste askok bezala, adina iritsitakoan eta soldaduskatik libratzeko, orduan gerlatik libratzea esan nahi zuena, bi mila erreal urrundik ere ez izatean, ihes egitea hobetsi zuen Polik. Hautu hau egin zuten gehienak ez bezala, La Arboledara joan zen, lurrari burdina erauztera. Joakin Bizkarra izan zen meatzari urte haietan. Oharkabean ibili nahi duenarentzat leku egokia begitandu zitzaidan, beti irudikatu izan baititut gizon saldo handiak hara eta hona mendi hezeetan lurrari egindako zaurietan barna, denak aurpegiak eskuak bezainbat belztuta. Bat-batean amaitu zitzaion La Arboledako egonaldia. Ustekabean, liskar batean, guardia zibil bat garbitu zuen eta bigarren ihesaldiari ekin behar izan zion. Aurrez prestatuak ez izanak zekartzakeen neke eta arrisku ikaragarriak, antolatutako langile batzuen laguntzaz saihestu ahal izan zituen doidoi. Mateo Manterola goitizena hartu zuen, zeina, bilatu gabe, in crescendo batean murgildu zen, garaiko gatazka handietan nahastuta.

Geriatrikoko aldizkaria ez nuen handik egun batzuetara arte irakurri. Memoriak nahiko argitasun eman ohi du gure lehentasunez. Lehentasun

bilakatzen diren beldurrez, desioez, grinez... Pixontzien buletinaren ahaztuta izan nuen eta ez soilik sofaren atze aldean galduta geratu zelako. *Gure ehorzlearekin solasean* zuen izenburu elkarriketak. Sarreraren zioenez, *gure kontuak profesional onen eskuetan uztea nahi izaten dugu guztiok, konfiantza ematen digutenen esku. Hori egiten badugu autoa, gibela edo ikuzgailua konpondu behar dizkigutenetan, ez dago arrazoirik lurpera eramane behar gaituztenean lan hori arrotz baten eskuetan uzteko. Hauxe bera konpontzera gator elkarrizketa honekin. Berandu baino lehen gure gorpuak hartuko dituen eza gutzeko. Ganorazko profesional bat dela ikusi eta lasaiago senti gaitzen. Ez sarreraren, ezta elkarrizketaren ere, ez zen behin ere aipatzen ehorzlearen izena. Ez adina, ez jaioterria. Beste bide batzuk jorratzen zituen solasak, ofizioarekin estuki lotuak. Profesionaltasuna frogatze aldera, nonbait. Baina hau guztia ez nuen orduan irakurri, handik egun batzuetara baizik.*

Telefono mezu bat bidali nion Aitorri, institutuaren zegoen jakinaraz ziezaien afoniak jota nengoela. Inor penatuko ez zen lasaitasunarekin oheratu nintzen. Loak hartu bitartean, ez oso luze, Poli Urizar ibili zitzaidan buruan. Patua. Ka-

sualitatea. Asun ere bai, Asun ere buruan nuela esan nahi dut. Bigarren ihesaldian Bilbon ezagutu zuen emakumea, Artemioren bikotekidea. Bikote honek eman zion aterpe aste batzuez, Mateo Manterola bilakatuta Madrilgo bidea hartu zuen arte. Ollerieta kaleko etxe hartan zerbait izan zen Asun eta Poliren artean, zerbait erein zuten lau eskuz, oharkabean. Mateo Manterola izenpean Polik Ollerietako etxe hartatik alde egi-tearekin batera ohartu ziren baina. Biak ohartu ziren, hirurak agian. Koadernoan batak eta besteak, Polik eta Asunek, idatzitako orriak tartekatzen dira. Orri ezberdinak, esku ezberdinek, gorputz ezberdinek beteak. Aurrez ados jarrita edo ez, ez dakit, baina gerora bat egin zutenak norbaitek josi zituenean. Tarte laburra izan zen loak hartu bitartekoa.



# Cosme Gezeta delako bat

Ezusteko deia jaso nuen Margaritarekin izan eta pare bat astera, gutxi gorabehera. Sakelako-aren pantailak Margarita zioen. «Margarita naiz, ixekoa». Azkenengo hitz hau beste tonu batean, ziurtasun gutxiagorekin esana balitz bezala. As-telehen arratsalderako geratu ginen. Puntu-puntu nintzen ateko txirrina jotzen. Adeitsu hartu ninduen, masailetan musu emanaz. Kafea hartu genuen eta nire bizitzaz galdetu zidan, lana, bikotea eta halakoak. Jakin behar zuena esan nion. Jakin-mina izanagatik ere, ez nintzen ausartu bere bizitzaz ezer zehatzik galdetzen, esaterako bikotekiderik zegoen edo ez. Zilegi omen da gazteagoari lanaz eta bikoteaz galdetzea, ez gazteak zaharrari. Horrenbestez, aitaren gaia jorrazteari ekin genion. Esan zidan banatu berri joan zitzaizenean, *bueltatu jakunean* bere hitzetan, jota ikusi zuela, hondoratuta. Baina besoak astintzen hondo hartatik gorantz egiteko. Ez zen lana erabiltzen duen horietakoa bizitzak emandako astinduetatik osatzeko. Alderantziz ere esan daiteke, izan ere, aseguru etxe bateko egoitza nagu-

sian egiten zuen lan Bilbon, eta Durangon bulegoa ireki orduko bertara etortzea eskatu zuen. Zuzendari moduan etorri zen hona, baina ez zion lanak lehen baino ordu gehiago kentzen. Izeko Margaritaren kontakizunaren arabera, askoz lasaiago bizi omen zen Durangon. Ahal zuen guztietan mendira joaten zen, noiz edo noiz lagunen batekin, gehienetan bakarrik. Horra iritsita ilundu egin zitzaion betartea Margaritari. Isilik geratu zen une batez. Gauetz ere ibiltzen omen zen, ez egunero, baina bai astean pare bat aldiz edo. Txarrena: jokoa zuela gustuko, kartak eta frontoia. Bere lagunez ez zekien ezer zehatzik. Aldiz, kartaka egiten zuen taberna zein zen esan zidan, Bolatoki izenekoa, oraindik ere taberna dena. Abiapuntu bat iruditu zitzaidan.

Zuzen jo nuen tabernara, izeko Margaritarenetik alde egin bezain pronto. Uste dut presaka antzean joan nintzela bere etxetik; zapore mikatza nuen, baina baita Bolatokira heltzeko irrika ere. Errudun sentitzen nintzen, baina bihotz taupadak taberna hartara ninderaman grinak eraginak ziren. Mostradoreko taburete batean jesarri nintzen eta, jesartzen ari nintzela, Juan Preciado etorri zitzaidan gogora. *Nire aita, Pedro Páramo delako bat, hemen bizi zela esan zidatelako eto-*

*rri nintzen Comalara. Amak esan zidan.* Halatsu ikusten nuen, beharbada, neure burua Bolatokin sartu berritan. Nire aita, Cosme Gezeta delako bat, hemen bizi zela esan didatelako etorri naiz Bolatokira. Izebak esan dit. Zerbitzari zebilena, ezpain gorridun emakumea, etorri zitzaidan eta garagardo bat eskatu nion. Hiru mahai zeuden bazter batean, bat baino ez okupatua, kartetan ziharduen gizonezko laukotea ke artean. Ez zen beste inor ageri, baina bai ahotsak, gutxi, sakonak, eztulen bat, biraoren bat edo beste. Ahotsak komunetako ateen ondoan eta tabernarekiko bionbo batek berezitua zegoen beste gela batetik zetozen. Hor ere karta jokoak, pentsatu nuen, jendaurreko beste hura baino serioagoa nonbait. Hala adierazten zuen barruan jokatzeak, kanpoan bi mahai libre izanik. Jokoaren tamaina ziurrenik, edo jokalariena, biak hainbatean. Beharbada aitaren sasotik, edo lehenagotik, iraun du hemen karta jokoak, tamainakoak hain zuzen.

Bazen garaia lanari ekiteko.

- Aizu, zenbat da? -tabernariari deitu nion ordaintzeko aitzakian, eta hasi nintzaion-: Nire aita zenak, Cosme Gezeta, hemen jarduten zuen jo-

koan duela hogeita hamar-berrogei urte. Taberna ezagutzera etorri naiz.

Adi nuen emakumea, irri gorri leun-leun batez. Ohartu nintzen begietan marra beltz mehe bat zuela, eta erabaki nuen hori barik ere begi haiek bazutela argia eta tamaina, oharkabean pasatzea ekiditen zietenak.

- Garai haietan gure aita zen nagusia -esan zidan-, nagusi eta morroia. Eguerdiro izaten da hemen. Nahi duzunean etor zaitezke berarekin hitz egitera. Burua oso argi dauka eta memoria bikaina.

- Ongi da.

- Barruko gelan antzinako argazki pila bat dago hormetan, nahi badituzu ikusi...

Barruko gelara lagundu zidan. Lau gizonetzko, uste dut denak alkandora zuriz, jokoan ari ziren. Gainezka zuten mahaia: kopak, hautsontziak, kartak eta kolore ugaritako billeteak, ezezagunak niretzat bat baino gehiago. Ez ziguten jaramon handirik egin, nahiz eta tabernariak diosala abegitsua egin:

- Arratsaldeon, jaunak. Zerbait behar baduzue eskatu egidazue beti bezala.

- Eskerrik asko, Elena -erantzun zion batek, begiratu ere egin gabe-, ez zaigu ezer falta.

Hiru horma argazkiz beteta zeuden, denak zuri-beltzean. Bakoitza bere markoarekin eta beiraz babestuta. Ezkerreko paretatik hasi nintzen.

- Hau da nire aita -esan zidan, erakuslea txirindulari baten ondoan zegoen gizon sendo eta alai baten gainean pausatuz.

Denbora gehiago eman nuen atzamarrari begira gizonari baino, hain zen harmoniatsua sorburutik atzazaleraino. *Andres Gandariasekin Urkiolan* jartzen zuen, datarik aipatu gabe. Baziren futbolariak eta boxeolariak ere. Jabetu nintze-nean horma hura kirol kontuei zegokiela, hurrengora jo nuen. Gehienak tabernan bertan ateratakoak ziren, gizonak binaka, hirunaka, launaka... Emakume gutxi. Aurkitu nuen aita eta Elenari erakutsi nion.

- Ez duzue antzik.

Ez nuen horretan erreparatu ordura arte. Ordura arte ez nuen aukera handirik ere izan horretan erreparatzeko. Ez didate inoiz esan amaren antza dudarik, ez dut, behintzat, gogoratzen. Hiru gizon ziren mahai bueltan jesarrita, hauetako bat aita, eta beste bi atzean, zutik baina pittin bat makurtuta argazkian sartzeko-edo, denak al-darte oneko, zigarroak eta kopak eskuetan.

1970 jartzen zuen azpian. Elenak bere aita seinalatu zuen, atzeko bietatik eskumakoa, eta neronek denbora gehiago egin nuen atzamarrari begira gizonari baino.

- Ez dut, baina, inor ezagutzen -argitu zidan.

- Bihar edo etzi itzuliko naiz -eskerrak eman eta alde egin nuen.

Etxera bueltan erabaki nuen, garaia zela kontu guztiaren berri Aitorri edo Agustini, edo biei, emateko. Hausnarketaren nekeak eraginda ziurrenik, erabaki nuen biei kontatzea, bataren zein bestearen ezaugarriak lantegian paratuz zerbait aterako zelakoan. Zerbait berria, gauzak ikusteko molde ezberdinen bat agian. Etxean, pentsatzeko besaulkian jesarri eta horma zuriari begira egon nintzen. Arreta osoa zuen paretak, zentzu guztiak nituen pantailan, foto zahar hartako gizonak agertu ziren arte, jokoan serio.

Ez nuen ondo lo egin, makina bat aldiz esnatu nintzen, ez zerbaitetik estu arduratzen ninduelako, barnean sentitzen nuen inurri dantza bategatik baizik. Jaiki eta lehenengo lana institutura deitzea izan zen, gaua botaka eman nuela eta komunetik altxa ezinda nengoela jakinarazi nion idazkariari.

Durango nintzen eguerdirako. Zuzenean Bolatokira. Ez zegoen Elena, eta hau baieztatzeak erdira baino beherago jaitsi zidan animoa. Bere ordeztu mutil gazte bat ari zen, ile beltz-beltza kopeta batean bilduta. Bazter batean zahar koadrila bat zegoen, txikiteoan antza, eta euretako bat izan zitekeenez Elenaren aita, kopeta beltz eta ezpain lodiko mutilari galdetu nion nagusiaz. Asmatu nuen, koadrila hartako bat zen. Hurbildu nintzaion, pixkatxo bat taldetik aldendu eta nire burua aurkeztu nion:

-Cosme Gezetaren semea naiz.

- Ni Martin -bostekoa eman zidan-, Martin Lopez Aginako. Atzo hemen izan zinela esan dit alabak.

Barruko gelara eramanez ninduen. Erakutsi nion bezperako argazkia.

- Gehiagotan ere egon behar du. Bolatokin makina bat ordu emandakoa zen Cosme. Neurriko gizona hitzetan, edanean, janean. Inoiz neurria galdu bazuen, agian jokoan izango zen, kasu bakanen batean edonola ere. Argazki horretan ohiko joko-kideekin dago: Gerardo Setien, garraino enpresa baten jabea; Jose Mari Rubio, bitxidenda bat zeukana; Cleto Gorostidi, mediku forrentsea...

Ez nion hortik aurrerakoa aditu. Forentsea. Kasualitate handiegia litzateke forentse bat izan joko-lagun eta zerikusirik ez izatea desagerpenarekin. Baina hori bide itsua zen, forentsea urte batzuk lehenago hil zela esan baitzuen Martinek:

- Plentzia inguruko zahar-etxe batean hil zen.
- Nirekin zerbait hartzeko astirik baduzu? -galdetu nion.

- Ekatzu txakolin botila bat eta pare bat baso! -agindu zion zerbitzariari.

Kontalari ona iruditu zitzaidan Martin Lopez Aginako. Alabak esan bezala, memoria galanteakoa eta gertaerak harilkatzen trebea. Iritziak, ordea, urri; ez zuen honetaz edo hartaz baloraziorik ia egiten. Bere esanetan, talde hartakoak zentzuzko gizonak ziren, jokozaleak bai, baina beti ez bazen ia beti neurria zaintzen zutenak. Ez zuten inoiz mozkortuta jokoan egingo. Dirua jokatzen zuten, hasiera batean beti dirua, baina onartzen zituzten kapitalak ere, mesedeak, beste hitz batez esanda. Garraiatuko dizut behar duzun hori nahi duzun tokira, edo alkatearekin hitz egingo dut zure afera horretaz, zuk lagunduta nahi baduzu, edo urtebetean erabil dezakezu Bilbon dudan pisua, alokatu ere bai. Halakoak



gertatzen ziren norbaiti dirua ahitzen zitzaio-  
nean eta joko grinak menderatua zuenean.

- Hamaika bider egin dut nik halakoetan le-  
kuko -esan zuen.

Aitortu behar dut, elkarrizketako une mami-  
tsuenak ez zirela izan desagerpenaren berri  
eman ziezadakeen zer edo zer gainekoak. Ho-  
netaz atera nuena zen forentse bat zuela aitak  
joko-lagun, hilda eta ondorengorik gabe zegoe-  
na; baina baita ere, mahai hartan batak bestea-  
ren beharrei aurre egiteko ere erabiltzen zela  
jokoa. Eta pentsatu nuen forentseak izan zezake-  
ela zerikusirik desagerpenean. Une batean  
edo bestean forentsea zorretan izango zen aita-  
rekin. Honek alde egin, beste nortasun batean  
gorde eta bere burua hiltzat emateko bidea ikusi  
zuenean forentseak lagundu ziola plana gauza-  
tzen. Eta horixe bera ondorioztatu nuen.

Gauzak hala, tabernaria bera nuen aurrera  
egiteko euskarri bakarra.

Batetik, nahiz eta joko-kideen arteko mese-  
deen gainean esandakoak kontrakoa pentsatze-  
ra eraman, jakin zezakeelako desagertzeaz zer  
edo zer. Gure arteko lehen enkontruan, mese-  
deen kontu hura aipatu zuen moduan aipatzeak,  
hainbatetan transakzioen lekuko izatearena

barne, iradoki zezakeen gertatutakoaz ezer ez jakitea. Edo, denboraren poderioz, preskribituztat jo zitzakeen ordurako Martinek kontu zahar haiek. Eta ezin zitekeen baztertu, ezta ere, jakinaren gainean egon gabe jakin zezakeela zer-bait. Zekienaz ezjakin izatea, bizitzan sarri gertatu ohi den legez.

Bestetik, eta hau ere funtsezkoa zen, Martin nuen bizirik izan zitezkeen joko-kideengana iristeko zubia.

# Ez zen kontu luzea izan

Larunbatean amarengana joan nintzen bazkaltzera. Zor nion. Aurrekoan halako berri bat eman eta gero zor nion. Banekien desagerpenaz ez nuela argi handirik jasoko amarenean, baina agian lagunduko zidan aitari buruzko konturen bat argitzen. Joan nintzaion, ba, eta atarian aurkitu nuen neska batekin berbetan.

- Hara nire semea, hemen Amaia, lehengo egunean aipatu nizuna.

Gogoan nuen Amaia, ni baino urtebete edo bi gazteagoa, txiki-txikitatik ezagutzen genuen elkar. Urte hauetan, ordea, ez dut une batez ere akorduan izan.

- Arte Ederretako Museoan lana aurkitu nuen eta hona itzuli naiz bizitzen -esan zuen-. Asko pozten nau zu ikusteak.

*Egongo gara* batekin agurtu genuen elkar eta zain izango zen txitxarroaren bila joan nintzen amarekin. Neska nuen buruan. Urteetan deus izan ez dena gogoan, nola har lezake osorik gogoan, une labur batez izan arren.

Aldarte oneko eta berriketarako prest aurkitu nuen ama. Poztu egin nintzen. Alai zebilenean izaten zuten distira zeukaten bere begiek.

- Zer iruditzen zaizu Amaia?

- Ondo.

- Ondo?, hori da esateko duzun guztia?

- Ondo baino hobeto. Neska ederra benetan.

- Hori hobeto dago. Zelan gabilta neska kontuetan?

- Ahal den moduan -keinuagatik ez zitzaion erantzun oso zehatza begitandu-. Ahal dudana egiten dut, ama.

- Ziur naiz ezetz -eman zion amaiera gaiari.

Nire adineko askok, gehienek beharbada, nola edo hala ezkontuta, espeziearen jarraipenari bere ekarpena egina zioten ordurako. Hala eta guztiz ere, aitortu behar dut amak ez zidala inoiz esplizituki bide hori iradoki. Ez duzu ezkontzeko asmorik? Ez zara inoiz ezkontuko ala? Aurkitu behar zenuke neska bat. Aurkitu behar zenuke ganorazko neska bat. Ez zidan, ez, halakorik esaten. Esplizituki. Beste era batera jokatzeko: Zelan zabilta neska kontuetan? Baduzu neskalagunik? Gisa horretan ekiten zion gaiari. Susmoa dut sekula ez zela gustura geratzen nire

erantzunekin eta hauek iradoki ziezaioketenarekin.

Bazkalostean kontatu nion izeko Margaritarekin izandako enkontrua. Harekin hitz egindakoa, ez ordea ez niola sorgin itxurarik antzeman. Eta kontatu nion baita ere izotzaren inguruko ehorzlearen hipotesia.

Ez zion ez batari ez besteari heldu. Galdetu zidana izan zen ea ikerketarekin edo dena delako horrekin jarraitzeko asmorik nuen.

Baietz erantzun baino lehen ahalegindu nintzen bere nahiez jabetzen, amak berak nahi zuenetz jarrai nezan. Ez nion antzik hartu. Berriro Margaritarekin egoteko asmoa nuela jakinarazi nion, hark izan zitzakeelako aurrera egiteko giltza batzuk. Ondo zeritzola adierazi zidan amak. Ez zidan goraintzirik emateko agindu.

- Ama, zergatik banatu zineten?

Ez nuen galdera hori egitea pentsatuta. Ez berarengana joan aurretik, ez egin baino minutu bat lehenago. Galdera entzun nuen unean (*entzun nidan* esango luke Aitorrek) konturatu nintzen zer galdetu nion. Ezin dut ziurtasunez esan zergatik galdetu nion banaketaz. Alde batetik, uste dut, ordurako, ehorzleak goizeko zortzietan deitu zidanetik, piztua nuelako nolabaiteko jakin-

mina, batzuetan nabarmen indartzen zena. Beste batzuetan moteltzen. Amaren aldarteak eta gaiaz erakusten zuen distantziak ere izango zuten zerikusia. Berez izan nezakeen zilegitasuna agian areagotua ere sumatzen nuelako, bizi osoan ez niolako behin ere galdetu. Kontua da galdetu egin niola:

- Zergatik banatu zineten?

Ehorzleak deitu zidala esan nionean bezala, koilaratxoari eragin zion kikaratxoan, orduko hartan baino mantsoago. Begiak altxatu eta begiratu egin zidan. Irri ñimiño bat. Samurra. Ez nion minik antzeman. Batek daki.

- Urte hauetan makina bat bider pentsatu dut zer erantzungo nizun hori galdetuko zenidanean. Zenbat erantzun ezberdin pasatuko ziren nire burutik, bakar bat ere ezpainetara iritsi gabe, ez baitzenidan inoiz galdetu.

Aitaren hilobiaren absentzia aipatu nionean bezala, gorri leuna zabaldu zitzaion masailetan, orduan baino leuntxeagoa esango nuke. Oso bat zetorrena atzazaletan zuen margoarekin. Ohikoa zuen atzazalak margotzea. Ume nintzela, inoiz edo behin, niri ere margotu zidan atzazalen bat bereei esmaltea ematen ari zela. Beti egiten zuen harrikoa eskularruak jantzita, baita azule-

juen edo komunaren garbiketa. Estimua handian zuten bere eskuak. Baina, egia esan behar bada, berarekin nengoenetan ez nion atzazalen koloreari erreparatzen, ez behintzat orduan bezala. Eta orduan erreparatu banion ez zen soilik masailek hartutako kolorearekin zuten sintonia-gatik. Batez ere Bolatoki tabernako Elenaren eskuak gogora ekarri zizkidalako izan zen. Zalan-tzarik gabe. Izan ere, amaren isiltasun hartan, Elenaren eskuak nituen gogoan, Elena bera gogoan izateko moduetako bat. Halako egoeran, alegia ordura arte inoiz galdetu ez nionaren erantzunaren zain nengoela, beste esku haiek gogoan izateak zerbait adierazten zuen. Arreta osoa banaketaren zergatiez esango zidanaren zain izan behar nuen une hartan, bazen laster erantzungo zidanari lehia egiten zion beste arreta puntu bat. Bi kontu hauek nituen gogoan, ama hitz egiten hasi zitzaidanean, astiro eta ahotsaren tenpleari eutsiz:

- Beste gizon batekin ibili nintzelako banatuginen.

Bikote baten banaketa baten berri jasotzen baduzu eta berorren arrazoia kide bat hirugarren pertsona batekin ibiltzea dela aditu, bada, harritzekoa ez da. Hala izango da, baina ni harritu

egin nintzen, ez baitakit beste hitz batez adierazten sentitu nuena. Harridura. Ez nekien ondo nori zegokion jarraitzea. Ez nekien amak aurrera egingo zuen, xehetasunen bat emanaz, edo neuri zegokidan, galdez, xehetasunen bat eskatzea. «Aita beste pertsona batekin zebilelako». «Senarra beste batekin zebilelako». Ez dakit honelako erantzunen bat eman izan balit molde bertsuan harrituko ote nintzen. Kontua da, aurrez aurre neukana ibili zela beste batekin. Edo zebilela. Alegia, banatu zirenean zebilela.

- Ez zen kontu luzea izan. Aspaldi gertatu zen, edonola ere.

Lehenengo bost hitzekin *kontua* arindu nahi zuela zirudien. Hurrengo bostekin, jarri zien doinua jarrita, bazirudien esan beharrekoa esana zuela. Jakina, nik galde niezaiokeen honetaz edo hartaz. Ez zeukala zakarrontzira botatzeko, berekin bizi izandako une goxoak eta orduko hitz haiek zetozkidan gogora. Esan zizkidanean sentitu nuen sinesgaiztasuna ziurtatu nuen. Hiletara joan izana, emazte sentitu ez arren, baina legearen aurrean hala zenez, alargunaren rola betetzeko saio hark izan zezakeen zerikusiren bat pentsioren batekin edo herentziaren batekin. Eta kontu hauek guztiak izan daitezke izeko Margari-



tarekiko harremanen osagai printzipal. Banekien ni txikia nintzela banatu zirela. Zehatzago, esango nuke jaio eta lasterrera izan zela. Beti izan dut inpresio hori. Datu interesgarria ziurrenik. Ez nekien besterik. Ez nekien, zehatz, noiz, ez norekin ibili zen ama, maitemindu egin zen edo ez, ezta zelan izan zuen aitak horren guztiaren berri. Ez nekien ezer, eta ezer ez galdetzea erabaki nuen. Ez ordurako jakin-minik ez nuelako. Jakin-min eza izan ezik, beste edozerk bultzatuko ninduen ezer ez galdetzera. Eta horrela, laguntzea deliberatu nuen.

- Beno, beti gertatu izan dira horrelakoak, batzuetan urrunago, besteetan gertuago.

Ez nintzen gustura geratu esandakoarekin; bai, ordea, amak bere bi eskuekin nirea hartu eta eztizko irriz begiratu zidanean. Eskerrik asko esango balu bezala. Ni bere atzazal gorri delikatuei begira geratu nintzen.

# Marlon Brandorekin solasean

Duela lau hamarkada Bolatokiko joko-mahai haren inguruan jesartzen zirenetatik bik jarraitzen zuten bizirik. Urruti gabe biak, Martin Lopez Aginakoren esanetan:

- Durangon bertan bizi da Jose Mari Rubio, emaztearekin. Hamarren bat urte dela galdu zuten seme bakarra. Harrezkero erabat elizkoi dago, etxetik elizara eta elizatik etxera. Eta Gerardo Setien, aldiz, Galdakaora ezkondu zitzaion alaba batekin bizi da. Pare bat bihotzeko eta beste hainbat ebakuntza izan eta gero eraman zuen alabak. Entzuna dut ez dela etxetik irteten, baina ezin dizut ziurtatu.

Errazena Rubiorengana jotzea zen. Martinek berak esan ziezadakeen non bizi zen eta non harrapa nezakeen mezaren batetik irten ostean. Setienez, ordea, Galdakaon bizi zela baino ez zekien. Hala ere, neukan informazioa urria izan arren, barrenak esaten zidan hobe zela Setienerkin hitz egitea aurrena. Etxetik irten gabe bizi denak, hala bazen behintzat, ez duenez aukera

handirik mintzakide berriren bat izateko, izan dezake entzule berriren bat izateko gogoia. Ordu-rako ez baldin bazen bere baitara erabat bildu eta, ondorioz, kanpoko doinu txikiena hari bost axola. Topa nezakeen, topatzekotan, entzule arretatsuarekiko esker onez, luze hitz egin nahi zuena. Beste kontu bat litzateke bere buruaren egoera, memoria eta koherentzia barne.

Rubio elizkoia, etxetik elizara eta elizatik etxera Martinen hitzetan, ez zitzaidan fidagarria iruditzen. Iragana garbitzen buru-belarri dabilena, zeruan tokitxoia izateko mundutik kanporago egon daiteke etxetik irteten ez dena baino. Oroimena zimurrik eta arrakalarik gabe izanda ere, oroimenetik bertatik oroitzapenera, oroitzen den moldera, bidea luzea da. Oroitzapenak, erabat eraldatuz, egungo norbere izaerara egokitzea arrunta da. Erljioa tartean dabilela, desitxuraketa izugarria izan daiteke. Beraz, elizkoiarengana barik, bestearengana jotzea hobetsi nuen.

Martinek neke handirik gabe jakin zituen Gerardo Setienen helbidea eta telefonoa. Ez zidan galdetu ea zertarako egon nahi nuen berarekin. Baina Setien jaunak jakin nahi izango zuen, noski. Esan niezaiokeen aita zenaren bizitza ezagutu nahian nenbilela, ezagutu zuen jendearekin

mintzaturik. Zer dela-eta, pentsa zezakeen; pentsatuko zuen. Zer dela-eta, galde zezakeen. Esan niezaiokeen idazlea nintzela, edo zinemagilea, eta handik eta hemendik bizitzari zuzen hartutakoekin josten nituela istorioak. Primerako materiala izan zitekeela Bolatokiko mahai hartako jokoak. Edo antropologoa nintzela eta jokoaren inguruko tesia egiten niharduela. Primerako materiala horretarako ere.

Gizalegeak hala agintzen duela susmatuta, telefonoz deitu nuen. Gizonezko batek hartu zuen, Gerardo Setienen suhia, pentsatu nuen. Esan nion zaharraren aspaldiko lagun baten semea nintzela eta berarekin hitz egin nahi nuela, ahal balitz.

- Alaba jarriko da, hitz egin ezazu berarekin.

Atsegina iruditu zitzaidan emakumearen aho-tsa, gizonarenaren aldean presentzia handikoa.

Aurkeztu nituen neure burua eta nahia:

- Cosme Gezetaren semea naiz, zure aitaren aspaldiko lagun bat. Eragozpenik ez balego, zure aitarekin egon nahi nuke.

- Orain lotan dago, baina bihar emango diot zure berri. Deitu ezazu bihar eguerdian.

Erlojuari begiratu nion. Bederatziak ziren. Agian erlojuari begiratzeko hartu nuen denbora

galdera tankerako isilunetzat hartu zuelako, edo besterik gabe, xehetasun batzuk eman zizkidan.

- Ahul dauka bihotza. Arnasa arazoak direla-eta, egunean hainbat ordu ematen ditu oxigeno botilari lotuta.

- Ez dut trabarik egin nahi. Bakarrik, ondo baderitzozue -honela esan nuen: baderitzozue-, zure aitarekin solasalditxo bat izan nahi nuke.

- Deitu bihar eguerdian.

Eta halaxe egin nuen. Alabak hartu zuen telefonoa:

- Egun on, Gezeta jauna.

Ez zitzaidan ohikoa jaunakako trataera hori. Zitekeena zen setiendarrenean eta euren inguruan ohikoa izatea. Gauza jakina da lur eremu berberean mundu arrunt diferenteak daudela, elkar ukitu ere egin gabe batzuk.

- Aita bera jarriko da oraintxe.

Gerardo Setieni entzun nion lehenengoa arnasa hartzeko ahalegina izan zen, birrikak betetzeko saio erdi antzua.

- Cosme Gezetaren semea, orduan.

Ez zuen egun onik esan. Horregatik eta aho-tsaren doinuagatik, agintzera ohitutakoaren antza hartu nion. Agintzen segitzen duena ziu-rrenik.

- Bai, jauna. Eta ondo irizten badiozu, zurekin egon nahi nuke tartetxo batez.

Zertarako edo zergatik azaltzea egokitzen zitzaidan, eta unetxo bat igaro zen neronek ere arnasa hartzen nuen bitartean. Arnasa hartzeko etenek ez zioten indarra erabat lausotzen zahararren ahotsari. Ez nuen nire nahiaren zergatiez azalpenik eman behar izan.

- Zatoz bihar bertan, eguerdian.

Telefonoa hartutakoan egun onik eman ez zidan bezala, ez zuen gehitu ondo badatorkizu edo antzekorik. Agintzen jarraitzen zuela berretsi behar. Ez nekien noraino iristen zen bere aginte hori, eguna ematen eta geratzen zitzaion bizitza emango zuen etxeko hormetatik harago zabaltzen zen ezin jakin. Aginteaz, gainera, kontua ez da soilik eremua, botere eremua, boterearen sakonera baizik, zenbaterainoko den agintariaren eskuduntza pertsona eta ogasunen gainean.

Eguerdia zer ordu izan zitekeen, ez nekien oso seguru. Hamabietan balitz, bi eskola ordu galdu beharko nituen. Ez nintzen horregatik atsekabetu.

- Hor izango naiz hamabietan.

Alabak ireki zidan atea. Irri neurtuz eman zidan bostekoa, besoa osorik luzaturik, dena esan behar bada.

- Alejandra naiz, Gerardoren alaba. Aita zain daukazu.

Besaulki oparo batean zegoen Gerardo Setien. Lehen begiratuan ehun eta berrogei kilo inguruko gorputzarra iruditu zitzaidan. Ez zeukan mantarik belaunetan, ezta etxe-jantzirik ere. Kalleko jantzita zegoen: alkandora urdina, traje beixa, larruzko zapata distiratsuak. Etxean ego-tera derrigortuak egin lezake kalerako bidea etxetik irten gabe. Esaterako, kalerako jantziz. Etxeko arropak erantzi, garbitu, bizarra egin eta, prestakuntza luzatuz, bulegora joateko gisan jantzi, larruzko zapata distiratsuak barne. Orraztu, gizonentzako lurrin tanta batzuk egin ilean eta sorbaldetan, eta prest.

- Beraz, Cosme Gezetaren semea.

- Halaxe da, bai. Duela gutxi Bolatokin izan nintzen lehen aldiz. Martin ezagutu, argazki zaharrak ikusi...

- Eta Cosmeren lagun zaharra ezagutu behar zenuela bururatu zitzaizun.

Galderaren eta baieztapenaren arteko tonua eman zion esaldiari. Ez zen baieztapen hutsa

izan, hori argi zegoen. Galdera hutsa ere ez, nahiz eta gehiago izan honetatik. Ukitu lauso horrek ironiari ere egin ziezaiokeen tartea. Eta orain aitaren bila hastea bururatu zaizu? Zer dela-eta? Hau guztia eta gehiago izan zezakeen buruan aurrean nuen gorputzarrak. Ez nekien zer jakin zezakeen aitaren bizitzaz, ezta nirekin izan zuen, izan ez zuen, harremanaz. Horiek jakin izan banitu, agian, bere osotasunean ulertuko nion-eta *Cosmeren lagun zaharra ezagutu behar zenuela bururatu zitzaizun* hori. Ez nion, baina, ulertu.

*The score* filmeko Marlon Brando nuen aurrean, itxurari zegokionez bederen ze, bere izaeraz, Gerardo Setienez ari naiz, une hartan ez neukan arrastorik ere. Lasaitasuna zeriola esango nuke, nahiz eta arnasketak, konpasatua izanda ere, nabarmenki mugitzen zizkion aurpegia, lepoa, paparra eta sabela. Ordena horretan. Gerritik gora, alegia, nolabaiteko uhinek hartzen zuten gorputzar hura. Baina, tipo hau beti janzten da honela edo bisita duenetan bakarrik edo nire bisitagatik da?

Zinemagilea nintzela, edo antropologoa, esateko unea zen. Harrigarria bada ere, ez nerabilen halakorik buruan, nire bisitaren zergatia azaltzea



ez zen nerabilena. Buruan neukana, orain gogoratzen dudan moduan behintzat, Marlon Brandotzar hura zen, aurpegitik sabeleraino barrenean egiten zitzaizkion uhin konpasatu haiek, janzke-  
ra hura zenbateraino zen ohikoa. Eta horrelakoa. Kontu ugari, baina bat ere ez egoerak eska zezakeenik. Arreta ez da nire dohainik behinene-  
takoa. Ez da inoiz izan. Izan nintzen eskola umea gaur eskolan balebil, irakasleak aspaldi esango zion amari eskola ume horren arazo ugarietatik behinena arreta eza dela.

- Eta?, zer moduz zaude, Setien jauna?

Bekainak jaso zituen pittin bat. Ezpainak samurtu doi-doi. Uhinen frekuentziak bere horretan jarraitzen zuen. Dotore konpasatua. Ergel galanta etorri zait, pentsatu behar zuen. Baina, aldi berean, aukeratxo bat ematea ere bai ergel galant hari. Beharbada ez da erabat idiota, menturaz motela baino ez da, ez daki elkarrizketari nondik ekin.

- Ni ondo, eta zu? Alejandra, ekar itzazu kopa bi ardo.

Bigarren esaldia beste doinu batez ebaki zuen, lehena baino zertxobait lehorrago. Aukeratxoa ematen zidala ere adieraz zezaketan bigarren esaldi hark eta doinu aldaketak. Galdera

erantzutea ere eragozten zuenez, ez zitzaiola axola deliberatu nuen, niri jakinarazten zidala ez zitzaiola axola ni nola nengoen, ezta ere bera zelan zegoen niri kontatzea. Galdera ergela zela jakinarazi nahi zidan. Normala, horrenbestez, galdera idiota egiten duenari ez galdetzea zer hartu nahi duen. Alejandra agindua betetzera joan zen.

- Nire aita ez zen hil -esan nion.

Alejandra etorri zen, erretilu batean bi kopa ardo zekartzala. Lehenengo niregana luzatu zuen erretilua, kopa har nezan. Bere aitak berea hartu zuenean alde egin zuen, «Behar banauzu, deitu» esanez Gerardo Setieni. Honek ez zion ezer esan, begiratu ere ez, uste dut, erretilua bere kasa hegan etorri eta hegan joan bailitzan. Kopa altxatu zuen.

- Cosme Gezetaren alde, topa.

Kopa altxatu nuen. Ardoak merezi zuen go-raipatzea, baina, elkarrizketari eman nion hasiera aintzakotzat hartuta, ergelago geratzeko aukerak oro ekidin nahi nituen. Setien jaunaren arnasketak konpasa galdu zuen unetxo sumagaitz batez, berehala lehengo uhin frekuentziara itzultzeko; aurpegiak, ordea, lehengo lasaitasunean jarraitzen zuen. Oxigenoa gogoratu nuen. Gogo-

ratu nuen Agustinek esan zidala behin, badirela oxigeno tabernak hiri askotan, zeinetan O2 txute bat har zenezakeen lasai asko. Batzuen esanetan, edertotxo igotzen zaizula ganbarara eta, gainera, deskantsatua sentiarazten zaituela. Edozein egunetan jarriko zituela halako pitxer batzuk. Litekeena da, pentsatu nuen, tipo honek, bisitaria etorriko zitzaiola-eta, ohikoa baino zertxobait gehiago hartzea bere pitxerretik.

- Orduan, behintzat, ez zen hil -esan nion-. Gerora, ez dakit.

Bekainak doi-doi altxa eta buruarekin baietz egin zuen, astiro-astiro, bere arnasketa nekezak eragiten zizkion uhinen erritmo geldoan. Bestelakoan, lehengo lasaitasunean zeutzan.

- Gu, Bolatokin jokoan batzen ginenak, ez ginen adiskideak.

Baina, jokia bera tarteko, adiskideek batak besteaz jakin dezaketena beste edo gehiago jakin zenezaketen zuek albokoaren zenbait kontu intimoez, nioen neure baitarako, apaizek sasoi batean, sasoi hartan esaterako, jakin zezaketena beste edo gehiago, BBKk dakiena baino gehiago. Gainera, ez nuen irudikatzen Setien Garraioak enpresaren sortzaile eta buruak adiskideak izan zitzakeenik. Ez lehen, ez orain. Pertso-

na maitagarri eta maitekorrenak ere, zenbat adiskide izan ditzake bizitza osoan? Pertsona molde horretatik urrun nekusan Marlon Brando hura. Beharbada ez neukan motiborik, daturik, behintzat, ez neukan batere, alabaina pertsona agintari gisa irudikatzen nuen. Bizi zen eremuetan, negozioak eta familia batik bat, eguna agintzen ematen zuen gizona iruditzen zitzaidan. Harremanetan, harremanak botere harreman ere badiren heinean, beti goiko erpinean dagoenak nekez izan lezake adiskiderik. Esan gabe doa, ez naizela gauza adiskidea zer den azaltzeko. Seguru aski Gerardo Setienek bere bizitza osoan izandako harremanik horizontalenak Bolatokiko mahai hartan zituenak izan ziren. Hori hala baltitz, zitekeena zen samurtasun ukitu batez gogoratzea sasoi hura. Ordurako Cosme Gezetaren semea erabat idiota zenaren hipotesia baztertua izango zuelakoan nengoen arren, ez nuen arriskatu nahi izan, badaezpada. Isilik geratu nintzen.

- Zure aita 64an jesarri zen gurekin jokoan. Egia esan, ordura arte, gehienetan Rubio, Cleto eta hirurok elkartzen baginen ere, ez zen talde bat. Ez zen gero, zure aita etorri eta lasterrera, osatu zen bezalako talde finkoa. Martinek ekarri

zuen gure mahaira. Ez dakit aurretik elkar ezagutzen zuten. Nik orduantxe ezagutu nuen, Bilbotik ei zetorren.

Susmoa nuen Setienek ondo zekiela Mahatserritik joan zela; susmoa, ezjakin edo ezaxolaren plantak egiten ari zela.

- Mahatserritik -argitu nion, eta berak sorbaldak eragin zituen.

Arrazoi zuela aitortu behar zaio, zer lekutatik zetorren ez baitzuen garrantzirik.

- Kontua da, Cosme Gezeta ez zela Alluitzen hil. Hileta antzerki hutsa izan zela, bere ihesa ezkutatzeko antzezpena -zuzen bota nion, hain zuzen ezen, behin abiadura hartuta, farol bat botatzeraino iritsi nintzen-: Honen guztiaren antolakuntza, antolakuntzaren zati handi bat behintzat, Bolatokiko mahai hartan egin zen.

Sabeleraino jaisten zaizkion uhinen frekuentzia areagotu egin zitzaion Setieni. Beharbada ez zen izan nik esandakoagatik, beharbada apur bat lehentxeago hasi zitzaion, oxigeno eskasagatik beharbada.

- Lastima Cleto gure artean ez egotea -esan zuen solemnitare aire batekin.

Oraindik ez dakit adarra jotzen zebilkidan. Normala iruditu zitzaidan forentsea aipatzea, azken batean, hildakoak zituen lantegi.

- Nire aita Gorostidi forentsearen lagun egin zela adierazi nahi didazu?

- Ez ginela adiskide esan dizut, gazte, baina egia da batzuetan zorrak kitatzen genituela dirurik erabili gabe. Beti hala ez bazen ere, norbait dirurik gabe geratzen zenean gertatzen zen hori.

- Badut mesedeen bidez zorrak kitatzeko zenuen jokabide horren berri -aitortu nion, ia-ia moztu egin niola esango nuke, jakin zezan bane-kiela hori eta, hori nekien bezalaxe, gehiago ere jakin nezakeela.

Ez dut uste inpresio handirik eragin zionik esan nionak. Entzun ez balit bezala jarraitu zuen, nire galderen beharrik ez balu bezala.

- Rubio eta biok geratzen garenez bizirik, edo erdi bizirik, ez dakit zergatik, baina susmoa dut nigana jotzea lehenetsi duzula. Beharbada baduzulako Rubioren bizimodu jainkojalearen berri. Zerorrek jakingo duzu. Hala eta guztiz ere, komeni zaizu pare bat kontu jakitea. Joko-kide guztiok egin genitzakeen joan-etorriak legearen marraren beste aldera, baina marraren beste aldea hobekien ezagutzen zuena Rubio zen, bitxigilea.

Azken hitza azpimarratu zuen, *bitxigilea*, horrek adieraziko bailuen legetik haragoko eremuetan ibiltzeko aukera. Nik ez nuen hain argi ikusten baieztapena ze, horrenbeste sinesgarri begitanduko zitzaidakeen Rubioren ordeztien esatea eta bitxigilearen lekuan garraiolaria.

Jakitea komeni zitzaidan beste kontua aipatu zidan ondoren:

- Ez dakit zure aitaren kontu horretaz. Nolanahi ere, mahai hartako gorabeherak jakin, bertan esertzen ez zenak zekizkien inork baino hobeto.

- Martinek?

Baietz esan zidaten Marlon Brandoren begi ilunek.

- Hori da. Eta orain, gazte, amaitutzat eman behar dugu elkarrizketa hau, beste kontu batzuk ere baditut-eta. Cosmeri buruzko zerbait gomutara etortzen bazait, jakinaraziko dizut, aldeztatik deitu eta hona berriz etortzen bazara.

Gorputzarra airos samar altxatu zen besaulkitik. Aterako bidea erakutsi zidan besoa luzatuta. Alejandra ez zen agertu.

# Bitxigile damutua

Bolatokin sartzearekin batera, pilotak frontisa jotzen duen istant efimero eta bortitz batean bezala, pentsatu nuen, agian hara ninderamana ez zela soilik Martinekin egoteko xedeak, honek Jose Mari Rubiorengana bidera nintzan. Horixe pentsatu nuen, atea zeharkatu eta Elenaren begiekin topo egin nuenean. Hurbiltzeko keinua egin zidan irriño polisemiko batez. Mostradoreko taburete batean jesarri nintzen eta txakolin bat eskatu. Berehala damutu nintzen. Edozein tabernariri zuzentzen zaion moldean zuzendu bainintzaion. Litekeena da aurpegiak, begiek edo tonuak zerbait gehiago adieraztea. Baina hala zuzendu nintzaion:

- Txakolin bat, mesedez.

Damuarekin batera, nire gorputzak zerbait gehiago adierazi izango zion esperantza nuen. Ez dut gogoratzen arratsalde on esan nion edo ez.

- Aitarekin egotera zatoz? -galdetu zidan, hasierako irriñoa batere aldatu gabe, zertxobait areagotuz beharbada.



- Hori uste nuen tabernako atera iritsi arte, baina, sartu bezain laster, konturatu naiz ez dela horrela. Ez dela guztiz horrela.

Eta Martin agertu zen. Abiadura eta norabidea taxuz hartuak nituenean doi-doi. Atzetik hurbildu eta aupada bat eman zidan bizkarrean.

- Hara!, Gezeta gaztea dugu-eta hemen.

Eta zu ez bazintugu, mesede galanta, pentsatu nuen. Elenak mostradorean edalontziak lerrokatzeari ekin zion. Ez zuen galdetu beharrik bere aitarekin sartu ziren lagunei zerbitzatzeko. Martinek bizkarretik hartuta metro apur batzuk apartatu ninduen.

- Egon zara Setienekin?

- Herenegun izan nintzen bere etxean.

- Eta?

Ez neraman pentsatuta aurreikus zitekeen galdera horri zer erantzun. Seinalea, Martinekin egotea ez zela hara ninderaman kontu bakarra. Ahaztura honek adieraz zezakeen ez zela ezta kontu nagusia ere. Setienen osasunaz has nintekeen, baina susmoa nuen hori, hori jakitea, ez zela Martinen galderaren xede nagusia.

- Bolatokiko jokalaria haien gainean hitz egin dit.

Martin zain nuen, jarrai nezan. Isilunea ahal bezainbeste luzatu nuen. Berak nekez eutsi zio-lakoan nago, «kontaidak ba» ari baitzitzaidan esaten aurpegiko muskulu guztiekin. Eta hori, ez zekiela Cosme Gezeta ez zetzala bere izeneko hilobian.

Gozatzen ari nintzen. Laster konturatu nintzen, ordea, Martinek ez zidala galdera zehatzik egingo, ez behintzat nik hartarako beta ematen ez banion. Handituko zitzaion odoluzkia izugarrizko azkura eragin arte, lehenengo, eta mina gero, baina eutsiko zion.

- Jose Mari Rubiorekin hitz egitea erabaki dut.

Ez zitzaion gustatu, aurpegiko muskuluek, unetxo batez, argi adierazi zutenez. Ez neukan aurreikusia Martini zer kontatu eta zer ez. Ez nion ezer aipatu Setienekin hitz egindakoaz eta, are gutxiago, aitaren desagerpenaz. Nahiz eta, Setienek esandakoagatik, Martinek zerbait jakin zezakeela susmatu. Horrexegatik agian. Batek daki, menturaz Elenarekin hasitako solas esperantzagarria eteteagatik ere bai.

Galdetzera nindoakion non edo noiz harrapa nezakeen Rubio. Bera zain nuen, Clint Eastwooden aurpegi ohikoenarekin. Robert Mitchumena jartzen ahalegindu nintzen ni, ezkerreko bekaina

pittin bat jasoz eta, ezpainak banatu gabe, irritxo bat eginez. Ez nion ezer galdetu.

- Eskerrik asko, Martin, egongo gara -mostradorera itzuli nintzen, Martinek etendako hariaren bila.

Ile motots belzdun mutil gaztea moskatel bat zerbitzatzen ari zitzaion igeltsero antzean jantzi-tako gizona bati. Bere lagun gazteak ogitar-teko bat jaten ziharduen, aurrean garagardo pit-xer handi bat zuela. Elenaren arrastorik ez ze-goen.

Zuzen abiatu nintzen elizaz eliza bira bat egi-tera, mezen ordutegien peskizan. Andra Marin ohartu nintzen, egunkariren batean begiratzea neukala, hemen baditugu-eta egunkari katoliko-ak. Hiru meza zeuden arratsalde hartan, zorio-nez ordu ezberdinetan. Norbaitek bat baino gehiagora joan nahi badu, bidea erraztearren. Hori zen nire kasua. Egia esan, Jose Mari Rubiok ez zuen traba handirik egiten nire buruan. Elena-reakin hasitako elkarrizketak, onartuta trakets hasi nuela, kurioski indarberritu ninduela ziru-dien; kementsu nindoan nire ikerketan, edo dena delako hartan, aurrera egiteko asmoz. Ele-narekin zetorkeenak, horrek okupatzen zuen nire gogo. Martinek etendako solasa ezin oke-

rrago hasi nuen, baina, nire kontsolamendurako baino ez bazen, zuzentzen hasia nintzen tabernariak hain desegokiro moztu zuenean. Elenaren irria ez zen desagertu bere aitak eraman nindue-  
nean. Nik, behintzat, solas interruptus hura irri-  
ño harekin gogoratzen nuen. Kontu hauek har-  
tzen zuten osorik nire burmuina.

Hala ere, banuen oinarrizko estrategia bat. Ez nuenez Rubio ezagutzen, meza irteeran adin bertsuko gizonen batengana zuzenduko nintzen «Jose Mari Rubio?» esanez. Ziurrena huts egitea izango zen, baina, hura bazen Rubio joaten zen eliza, hurreratutakoak esan ziezadakeen nor zen. Estrategiak ez zuen huts egin. Halaxe aurki-  
tu nuen. Bigarreanean, Santa Anan. Zuzendu nin-  
tzaion aurreneko gizonak erantzun zidan baietz,  
hango huraxe zela.

Alaitasun gutxiko gizona iruditu zitzaidan lehen begiratuan. Beharbada, albo batera utzi gabe Rubioren konbertsioaz Setienek eta Marti-  
nek iradokitakoa, testuinguruak eraginda izan zi-  
tekeen, eliza parean baikeunden, hura liturgiatic  
irten berritan. Jainkoa jan berri zetorren, eta ho-  
rrek digestio astuna ekarri behar du ezinbes-  
tean.

Rubio bakarrik zegoen. Agurtu zituen mezetatik irtendako batzuk eta bere bideari ekin zion. Orduantxe hurbildu nintzaion.

- Cosme Gezetaren semea naiz.

Ez zuen harridurarik erakutsi. Bere aurpegiak, niri behintzat ezertxo ere esaten ez zidanak, ez zuen aldaketa printzarik txikiena izan. Aurpegiak ez zuela ezer esaten, esateko modu bat da, noski. Ez zen hotza, ezta beroa, epela ere ez. Emoziorik gabea. Hori da, emoziorik gabea.

- Unetxo bat baduzu, zurekin hitz egin nahi nuke.

Betondoa zimurtu zuen, begietara so geratu zitzaidan. Nire eskariari baietza ematea erabaki zuen. Elizatik hurbil dagoen arboladi batera eramandu ninduen eta banku batean eseri ginen, Mañaria errekarri begira. Esan nahi baita, ez geniola elkarri begiratu. Tira, nik agian begiratu nion noiz edo behin, betertzez gehienetan. Berak, aldiz, ez zidan begiratu, hori ziurta dezaket. Ez da pentsatu behar, ordea, iheskor zebilkidalako ez zidala sorik egiten. Hori ematen zuten aditzera jesartzera gonbidatu aurreko begiratu zorrotzak eta, batik bat, ahots sendoz hitzak ebakitzeko moldeak.

- Zeuk esango duzu.

- Kontua da, Rubio jauna, Cosme Gezeta ez zela hil. Duela gutxi jakin dut.

Hau entzunda ere, ez zuen begirada erreka-tik aldendu. Isiltasuna. Banekien neronek jarraitu behar nuela. Ezin nuela esandakoa bere horretan utzi, azken batean, neu joan nintzaion eta zerbaiten bila joango nintzaion. Baina isiltasunari eustea aukeratu nuen. Gizon elekoiztu hark, zebilen penitentzia eternaletik, zekiena berez kontatuko zidan esperantzarekin, menturaz. Ez zirudien horretarako aldar-tean.

- Pozten nau ez zela hil jakiteak.

Kristau tonua jarri zien hitzei. Esango nuke hasperen ere egin zuela. Okaztagarria iruditu zitzaidan. Jainkoari eskerrak ematea falta izan zitzaion. Banekien alboan nuena jokalaria zela, damutua, baina jokalaria. Nolabait esateko, autoa konpontzera daramadanean moduan sentitzen nintzen, dentistarenera noanean bezalaxe, joko zelai arrotzean, zeinean esaten dizkidaten erdiak ere ez ditudan ulertzen, arerioak, ez dut modu hoberik aurkitzen izendatzeko, dena dakielako eta nik ezer ez.

- Alluitzekoa, hileta, dena muntaia hutsa izan zen. Aitak alde egin zuen, ez dakit nora. Beste nortasun batekin, ihes egin zuen. Eta Bolatokiko

mahai hartan aurkitu zuen laguntza muntaia gauzatzeko. Gerardo Setienekin eta Martin Bola-tokikoarekin mintzatu naiz dagoeneko.

Begiratu egin zidan. Uste dut bigarrenez begiratzen zidala begietara. Lehenengoan bezala betondoa zimurtuta.

- Eta nola dakit nik Cosme Gezetaren semea zarela?

Nortasun agiria eman nion. Ez zuen atzera egin, betaurrekoak atera zituen jaka poltsikotik, irakurri egin zuen. Nik zantzu esperantzagarritzat hartu nuen. Aurrean jarri nion gaiaz mintzatzeko asmorik izan ez balu, aukera zitzakeen bestelako hitzak. «Ziurtatzen badidazu Cosme Gezetaren semea zarela, hitz egingo dugu», esan balit bezala entzun nuen bere galdera. Txartela itzuli zidan eta betaurrekoak gorde zituen. Errekaren doinua baino ez zen entzuten.

- Ez dakit zertan lagun diezazukedan -lehen baino astiroago mintzatu zitzaidan, hitzak nabarmen luzatuz, burua beste nonbait zuela, zertan lagun ziezadakeen pentsatzen ariko bailitz bezala.

Sasoi bateko bekatuez damu, haiek kitatzen ibil zedin desiratu nuen, horrek bultza zezan lagun hurkoa laguntzera, une hartan ni neu. Niri

laguntzeak eta Bolatokiko mahai hartako bekatuak garbitzeak bat egin zezaketen ustea nuen. Rubiok uste hori izan zezakeen ustea, hobe esanda. Aukera ona zuen bere jainkoaren aurrean espedientea txukuntzeko.

- Aita desagertu zen garaiaz gogoratzen duzunak lagun dezake.

Hori esan nionerako, orduko oroimenetan barna zebilela iruditu zitzaidan. Errekako uren hotsa gailendu zen berriro. Nerabe nintzela gustuko, gustukoen, nuen neska batekin Mesedee-tako zubi ondoan jesarrita Ibaizabali begira egon nintzen iluntzea neukan gomutan. Ibaizabala isilik joan ohi da han, ez da Mañaria erreka bezain zalapartatsua. Ibaizabalek erreka gaztearen zalaparta izan balu, agian, asmatu egin izango nuen orduko hartan. Egin ez nuena. Urteak geroago neska hark esan zidan, taxuzko zer edo zer esango nion zain egon zela Ibaizabali begira izan ginen hartan. Taberna zalapartatsu batean esan zidan, kasualitatez topo eginda Aste Nagusiko gau batean. Ez dut uste dozena erdi esaldi gurutzu genuenik, baina horixe esan zidan. «Taxuzko zerbait noiz esango zenuen zain ninduzun». *Ninduzun* esan zuen. Mostradorean egin genuen topo, tragoak eskatzen. Bere mutilarekin joan



aurretik ulertu ez nuen irri bat utzi zidan. Hau guztia gomutan, Rubiorekin, neu nintzen zain zegoena. Gure aurrean beherantz zihoan urak laster egingo zuen bat Ibaizabalekoarekin. Hori baino lehen zer edo zer esan ziezadan espero nuen. Taxuzko zerbait.

- Zure aita desagertu baino gutxi lehenago joko zor bat ordaindu nion. Sei hilabeterako hartu zuen Hondarribian dudan apartamentu bat.

- Desagertu baino zenbat lehenago? Barkatu, Rubio jauna, ez dut zakarra izan nahi, baina oso lagungarria izan liteke datu hori.

Pentsatzekoa da ez zitzaiola erraza egingo zehatz gogoratzea. Edo agian bai. Saltsa hartan sartuta ibili bazen, hau da, desagerpenaren logistika arloan parte hartu bazuen, kontzienteki parte hartu, ba, orduan ez zuen arazo handirik izango apartamentuko giltzak noiz eman zizkion gogoratzeko. Zitekeena zen, ordea, tramaren jakitun izan gabe parte hartu izana eta, gerora, hel ziezazkiokeen informazioak lotuz, edo hori gabe, besterik gabe, Hondarribiko apartamentuaren kontuak zalantzak sortzea nire aitaren benetako paraderoaz. Ezertxo ere ez jakitea, ez susma-

tzea, ez usaintzea, zen beste hipotesia. Sinesgarritasun gutxien zuena, nire irudikoz.

- 72ko maiatzean desagertu zen.

Buruarekin baietz egin zuen Rubiok. Horrextan nengoen, esango balu bezala. Laguntza eskertzen zuela ere adierazi nahian beharbada. Edo, galbahea astinduz, zer esan eta zer ez hausnartzen bailebilen. Ez zegoen jakiteko modurik. Gizon haren aurpegia irakurtezina zen niretzat.

- Hilabete lehenago, gutxi gorabehera, gogotan dut Aste Santuko egun batean joan ginela biok Hondarribira apartamentua ikustera. Hantxe eman nizkion giltzak.

Ez zegoen zalantzarik. Hondarribira alde egin zuen, ziurrenik beste nortasun batekin. Agiriak ere, hemen agiririk gabe bizitzea ez baita kontu erraza, aurretik prestatuak izango ziren. Hainbatean ez joko mahai hartatik oso urruti. Baina kontu honetaz ez zidan ezer argitu Rubiok. Ez zekielako agian. Edo egindako aitorenekin nahikoa txukundu zuelako bere curriculumak jainkoaren aurrean.

- Eta noiz itzuli zinen Hondarribiko zure apartamentura? -galdetu nion.

Aspaldian halako galdera lerdorik entzun ez balu bezala begiratu zidan.

- Sei hilabeteak igarota itzuli nintzen, noski.

Cosme Gezetaren heriotza, beraz, ez omen zen nahikoa arrazoi sei hilabeteak bete aurretik apartamentura joateko. Azken batean Rubiok ez zekien zertarako nahi zuen aitak apartamentua. Zitekeena zen heriotzak ez eragozteya apartamentuaren erabilera asmoak. Hau guztia neronek pentsatu nuen. Gizon haien kodean epea baino lehen apartamentuan agertzea zorra ez ordaintzea beste izan zitekeen. Edo zorra gaizki ordaintzea. Zorrak, ordea, ezin dira gaizki ordaindu, ez dauka zentzurik. Oximoron hutsa, esango luke Aitorrek. Zorrak ordain daitezke zatika, baina ez txarto. Beraz, Rubiok zorra ordaintzea hobetsi zuen eta ez zen ez apartamentuan ez Hondarribian azaldu sei hilabeteak igaro arte.

- Cosmeren desagertzea argi dezakeen beste ezer ez dakit -esan zidan-. Izan ezazu zorte ona zure bilaketan.

Nik, neure aldetik, zeren bila ote nenbilen pentsatu nuen. Eta gauza bera pentsatzen dut lerro hauek idazten ditudan bitartean.

- Hondarribian, non zenuen apartamentua?

- Bidasoa kalean daukat.

Atariko zenbakia eman zidan. Eskerrak eman nizkion nik.

# Izenaz beste

Agustinek eta Aitorrek azaletik baino ez zuten ezagutzen elkar. Inoiz lankidea tabernara eramana nuelako gurutzatuko zituzten hitzen batzuk. Asteazken gaua zenez, ez zebilen jenderik tabernan. Aitorrek eta biok arrautza frijitu batzukan genituen sukaldean, Agustinek eguneko azken kafeak eta trago bakanen batzuk zerbitzatzuten zituen bitartean. Hamaikak aldera, Agustinek kontuak egin eta kamerak betetzen zituelarik, erratza pasatu genuen Aitorrek eta biok. Erratza pasatu ahala, taberna zoruko hondakinak ez ezik, egun batzuk lehenagoko Gerardo Setienen eta Jose Mari Rubioren hitzak ere biltzen ibili nintzen. Argi zegoen Setienek esan zituenekin ez nintzela urrutira joango. Esan ez zituena bildu beharko nituen. Ez zidan galdera bakar bat ere egin. Galdera eskaeraren sinonimotzat eta eskaera ahulkeriatzat jotzen duten horietakoa delako hainbatean. Ez zuen kortsiazko hitz bakar bat esan. Agian hauxe da nardagarrien iruditu zitzaidana. Onartu behar dut, atseginez hartu nuela alabari aterarazi zion

ardoa, baina, gizalegez, galde ziezaiokeen gonbidatuari zer hartu nahi zuen. Rubioren hitzei esker Hondarribiraino, bederen, joan nintekeen. Taberna jasotzea amaituta, mahaian jesarri ginen, garagardo bana aurrean. Agustinek mahaian utzitako poltsatik belarra hartuz txirri bat egiteari ekin zion Aitorrek.

Mutilak, hauxe eta hauxe zagok. Eta kontatu nien ehorzlearen deiarekin hasitako kontua; alegia, harekin izandako elkarrizketak, baita ere amarekin, izeko Margaritarekin, Elenarekin eta bere aita Martin Lopez Aginakorekin, Gerardo Setienekin eta Jose Mari Rubiorekin izandakoak. Kontatu nizkien gero Poli Urizarren koadernoaren kontua, izeko Margaritaz izandako iritzi aldaketa, eta... hau guzti hau idazten nembilela.

Eta Bolatokiko partiden jitea ezagututa, partidena eta joko-kideena, nire ondorioa zein zen adierazi nien. Behin-behineko ondorioa.

Agustin beste zigarro bat egiten ari zen eta Aitorrek, ikusita amaitu nuela, atzamarretan zeukana pasatu zidan.

- Kontu bitxia -hasi zen lankidea-, desagertu eta bizitza berri bat hasi. Noizbait edonori bururatu zaiona. Nortasun aldaketaz hitz egiten

diagu, baina izena aldatzeak ez zakarrek halabeharrez nortasuna aldatzea.

Tirakada batzuk egin ondoren Agustini pasa nion txirria, eta txirriarekin batera txanda, txanda hartu baitzuen, behintzat, eta honelatsu ekin zion:

- Desagerpenaren zergatia diagu lehenengo, gero nola gauzatu zen; nora, zertara eta zein izekin joan zen; hire gurasoen banaketak zerikusirik izan ote zuen. Argi zirudik, berak prestatutako heriotza izan zela, eta, horrenbestez, planifikatua zuela beste nonbaiten beste norbait izatea.

- Matias Pascalek bezala -eten zuen Aitorrek.

Ez genion jaramonik egin eta jarraitu egin zuen Agustinek:

- Ez dik erraza ematen gaur egun bere ibilbidea jarraitzea, ez baitugu informaziorik, eta zaila ikusten diat eskuratzea, urte mordo bat joan da eta.

Nik ez nuen uste loturarik izango zenik banaketaren eta desagerpenaren artean. Batetik bestera ia hamar urte pasatu izanak ezin zuen besterik adierazi. Banaketaz, gainera, ez nien ezer aipatu, amak esandakoaz esan nahi dut, banaketaren zergatiak eta hori guztia. Eta ez nien esan,

ez soilik amari zor diodan begiruneagatik, alegia, ez naizela nor bere kontu intimoak, intimitatean niri esanak, beste norbaiti kontatzeko; aitortu behar dut bazegoela beste zerbait, lagun haiei ama beste gizon batekin ibili zelako banatu zirela esatea eragozten zidana, azaltzen ez dakidan beste zerbait, aldi berean sumaezina eta presentzia handia zuen zerbait.

Letra hauek etzaten dihardudala, zalantza bat datorkit berriro ere. Zeharo areagotua oraingoan. Banekien zenbat eta gehiago barneratu intimitatean, norberarena zein bestearenean, orri hauentzat onar nitzakeen balizko irakurleak murriztuz zihoazena. Une honetan ez dut irakurle bakar bat ere aurreikusten. Ez nintzen hau idazten hasi inork irakur zezan, baina orain inork ezin duela hau irakurri begitantzen zait. Denbora pasatu ahala alda nezake iritzi hau, sentimendu hau. Hori diost arrazoiak. Pascalek, beste Pascal batek, esan omen zuen legez, bihotzak ba omen ditu arrazoiak, arrazoiak ulertzen ez dituenak. Hala ere, gaur gaurkoz, ez nioke inori utziko. Beharbada, Polik eta Asunek egin zuten bezala, nire liburuen artean gorde beharko nuke izkribu hau eta zoriak erabaki dezala etorkizunean noren eskuetan jarri. Edo patuak. Edo gutunazal



batean gorde, hil ostean irekitzeko aginduarekin eta, nahi izanez gero, irakurtzeko baimenarekin. Edo begi guztietatik betirako ostendu.

- Batek zakik bizi den ere -esan zuen Aitorrek-. Dena den, Rubioren Hondarribiko apartamentuaren hariak ez ezik, urte mordo bat igaro izanak ere erraztu egin zezakek informazioa eskuratzea. Gertaeretatik lasterrera baino askeago hitz egin zezaketek Marlon Brandok, Bitxigile Damutuak eta Bolatokiko Tabernariak. Gustatuko litzaidakeena, baina, Poli Urizar horren koadernoak irakurtzea duk. Hik kontatu duanagatik, hor ere bazaudek izen aldatzea, halabeharra, patua. Biak igaro zituan bat izatetik beste bat izatera, bizitza berria beste leku batean, lehengoa ezkutatatu beharra.

- Polik ez zian aukeratu -zuzendu nion.

- Nola ez ba? Polik aukeratu egin zian, izenez eta lekuz aldatzean gutxienez. Planifikatu egin zian, hire aitak bezala. Gaur goibel batetik bihar mun ezezagun batera jauzi egitea aukeratu eta prestatu zian. Bigarrenetan ez, orduan bat-batean, ez tul bat egiteko behar den denboran igaro zuan egoera egonkor batetik beste muturrera: ihesera eta sasira. Nolanahi ere, irakurri

egin behar diagu, osaga guztiak eskuan ditugula hitz egin ahal izateko.

Aurrena ehorzlearekin komentatu behar nuela kontua, azaldu nien, ez bainekien haren baimenik gabe koadernoak zabaltzea egokia zen edo ez, nahiz eta nire eskuetan utzi zuenean kontrakorik aipatu ez zidan. Ehorzlea bera eza-gutzea ere ez litzatekeela gaizki egongo, iradoki zuen Aitorrek. Tarterik gabe, Agustinek galdetu zuen ea nor zen Matias ez dakit nor hori.

- Matias Pascal -zehaztu zuen Aitorrek-. Matias horrek prentsan irakurri zian bere buruaz beste egin zuela. Alegiya -honela esaten baitzuen Aitorrek zerbait azpimarratu nahi zuenean, *alegiya*-, bere buruaz beste egin zuela norbaitek eta Matias Pascal zuela izena. Zabal-tzen zitzaioan atea igaro eta, egoera profitatuz, desagertu egin zuan, Adriano Meis izenarekin agertzeko. Baina bizitza berriak gogaitu egin zuenez gizona, Meis jaunaren suizidioa antzetzuan, berriro Matias Pascal izateko eta etxera itzultzeko. Emaztea beste batekin ezkondu aurkitu zian eta seme-alabek ez zitean ezer nahi berarekin.

- Izan ere, horrela itzultzea... -barre egin zuen Agustinek.

- Poli Urizar ere itzuli egin zuan -erantzun zion Aitorrek.

- Baina ez utzitako emakumearengana. Zer nahi duk ba, atea jo eta besoak zabalik lepora salto egitea, afaria mahaian duela esatea edo arrastaka ohera eramatea? Munduak bueltak ematen segitzen dik norbera gabe ere.

Neu ere sartu nintzen solasean. Izan zela Londresen bere etxetik alde egin zuen gizon bat, dei diezaiogun Wakefield, astebete kanpoan egiteko eta emazteak zelan jokatzeko zuen ikusteko asmoz. Hurbileko kale batera joan zen, aurrez alokatutako apartamentu batera. Hogei urte egin zituen horrela eta, gero, etxera itzuli zen. Matias eta Polirenera itzulita, bazegoela alderik euren artean, lehena fikziozko pertsonaia baita eta bestea haragizkoa izan zela.

Aitor ez zetorren bat. Kea ahotik zeriola hasi zen esaten, ea zer demontre den fikzioa eta zer errealitatea.

- Poli izan izan zuan, hor ez zagok zalantzarik. Baina bere koadernoaren errealitatea ala fikzioa da? Ziurrenik bietatik esango didazue, baina zenbat batetik eta zenbat bestetik, hori beste kontu bat duk. Edo hik idatzi duana honetaz guztiaz, ez al da, ba, fikzioa? Ehorzlearen deia eta

hilerriko enkontrua errealitatea dituk, baina hik hartaz idatzitakoa, zer da? Eta hire aita? Hori bai dela fikzioa!

Ez ditut hitz horiek sekula ahaztuko. «Hori bai dela fikzioa!» entzuten dut harrezkero kontu hauek gogoratzean.

Wakefield etxera itzultitakoan gertatutakoa jakin nahi izan zuen Agustinek, zelan hartu zuen emazteak eta abar.

- Hori ez zakiagu. Etxean sartzen denean amaitzen duk istorioa -argitu nion-. Benetako gertaeretan oinarrituta omen zagok.

Isiluneak iradoki zidan, beharbada ez zutela Eduardo Bertiren berririk.

- Duela urte gutxi batzuk, *La mujer de Wakefield* argitaratu zian idazle argentinar horrek. Gizona etxera itzultzen denean hasten duk kontakizuna. Eta emaztea duk protagonista.

- Polik soldaduskatik ihes egin zian, Afrikako edo Kubako gerretatik -sintesi lanak egiten hasi zen Aitor -; Pascalek bere izen bereko baten suizidioa profitatu desagertzeko; Wakefield hori as-tebete kanpoan egiteko irten, emaztea zelata-tzeko, eta hogeit urte geroago itzuli, ridikulu ga-lanta eginez; eta hire aita, ez zakiagu zergatik, arrastorik utzi gabe joan zuan.

Luze jo zuen tertuliak. Matias Pascal, Wakefield, Cosme Gezeta, Poli Urizar. Txanda desordenatuetan hartzen zuen batek edo beste batek lehentasuna solasean. Aitorrek laurekin amaraun bat osatzeko joera erakusten zuen bitartean, Agustinek Cosmerekin eta Polirekin harilkatzen zuen berea, pertsonak pertsonaien gainetik, nolabait. Hari nahaspilatu honen paraleloa osatuz, errealitatearen eta fikzioaren arteko harremanez eztabaidatu genuen gau hartan, susmoa dudan arren hainbat momentutan ez geniola elkarri ulertzen, eta norbere buruari ere ez beste hainbatetan.

Mahaitik jaikita, Aitor eta biok kanpoan gine-la etxerako bidea hartzeko asmoz, Agustinek galdera batez agurtu gintuen, era absente batean egindako galdera:

- Baina, hire aita, zergatik desagertuko ote zuan?

Nire etxeko ataria metro gutxira zegoen. Aitorrek bazuen ordu laurdena berera. Ordu txikietan irten daiteke molde zaratatsuan tabernatik eta irten daiteke kaleko isiltasunarekin bat. Gu honela irten ginen. Isiltasuna hain zen erabatekoa, ezen ahapeka hitz egitera bultzatzen baitzuen. Halaxe, ia-ia xuxurlatuz, berriro ekin ge-

nion Setienekin eta, bereziki, Rubiorenkin izandako elkarrizketen gaineko solasari. Neuk ekin nion, Aitorren galderei itxaron gabe, etorriko ez ziren galderei itxaron gabe. Ke-hodia hondatuta zeraman moto gogaikarri batek baino ez zuen isiltasun hura eten. Motoa pasatzean ez nion ozenago hitz egin, isildu egin nintzen. Motor burrunba erabat desagertu zenean, halakoetan gertatu ohi den legez, eten aurretik zena baino isilagoa zirudien isiltasunak. Inguruko etxeren batetik entzun nintzaketela ere bururatu zitzaidan. Harira joan nintzen, hau da, ez nintzaion hasi Setienen eta Rubioren soslaiak egiten, ez nintzen Brando eta jainkojaleak, bataren alaba eta bestearen seme-mina aipatu. Hondarribikoa azpimarratu nuen. Aitor ere ez zen hasi Matias Pascal gora eta Wakefield beheara. Uneak eskatzen zuena egin zuen. Eta neronek espero nuena.

- Hik lor ezak Bolatokin hire aitaren argazki bat eta joan hadi Hondarribira. Nahi baduk la-gunduko diat.

# Nahikoa da

Txingudira begira zeukan apartamentua Jose Mari Rubiok. Atarian sei postontzi. Aukera gutxi, pentsatu nuen. Hobe esanda, aurretik neraman pentsamendu hori. Hogeita hamar urte askotxo ziren Cosme Gezeta ezagutu zuen norbait, eta gogora zezakeen norbait, aurkitzeko. Joko-kideekin eta Bolatokiko nagusiarekin agertzen zen argazkia utzi zidan Martinek. Argazkiaren aitzakia-ekin, Elena aurkitzeko eta Martinek etendako hariari heltzeko asmoz joana nintzen Rubiorekin izan eta biharamunean. Aitzakiarekin itzuli nintzen. Elena ez zegoen. Martin, bai. Argazki hura oso gustuko nuela azaldu nion, aita oso ondo agertzen zela, ez neukala bere azken sasoiko argazkirik eta kopia bat egin nahi nuela.

- Itzuliko dizut gaineko egunen batean.
- Lasai hartu eta itzuliko duzu ahal duzunean.

Horrela idatzita, baina, ez da erantzunaren jitea antzematen, are okerrago, gaizki antzematen da. Izan ere, ezer esan baino lehen bizpahiru segundoko isilunea egin zuen. Bai, isilunea egin. Eta gero esan zituen hitzok, keinu arraro bat aur-

pegian, «baina hik zertarako nahi duk hori» esanez bezala.

Aitor hasi zen postontzietako izenak irakurtzen. Izenek ere sasoi bat adieraz dezaketenez, batzuek argi eta garbi, berehala baztertu genituen erdiak. Hiru ate genituen jotzeko, bat Rubioren apartamentuaren aurrez aurrekoa. Hor hasiko ginen. Azken solairuan zegoenez, hirugarrenean, huts eginez gero, goitik beherako bidea egingo genuen.

Huts egin genuen lehenengoan. Atea zabaldu zigun emakumea ez zen gu baino askoz nagusia-goa. Bere aurreko belaunaldikoren bat bertan izatea ere alboratu genuen berarekin izandako elkarrizketa laburrean. Hasieran mesfidantzaz begiratu zigun. Ondo begiratuta ez da harriztekoa. Gure moduko bi tipo, argazki zahar batean agertzen den gizon bati buruz galdezka. Poliziak ginela pentsatuko zuen. Pentsa zezakeen, baita ere, ez genuenez geure burua poliziatzat aurkeztu, ba, ez ginela poliziak. Dena den, poliziak bere burua aurkeztearen kontu hori, filmetan eta tele-sailetan usu gertatzen dena, ez da errealitatean hain arrunta. Gaizkileak ginela ere pasa zitekeen emakumearen burutik. Guk ezin genuena asmatu zen, ea zerk aztoratu zezakeen gehiago emaku-



me hura, aurrean zituenak polizia ala gaizkile izateak. Izan gintezkeen aseguru etxeren batekoak, bizitza aseguru baten onuradunari ez ordaintzeko ahaleginetan genbiltzanak. Amaieran ere bai, mesfidantzaz agurtu gintuen amaieran ere, baina gutxienez lagun ziezagukeen zerbait esan zigun:

- Bigarrean bikote nagusi bat bizi da, etxea egin zen garaietatik.

Mesfidantzarik gabe, abegikor, hartu gintuzten doi-doi Rubioren apartamentuaren azpikoan bizi ziren zahar haiek. Laurogeien bueltan ibiliko ziren. Biek gogoratzen zuten argazkiko gizona.

- Jose Mariren apartamentua alokatu zuen. Ez zen denbora luzez egon -esan zuen emazteak.

Ez zuten izena gogoratzen. Ziurrenik ez zuten bere izenik inoiz jakin, diskrezioz mugituko baitzen Cosme Gezeta izandako hura. Ez zuten inoiz beste norbaitekin ikusi. Ikusi ere ez gehiegi.

Berriro kalean, bidea gurutzatu eta Txingudiko badiari begira geratu ginen.

- Ta? -Aitorrek.

- Nahikoa duk -nik.

- Hori uste diat nik ere.

Itzulerako bidaiari ez genuen ia hitzik egin. Aitorrek mantso gidatzen zuen, molde delika-

tuan esango nuke. Etxeko besaulkian, hausnar-ketarako besaulkian bezala sentitu nintzen. Etxeko pareta zuriaren ordeztu autobidea nuen aurrean. Hark beste ondo egin zezakeen pantaila-rena. Bost gizon nekuskien mahai bueltan: hiru jesarrita eta bi atzean, pittin bat makurtuta eta besoak jesarritakoen bizkarrean pausatuta. Cosme Gezeta erdi-erdian zegoen, ezkerrean Cleto Gorostidi eta eskuman Gerardo Setien zituela. Atzean Jose Mari Rubio eta Martin Lopez Aginako. Denek ziruditen lasai eta aldarte oneko. Eztabaida zitekeen Setiener aurpegiera irria zen edo ez, eta beste hainbeste esan daiteke forentsearen rictusari buruz. Ezbairik gabeko irria Rubioren aurpegian ikusten zen; urteetan irririk egin ez duen gizona, kurioski; gutxienez semea galdu zuenetik, bekatari izateari uzten hasi zenetik. Ordurako itxiak nituen betazalak. Ikusmena beste parametro batzuetara eramanez lezake begiak ixteak. Rubiok, Setienek eta Gorostidik alde egin zuten eszenatik, era sotil batean, leun, baina nabarmen. Hauek utzitako lekua Matias Pascalek, Wakefieldek eta Poli Urizarrek hartu zituzten. Aitak eta Martinek lehen-goan segitzen zuten.

Begiak zabaldu nituenean Igorretako ordainlekura iristen ari ginen. Ustekabean eta supituki, orduantxe bertan izeko Margaritarenera joatea pentsatu nuen, hau guztia kontatzera. Berehalaxe baztertu nuen ideia hura. Bururatzetik baztertzera tartean ez zidan eman astirik Aitorri esateko, zorionez. Ez zeukan zentzurik, bide batez edo guelako, Durangora joatea Hondarribikoa izeko Margaritari kontatzera. Ez zeukan zentzurik, batez ere, amari baino lehenago Margaritari kontatzea. Gainera, ez zegoen presarik. Niri zegokidanez amaituta zegoen ikerketa edo dena delako hura. Bestalde, zerbaitek esaten zidan denek zekitela gehiago, nik baino gehiago. Amak, izeko Margaritak, Bolatokikoen, ehorzleak... batez ere ehorzleak. Sentsazio deseroso bat zen, definigaitza. Herra zen deserosotasun horren osagaietako bat, ez handiegia, baina herra. Ez zitzaidan asko kostatu identifikatzea. Intentsitate baxuko herra Bolatokiko jokalarieki, intentsitate ertainekoa ehorzlearekiko. Doazela denak pikutara.

- Goazen bazkaltzera, gonbidatuta hago.

# M.M. in memoriam

Ehorzleak ez zuen eragozpenik jarri nire lagunek Poli Urizarren koadernoak irakur zezaten, ezta eurak ezagutzeari ere. Bere etxera eraman nitzala eskatu zidan. Larunbat arratsalde batean joan gintzaizkion. Ohi bezala, edana eta puru bana eskaini zizkigun. Agustinek ea maria erreterik bazen galdetu zion, eta ehorzleak ekiteko keinuarekin erantzun.

Aitaren konturik ez zen ia aipatu, antza ez zuen ordurako interes handirik; beharbada, Poliren koadernoak zelako hara eraman gintuena. Polik eraman gintuela egia izanda ere, gu laurok batu gintuena, ordea, aitaren kontua zen. Nik neuk ez nuen ahaleginik egin Poliren haria utzi eta Cosmerenari heltzeko.

Erabakia nuen eskuratutako datuen azterketaren ondorioz osatutako hipotesiaren berri amari eta izeko Margaritari ematea. Bataren senarra eta bestearen neba ez zen Alluitzen hil. 1972ko maiatzean desagertu zen, bere borondatez. Hilabete lehenago, Aste Santuan, Hondarribira joan zen Rubiorekin, bitxigileak han zeukan

apartamentu bat ikustera eta bertako giltzak hartzera, izan ere, sei hilabetez erabiltzaile izatea irabazi baitzion jabeari jokoan. Honaino datuak.

Orain hipotesiak. Probableenetatik ahulenetara. Laguntza logistikoa Bolatoki tabernan aurkitu zuen. Apartamentuarenaz gain, forentseak erraztuko zion bidea heriotza egiazkotzat jotzeko. Mahai hartan aurkituko zuen laguntza, nortasun berri bat osatzeko behar diren agiriak-eta eskuratzeko. Ziur Bolatokiko nagusiak eta mahaikideek esandakoa baino gehiago zekitela. Euren erreakzioak ikusita, beharbada, alda nezakeen hipotesia eta arrastoaren bila jarraitu, baina ez nuen uste hala izango zenik. Ezta nahi ere.

Zalantza batzuk nituen. Bolatokiko nagusiak eta joko-mahaikoak ez ezik, izeko Margaritak esan gabe zeukan zerbait ba ote zegoen, ea zerbait zekien aitaren bizitza aldaketaz. Ez nuen uste. Desagerpenarena aipatu nionean izandako jarrerari erreparatuz gero, ez zekien ezer. Edo aktore galanta zen. Banaketaz agian bai, litekeena da zerbait gehiago jakitea, jakin zezakeen zergatiabera ere.

Ehorzlearen etxean solas egin genuen due-lueztan, hilerrietan eta beste hamaika kontutan. Batez ere Poli Urizar eta Asun izan genituen hizpide. «Beste ezpal bateko jendea», esan zuten behin baino gehiagotan ehorzleak.

- Koadernoak aurkitu nituen egunetan dozena erdi bat aldiz irakurriko nituen -bistakoa zen, buruz baitzekizkien hainbat pasarte-. Handik urte batzuetara, Franco hil zen urte berean, Poli Urizarren bidaia egin nuen, lehenengo koaderno-koa. Bere herritik La Arboledara joan nintzen, handik Bilbora, Bilbotik Madrilera, eta buelta Bilbora. Hirugarren koadernoak, hala deitu diot jakin ez arren zenbat izan daitezkeen 1906-1936 arte-koak, agian batere ez, ba, hirugarrena Poli Bilbon dela hasten da. Bartzelona, Paris, Baiona eta beste hainbat tokitan ibili zen, 1952an Bilbora itzuli arte.

- Gustatuko litzaidake jakitea non eta nola elkartu ziren berriro Asun eta Poli -esan zuten Aitorrek-, ze, ez didazue esango, hor bai dagoela mamia.

Ziur naiz denok genuela buruan kontu hori, beste inkognita guztien gaineratik ez bazen ere, zerrendan oso goian bai bederen.

Nire pentsamenduetan barna balebil bezala jarraitu zuen nire lankideak.

- Horixe da, niri behintzat, gehien interesatzen zaidana. Elkarrekin eman zuten denboran zerbait gertatu zen, zerbait erne zen, eta baita moztu ere. Ezinbestean moztu. Eta hor agertzen zaizkigu berriro elkarrekin berrogeitaka urteak pasa eta gero.

Ehorzleari begira geratu ginen hirurok. Honek, ordea, ez zuen azalpenik emateko trazarik. Trago bat orain, puruari tira gero, hiruroi begiratzen zigun irriño bihurritz, gure jakin-mina handitu ahala handituko balitz bezala bere gozamina.

- Eta, zer gertatu zen Artemiorekin? -galdetu zion zuzen Agustinek.

- Artemio eta Asun bikotea ziren Ollerietan Poli hartu zutenean -ihardetsi zion ehorzleak-, eta Asun eta Poli bikote izan ziren etxe honetan. Eguraldi lasaiarekin ere konplikatua dira pertsonen arteko harremanak. Atera itzazue, ba, kontuak zelan erabil lezaketen jendea belaualdi horrek bizi izandako haizeek eta ekaitzek iragan mendeko lehen erdian, are gehiago belaualdi horretan hauspoari eraginez ibili zirenen bizitzak.

Orduak aurrera, goizeko txikietan sartuta, hasi ziren proposamenak ere agertzen, hala-moduzkoak batzuk. Aitorrek, ekintza gizona non-bait, bota zuen gustatuko litzaiokeela berari ere Poli Urizarren ibilbidearen lehen zati hori egitea.

- Eta baita ere Madrilgo Kale Nagusiko 88an Calle de Mateo Manterola plaka jartzea.

- 1936an, gerra hasi eta hiru hilabetera -azaldu zigun ehorzleak-, udalak hainbat kalere-  
ren izenak aldatu zituen Madrilen, berrehunen bat. Mateo Morral izena jarri zioten Kale Nagusia-  
ri.

Esango nuke honek animoak gora eraman zitu-  
tuela, izan ere ehorzlearen etxetik alde egin  
baino lehen hartua genuen erabakia. Kaleari  
izena aldatu ez, izena aldatzeko plaka bakarra  
ez baita aski, baina bai *M.M. in memoriam* tes-  
tuarekin plaka bat jarriko genuela Mateo Morral  
kalea izandakoaren 84an, ehorzleak argitu bai-  
tzigun 1906ko 88a gaurko 84a dela. Agustin ar-  
duratuko zen plaka eta hau hormara iltzatzeko  
behar zirenak ekartzeaz. Buzo bana ere agindu  
zigun, bizkarrean *Construcciones y Derribos MM*  
idatzita. Eskailera Madrilen bertan erosiko ge-  
nuen. Eskuratu, esan zuen Aitorrek, *eskuratu*.



- Handik itzulitakoan, hirugarren koadernoaren kopia bana emango dizuet -hitza eman zuen ehorzleak.

Ehorzlearenean nire aitaren konturik aipatu ez bazen ere, handik irtetearekin batera esan zidan Agustinek:

- Ez zakiat zergatik zuzendu zen higana ehorzlea, eta ez hire amarengana.

Susmoa hartua zuen, nire amak zein izeko Margaritak bazutela kontu guztien erantzuna. Baita ehorzleak berak ere.

Nik, ordea, galderak baino ez neuzkan. Anabasa batean agertzen zitzaizkidan, euren bila joan gabe. Eurak zetozen, gutxien espero nuen. Pentsatzeko besaulkian eseri orduko, Agustinen hitzak nituen ganbaran dantzan. «Ez zakiat zergatik zuzendu zen higana ehorzlea, eta ez hire amarengana». Neronek ere ez. Ez zen halako lanak zituen lehen aldia izango. Ez dut uste beti mugitu beharreko gorpuen familiako norbaitengana zuzenduko zenik, are gutxiago ordubete barru kanposantuan hitzordua jartzeko. Zerbait zeukan gurekin. Gezetatarrok zerbait ginen beretzat. Ehorzlearen etxetik irtetean izan nuen sentipena, orduan Agustinek barik, Aitorrek galdetu zuenean: «Baina, hire aita zergatik desa-

gertuko ote zuan?»». Ez zakiat. Berresten dudana da ez dagoela loturarik banaketaren eta desagertzen artean. Ezinezkoa da.

Nork ez du izan, behin edo behin, desagertzeko gogoia. Buruaz beste egitea da moduetako bat. Izenaz beste egitea beste bat. Kontu existentzialak egon daitezke izenaz aldatzeko arrazoen artean. Besteak existentzia bera jokoan izatearekiko kontuak dira. Bizia, bizirautea, jokoan. Hauetariko gehienetan diru kontuak dira bizia edo bizirautea jokoan jartzen dutenak. Litekeena da aita bizitzaz gogait eginda egotea. Eta horrexegatik beste nonbait, beste norbait. Litekeena da, baita ere, zorrek janda egotea. Jokoan galdutakoengatik, nahiz eta ezin ahaztu jokoan irabazi zuela bere ihesaren hasieran erabili zuen pisu frankoa. Edo aseguru etxean egindako badaezpadako operazioengatik. Horrenbestez, izan zitzakeen kartzelaren edo eraso fisikoen mehatxuak. Pisuzko motiboa, irtenbide drastiko bat bilatzeko. Eskura nezakeen informazioa honetaz. Aski litzateke Bolatokiko jokalaria ohiengana edo amarengana edo Margaritarengana jotzea. Zerbait atera nezakeen, bila segitzeko zerbait. Sekulako nagia ematen zidan. Ez zitzaidan interesatzen jakitea, ea aseguru etxeari lapurretan

egin eta harrapatu zuteiako desagertu zen aita edo hartzekodunen batzuek sikarioak kontratatu zituztelako berari eskarmentu eder bat emateko. Denboraz prestatutako plan bat gauzatu desagertu zen. Itxura guztien arabera, planaren bete-tze maila erabatekoa izan zen. Bejondeiola.

Desagerpenaren eta banaketaren artean loturarik ez zegoela erabaki nuen arren, desagerpenari buruz pentsatzean banaketa zetorkidan beti burura. Banaketaz pentsatzean, ostera, ez nuen desagerpena gogoratzen. Honek zer pentsa ematen zidan eta ematen dit. Bateko zein besteko pentsamenduetan ehorzlea da, lehen-txeago edo geroxeago, beti agertzen dena. Sarritan akordatzen naiz, Elenak, elkar ezagutu genuenean, egin zidan baieztapen batekin: «Ez duzue antzik», esan zuen Bolatokin aita seinalatu nionean paretako argazki batean. Paranoia hutsa dela esaten diot neure buruari. Baina neure buruak ez dit sinesten. Beno, agian sinetsi bai, baina ez du hori baino egiten. Ezin du erago-tzi puxika bat balitz bezala barrenean puzten zaidan ideia hori. Mamu hori. Hipotesia arrazoia-ren fruitua denez, ez da hipotesia. Beste zerbait da. Litekeena da amarekin ibili zen gizona ehorzlea izatea. Ez daukat daturik. Ez dago horra era-

man nazakeen arrastorik. Eta hala ere, behinola ehorzleak esandakoa etortzen zait: «Aspaldi, emazte batengatik desafioa egin nioan senarra-ri, edo agian berak niri, ez diat ondo gogoan». Tira, izango ziren gizon gehiago Mahatserrian. Baita Mahatserritik harago. Dena den, ez dakit zergatik, probableago iruditzen zait etorri berri batekin endredatzea. Datek ez dute aukera hau eragozten. Tarte labur batean gertatu zen dena: ehorzlea Mahatserrira etortzea, ama beste gizon batekin endredatzea... Baita nire munduratzea ere. Tarte oso laburrean dena. Ez zen kontu luzea izan.

# Le temp de cerises

Abandoko tren geltokiko tabernan genuen hitzordua. Pentsa liteke urduritasunagatik ez nuela arazorik izango esnatzeko eta jaikitzeko. Bada, ez. Elenarekin egin nuen amets. Amaiarekin nengoen sukalde bateko mahaian jesarrita, aurrez aurre. Amaiak eskua jarri zuen nirearen gainean eta orduantxe konturatzen naiz Elenaren etxean gaudela. Edo orduantxe Elenaren etxeko sukaldean agertzen gara. Etxea ez ezik, eskua ere Elenarena zela konturatu nintzen, ukituagatik lehendabizi, nahiz eta ametsez kanpo ezin esan inoiz ukitua nuenik. Eskua ez ezik, eskumuturra, besoa, sorbalda, lepoa. Elenarekin nago horma batean dauden antzinako argazkiak ikusten, zehaztu ezineko leku batean, une bazuetan kanposantu bat dela dirudi; eskua jartzten dit garondoan eta atzamar puntez laztandu. Esnatu aurreko lozorroaren gozoan, kale bustian goaz, gaua da, bere besoa nire lepoan, nirea bere gerrian.

Sartu nintzenean han zegoen Agustin, mostradorean jesarrita gurinezko opila behin eta be-

rriro kafesnetan itotzen. Buruarekin eman zidan egunona eta behean zuen poltsa seinalatu zuen begiekin. Plaka. Aitor ere ordurako etorri zen. Nahiago zuen croissanta, baina mostradorean utzitako lorratza Agustinena bestekoa zen. Gaueko hamarretan irten behar zuen trenak. Hamar gutxiagotan ehorzlearen mezua jaso nuen segapotoan. «Arazotxo batzuk tarteko ezin nauk geltokira joan. Zuek segi. Han izango nauzue zain». Lagunei erakutsi nien.

- Putakume bat duk!

Bat nentorren Agustinekin.

- Harroa galanta!

Bat nentorren Aitorrekin.

Nire lagunek, ordea, ezin zuten nire baitan sumatzen nuen herraren harra euren barrenetan sentitu. Oharkabean hazia. Ez nekien, orduan ez nekien eta orain ere ez dakit ziur, zergatik hazi zen, nola eta noiz hasi zen. Erabilia sentitzen nintzela uste dut. Arrazoiak hori zalantzan jartzzen zidan arren, sentsazioak hemen zirauen, erraieran, poliki-poliki haziz.

- Goazemak -esan zuen Agustinek, astuna zirudien poltsa hartzen zuen bitartean.

Konpartimentu oso baten jabe egin ginen. Ekipajearentzako lekura jaso genuen plaka zera-

man poltsatzarra, eta gainontzeko poltsak han-  
hemen barreiatu genituen. Argi geratu zen ez  
genuela beste inor nahi gurekin. Agustinek belar  
poltsa atera zuen. Aitorrek Poliren koadernoak.  
Tematuta zegoen bidaiari irakurtzearekin. Agus-  
tinek liturgia tentel eta kurtsitzat jo zuen asmoa,  
horiexekin hitzok, baina ez doinu agresibo  
batez, ez behintzat Aitor haserretzeko beste.  
Honek, eztenkada haiei jaramonik egin gabe, ira-  
kurtzeari ekin zion. Ozen. Ez genion jaramonik  
egin. Agustinek zigarroa egin zuen, belarrez  
oparo. Aitorren marmarrari arreta jarri nionera-  
ko, Madrilera iritsia zen Poli Urizar, trenetik jais-  
ten ari zen.

Nasan bostekoa luzatu zidan Valdespinak  
eta, nirea berean zuela, «Zu orain bezala  
iritsi nintzen neronek ere hona orain dela  
urte asko, Soriako herri batetik», esan  
zidan. «Zorte on, gazte». Bostekoa eman  
nion eta irribarretsu hartu zidan. Nasan au-  
rrera eginez jende artean nahasi ziren. Nik  
neure aldetik sudurretik birrikak geltokiko  
aire lorrinez bete nituen eta jarraian astiro-  
astiro hustu. Aldarte onean nintzen. Aspal-  
diko partez ez nuen neure burua iheslari-

tzat, mundua ez zegoen nire zelatan, ez zidaten bazter guztietatik begiratzeko, konfiantzaz begiratu nuen inguruan eta konfiantza itzuli zidan inguruak, hango joan-  
etorriak ez baitzeukan zer ikusirik nirekin, hau da, ni une hartan han ez banengo gauzek bere horretan jarraituko zuten. Munduarekin adiskidetzen hasia nintzen, eta sentimendu hau areagotu egin zitzaidan geltoki aurreko plazara iritsi nintzenean. Mundura itzuli nintzela begitandu zitzaidan. Ongi etorri Mateo, entzun nuen ene baitan. Agur Joakin, erantzun nuen, nion. Asun etorri zitzaidan burura. Asun eta Artemio.

Lehenengo atalaren irakurketa amaitu eta keinu beatifiko batek jota begira genuen Aitor.

- Joakin Bizkarra meatzaria izateari utzi eta Mateo Manterola izatera igaro zuan Poli Urizar -esan zuen Agustinek-. Birritan egin zian bere izenaz beste.

Bere buruaz beste egin zuela edo istripua izan zela, zalantza izango zuen noizbait batek baino gehiagok, ama eta izeko Margarita tartean. Beharbada urte hauetan guztietan iraungo



zuen zalantza horrek batzuen buruetan. Amak eta izeko Margaritak, behintzat, argitu ahal izan dute kontua. Ez suizidioa ez istripua. Bere izenaz beste baino ez zuen egin Cosme Gezetak. Ez dakit amak alargun pentsioa jasotzen duen. Litekeena da, azken batean estatuaren aurrean Gezetaren alarguna baita. Aitak, aseguruaren munduan zebilenez, izango zuen bizitza aseguru polizaren bat, batek daki noren alde. Izeko Margarita agian, ama ez dut uste. Agustinen ahotsak atera ninduen hausnarketa, nola esan, finantziario hartatik.

Aitorrek aurpegiera beatifikoarekin jarraitzen zuen. Agustinek egindako txirriari ekin izan balio, horri egotziko geniokeen. Beste zerbait izango zen.

- Ekartzak koadernoak -agindu zion Agustinek, eta Asunek idatzitako lerroak irakurtzeari lotu zitzaion.

Aspaldi isilduak ziren egun osoan kale bazterrak ziprirtindu zituzten ume algarak atea jo zutenean. Irekitzera joateko imintzioa egin orduko aurrea hartu zidan Artemiok. Bezpera gauean Lucio etorri zitzaion etxera ea aterpea behar zuen gazte bat

hartuko genuen egun batzuetarako galde-  
tzera. Hala esan zidan behintzat Artemiok.  
Aurrekoetan legez, ez sarriegi egia esan  
behar bada, baietz erantzun zion Artemiok.  
Eta ez zuen galderarik egin, aurrekoetan  
legez. Lucio adiskide mina zuen, baita sin-  
dikatu kide ere. Luciok zekarrenak ater-  
pea behar bazuen, gainean zeukan hodei  
beltzak gaiztoa izan behar halabeharrez.  
«Zenbat eta gutxiago jakin orduan eta  
arrisku txikiagoa inguruak hondatzeko»  
esan ohi zuen Artemiok, eta neroni bat-  
nator horretan. Lucioaren bideak, bestalde,  
beste harenak bezala, arakaezinak dira.

Nik banuen interesa lerro haiekiko. Beste  
nonbait nuen gogoia, ordea. Orain pentsatzen ja-  
rrita, ba, nik ere, menturaz, aurpegiera beatifi-  
koa izan nezakeen. Gogoia okupatzen zidanaren  
karietara.

Madrilera abiatu baino egun batzuk lehena-  
go, Bolatokira joan nintzen Martinek utzitako ar-  
gazkia itzultzera, baina helburu erabat bestela-  
koa neramala. Goizean, etxetik irtetean, argi  
esan nion neure buruari. Ez hadi hona itzuli Ele-  
narekin zerbait lotu gabe, hitzorduren bat-edo.

Batez ere ez hadi etorri Elenari ganorazko zer-  
bait argi adierazi gabe, txoratuta hauela-edo.  
Ildo horretatik despistatu gabe. Mostradorean  
motots belzdun eta ezpain lodidun mutila aurki-  
tu nuen. Horrek ez ninduen atsekabetu. Erabaki-  
ta zegoen. Hantxe geratuko nintzen Elena ager-  
tu arte. Martin jasan beharko banu ere. Mostra-  
dore osteko apaletan zeuden botila guztiak ira-  
kurri beharko banitu ere. Barman ezpaintsuare-  
kin harremana, ordura arte existitzen ez zen  
hori, egin beharko banu ere. Garagardo bat es-  
katu nion. Eta orduantxe agertu zen Elena, su-  
kaldetik. Keinu bat egin zion enplegatuari, joan  
zedila, bera jabetuko zela hango kontuez. Muti-  
lak mototsa doitu zuen bi eskuekin eta irribarre  
lodi batez agurtu zuen nagusia. Elenaren txanda  
hastearekin batera, txanda hasten zelako agian  
edo jokoaren ordua zelako, besterik gabe, gizon  
talde bat sartu zen. Zuzen jo zuten barrura.  
Elena hurbildu zitzaidan:

- Berehala itzuliko naiz. Hauek zerbitzatzera  
noa.

Bezeroekikoak eginda, besoak mostradore  
gainean paratu eta esku bateko atzamar puntak  
bestekoekin dantzan jarri zituen. Duela egun ba-  
tzuk bere aitak utzi zidan argazkia neukan gutu-

nazal handi batean, mostradore ganean. Ez nuen berriro hanka sartuko, ez behintzat lehengo zuloan. Ez nion esango Martinek utzitako argazkia itzultzera nindoala.

- Lehengoan hemen izan zinen aitarekin -esan zuen.

- Bai, nahiz eta etorri-etorri, zu ikustera etorri nintzen.

Ulertu ez nuen baina zoragarria iruditu zitzaidan irri sotila egin zuen. Zoragarria eta esperantzagarria.

- Izan ere, zurekin egin nuen amets.

- Eta zer amets, jakin badaiteke?

Atzamar puntetik dantzari utzi eta, mugimenduen kadentzia motelduz, elkar laztantzen ziharduten. Atzamar haien dantzaleku izateko desio ikaragarria sentitu nuen. Eta, kadentzia motelduz, laztanleku ere bai.

-Jakin liteke, noski. Baina horretarako elkarrekin geratu beharko dugu.

Egingo nuke atzamar puntetik, atzamar *gorringoak* entzun nion behin Aitorri, mantsotu egin zutela beren mugimendua, zegoeneko ez ziren banatzen esku batekoak eta bestekoak.

- Gera gaitezke bihar bertan, arratsaldean. Lauretan irtengo naiz.

- Bertara etorriko natzaizu.

Argazkia itzuli nion eta aitari eskerrak eman ziezazkion eskatu. Ez zidan ezer galdetu argazkiaz, zergatik eraman nuen, zertarako.

Gau hartan berriro egin nuen amets Elenarekin. Ohean geunden, hotel batean, Moskun. Mosku zela nahiko argi zegoen, gela hotel batekoa zela ez hainbeste. Ez naiz inoiz Moskun izan. Izan naiz inoiz hotelen bateko gelan. Gela hura munduko edozein bazterretan egon zitekeen, nahiz eta gogoratzen dudan bakarra izara zuri-zuriak eta argi anbar bat ziren. Argia izan zitekeen leihotik sartzen zen arratsa edo paretako kriseilua. Elena zertxobait agonduta zegoen, bizkarra ohe-buruan bermatuta, izterrak zabal, Courbeten *munduaren sorlekuaren* aldaera limurtzaileena osatuz. Ni ahuspez nentzan, kokotsa bere sabelpean, besoak zabal bere izterrak inguratzen.

Han nintzen lauretan. Luze egin zitzaizkidan aurreko orduak. Goiz esnatu nintzen, ohi baino goizago. Etxea jaso nuen. Badaezpada. Erosketa batzuk egin eta hozkailuak beste itxura bat hartu zuen, askoz presentableagoa. Gereziak garbitzen niharduela, aleren batzuk hitzordura eramatea erabaki nuen. Eraman daiteke oparitxo-

ren bat halako hitzordu batera, baina ez, ez zen nire estiloa, ziurrenik ezta Elenarena ere. Ez zen gure estiloa. Eraman daiteke partekatzeko zer-bait. Alor honetan edariak hobesten dira. Ba, ez, ez nuen txakolinik ez bordeauxik ez errioxarik ez irulegirik eramango. Gereziak eramango nituen, banuen eta horretarako oso egokia zen kristalezko fruta-ontzi polit bat. Fruta-ontzia ziur gustatuko zitzaiola. Gasolindegian autoa garbitu nuen eta erregaiz hornitu. Badaezpada.

Puntuala izan zen Elena ere.

- Goazen hemendik -esan zidan tabernan sartu orduko.

- Hortxe daukat autoa.

Eztabaida daiteke soinean zeramana minigona zen edo ez. Ezin dena eztabaidatu da gonak, nabarmenkerietatik urrun ezin dotoreago zena bere more eta beltzetan, asko irabazten zuela Elenaren soinean. Hobeto esanda, goia jotzen zuen bere soinean. Mahukarik gabeko blusa beltzak estali bezainbat iradoki egiten zuen. Autoa bertan zegoelako, esan daiteke tabernako atean bertan, une hartan ez zelako behar, hitzik egin gabe sartu ginen. Jesar zedin, ondoko lekuan nuen kristalezko fruta-ontzia hartu nuen eskue-tan.

- Gereziak ekarri ditut.

Ordura arteko gure harremanean ikusi nizkion irrietatik une hartan eskaini zidana izan zen hobekien ulertu nuena. Ulertu nizkion ezpainak eta ulertu nizkion begiak. Hori uste nuen bederen. Takoi txikidun sandalia batzuk zekartzan. Erantzi zuen bat eta jarri zuen oina guanteran. Atzazalek kristalezko fruta-ontzian zeuden gerezien kolore bera zuten. Ontzitik gerezi bat hartu eta bere behatz lodiaren ondoan ipini zuen.

- Nik ere bai.